goiena
Zu hemen zaude.

2023-01-20 EGUBAKOITZA / 977. ZENBAKIA / 23. URTEA
DEBAGOIENEKO DOAKO ALDIZKARIA GOIENA.EUS TOKIKOM

BETETZEN HASITA, BAINA BEHEAN

Irailaz geroztik, aste honetan egin du euri gehien Debagoienean; ondorioz, Urkulu berriro betetzen hasi da: larrialdi egoeratik alerta egoerara igaro da eta betetze-maila %62,87koa da / 2

Urkuluko urtegiak eguaztenean zeukan itxura, ur-bazterrak eta mendi inguruak elurpean. XABIER URZELAI

Mondragon Unibertsitateko eta Korporazioko kideak politikariekin astelehenean. I.A.

MUren berrikuntza eta ekintzailetza industrialeko zentroa, gertuago / 6

Astelehenean Arrasateko plazan egindako elkarretaratzea. XABIER URZELAI

Pentsiodunen borrokak 5 urte bete ditu bizitza duinagoaren alde / 4

SINADURAK

OSKAR ELIZBURU / **7**

ANE SANCHEZ ZEZIAGA / **9**

MIKEL ARREGI ASKASIBAR / **40**

Patxi Goikolea bertsozaleari elkarrizketa

Energia eredu berri baterantz Debagoienean

Urkulu urtegia zuritu egin zen; alerta egoeran jarraitzen du oraindik. GOIENA

Antzuola zurituta. GOIENA

Arrasateko udal langileak elurra kentzen zebra-bide batean. GOIENA

Bergarako Ibargarai kalean zuhaitz-adar bat erori zen. GOIENA

Urteko lehen elurtea iritsi da Debagoienera eta zuriz estali du osorik

Eguazten goizean zurituta esnatu ziren bailarako kaleak, baina horrek ez zuen ezbehar larririk eragin; halaber, aurreko egunetan euri zaparrada mardulak bota ditu eta astelehena izan zen irailetik hona litro gehien pilatu zen eguna

Idoia Aranbarri Arzuaga DEBAGOIENA

Negu giro bete-betea izan da Debagoienean aste honetan, elur-maila 200 metrotik behera jaitsi baitzen urtarrilaren 18an, eta eguazten goizean zurituta esnatu ziren bailarako mendi, zelai, teilatu eta kale guztiak. Errepideak, espaloiak nahiz atariak garbitzeko lanetan aritu ziren Gipuzkoako Foru Aldundiko eta udal langileak zein herritarrak elurra kentzeko makinekin eta palekin. Ondoren, gatza izan zen beharrezko elementua, hurrengo orduetako hotzak izotzik eragin ez zezan herrigunean.

Elurra bakarrik ez; euria ere gogotik bota zuen astelehen eta martitzenean, eta, Euskalmeten datuen arabera, urtarrilaren 16a izan zen egunik euritsuena irailetik hona.

Elurrak utzitakoak

Ibarreko udalek aktibatu zituzten elur-protokoloak eta goizeko lehen orduetatik azkenetaraino egon ziren adi-adi eguraldia jarraitzen eta lanean elur-pilaketak nahiz izotza saihesteko.

Elgetan, esaterako, martitzenean elur-ura bota zuen eta eguazten goizean 10 zentimetroko elur-geruzarekin esnatu ziren. Bergarako errepidean, goizean goiz, zenbait zirkulazio arazo sortu baziren ere, 09:00 alderako bidea zabaldu zuten. Horregatik, ikasle asko ezin izan ziren jaitsi Bergarara, besteak beste, goizeko autobus zerbitzua bertan behera geratu zelako.

Oñatin ere prest zeuden elurra egiteko eta ez zen ezustekorik izan, 05:30ean hasi baitziren elurra kentzeko lanetan. Ezbeharrik handiena San Pedrotik Olaterainoko bidera eroritako zuhaitzak eragin zuen. Argindarraren kable baten gainean gelditu zen, baina ez zuen eraginik izan argindar zerbitzuan.

Bergaran eta Antzuolan ere elur-pilaketa handiak egon ziren eta etengabeko lan-jarduna izan zuten langileek irisgarritasun bideetatik elurra kentzen. Halako egunetan Deskargako portua izaten da puntu kritikoa, baina zabalik egon zen autoentzat. Hala ere, zenbait momentutan kateak behar izan ziren bertatik pasatzeko.

Hala ere, bada elurra gustu handiz hartu zuenik ere. Haurrak jolasean ibili baitziren elurretan zenbait herritan, lera eta guzti.

Egunik euritsu eta hotzenak

Udazkena nahiko lehorra izan da eta negua bide beretik zihoan aste honetara arte. Azken hiru egun hauetan erregistratu dira irailetik gaur arteko egunik euritsuenak eta hotzenak. Astelehenetik eguaztenera abisu horia ezarri zuten euriteengatik Kantauri isurialdean, eta, Euskal Meteorologia Agentziaren datuen arabera, astelehena izan zen irailetik hona egunik euritsuena. Izan ere, Elorregin 24 orduan 48,5 l/m² pilatu ziren; Arrasaten, berriz, 41,6 l/m².

AZKEN EGUNETAN EURI ASKO EGIN BADU ERE, URKULUKO URTEGIAK ALERTA EGOERAN DARRAI

Tenperaturari dagokionez, berriz, eguaztena izan da egunik hotzena Arrasaten, 1,1 gradu izan baitziren, batez beste; eta, gainera, 2,9 graduko maximoak eta 0,1 graduko minimoak erregistratu ziren goizeko lehenengo orduetan.

Urkulu, alerta egoeran

Azken egunetan euri zaparrada mardulak bota baditu ere, momentuz, ez da nahikoa izan Urkuluko urtegiaren egoera indizea aldatzeko: alerta egoeran jarraitzen du. Gipuzkoako Ur Kontsortzioaren azken datuen arabera, urtegiaren betetze-maila %62,87koa zen atzo. Hala ere, domekatik hona goranzko bidea hartu du ur-mailak eta zertxobait igo da; hain zuzen ere, %4.

Ahuntza, Gatzagan. ETXAUSTEGI BASERRIA

Goizean goizetik aritu ziren elur-makinekin elurra kentzen Elgetan. GOIENA

Eskoriatza zurituta, eguaztenean. GOIENA

Elur-makina lanean Arantzazun. GOIENA

Urtegiaren egoera erabat aldatu da urtebetean, Iaz, garai honetan, %97raino baitzegoen beteta. Azaroaren hasieran sartu zen alerta egoeran Urkuluko urtegia, eta, bigarren hamabostaldian botatako euri jasek egoerari arnasa eman bazioten ere, abendua nahiko lehorra izan zenez %59ko betetze-mailarekin agurtu zuen 2022a. Julen Abasolo Loramendi elkarteko toponimia taldeko kidea da, eta, haren esanetan, "egoera ez da hain arraroa. Aurten nabarmen joan da behera, baina harriak urtero bistaratzen dira. Duela bost urte, beherago egon zen".

Irailetik egun euritsuenak

1	Urtarrilak 1	**48,5** l/m².
2	Azaroak 21	**38,1** l/m².
3	Urtarrilak 17	**36,9** l/m².
4	Irailak 29	**36,1** l/m².
5	Urtarrilak 18	**29,0** l/m².
6	Azaroak 19	**25,9** l/m².
7	Irailak 30	**13,1** l/m².
8	Azaroak 29	**12,7** l/m².
9	Urtarrilak 8	**11,9** l/m².
10	Urtarrilak 11	**5,2** l/m².

Euskalmetek Elorregin hartutako datuak.

Asteburura begira, zer?

Astebururako giro oso hotza iragarri du Euskalmetek. Gaur, prezipitazioa urria izango da eta elur-maila 800 eta 1000 metro artean egongo da.

Zapatu eta domekarako tenperaturan aldaketa handirik ez du aurreikusten. Zerua hodeitsu egongo da eta barnealdean izotz txikia egin dezake. Gaurko prezipitazio txikiek jarraipena izango dute bihar, batez ere, egunaren bigarren partean. Litekeena da elur-maila 500 eta 700 metro artean kokatzea eta egunaren amaieran 300 eta 400era jaistea. Egunaren amaieran baliteke haizeak gogor jotzea.

Domekarako ere haize bolada gogorrak iragarri ditu; batez ere, mendi inguruetan.

Dantzari batek aurreskua egin zien pentsiodunei, Arrasaten. XABIER URZELAI

Herriko Plazan bildu ziren Antzuolako pentsiodunak. JOXEAN UGARTEBURU

Manifestua irakurri eta bertsotan egin zuten Oñatin, udaletxeko arkupeetan. GOIENA

Bergarako San Martin plazan ehun lagun inguru batu ziren. BERGARAKO PENTSIODUNAK

Pentsiodunek protesten bosgarren urteurrena ospatu dute aste honetan

Bergaran, Arrasaten eta Oñatin ekitaldi bereziak egin zituzten astelehenean, orain arteko borroka gogoan. Aurreskua egin zieten pentsiodunei, eta bertsoak ere izan zuen bere lekua. Aretxabaletan eta Antzuolan elkarretaratzeak egin zituzten

Amaia Ramirez de Okariz Kortabarria DEBAGOIENA

Bost urte bete zituzten, joan den domekan, Hego Euskal Herriko pentsiodunek bizitza duinago baten alde borrokatzeko protestak hasi zituztenetik, eta urteurrena izan zuten gogoan astelehenean herriz herri eginiko elkarretaratzeetan. 1.080 euroko gutxieneko pentsioa eta euskal babes sistema publikoa izan zituzten aldarri.

Bergaran manifestazioa egitekoak ziren, baina, euria ari zuela-eta, elkarretaratzea egin zuten, San Martin plazan, 12:00etan. Ehun lagun inguru batu ziren eta, gainera, Itziar Usandizaga Bergarako Pentsiodunen Mugimenduko bozeramaileak azaldu du "aurpegi berriak" ikusteko aukera izan zutela: "Hunkigarria izan zen". Ekitaldi nagusia, berriz, Seminarioko arkupean egin zuten. Dantza egin zieten pentsiodunei, aurreskua, eta kantuan ere aritu ziren, irrintzi eta guzti. Egunak luzeago jo zuen, ordea, bazkaria ere egin baitzuten.

Bergarako pentsiodunak ez ezik, Arrasatekoak ere omendu zituzten, aurreskua egin baitzien dantzari batek, Herriko Plazan. Gogoan izan zituzten euren artean ez dauden baina urteetan zehar borrokan aritu diren pentsiodunak ere, eta Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimenduko manifestuan jasotakoa irakurri zuten; izan ere, 230 astelehen geroago ere, kalean borrokatzen jarraitzen dutela nabarmentzen da.

1.080 EUROKO GUTXIENEKO PENTSIOA ETA EUSKAL BABES SISTEMA PUBLIKOA ALDARRI

Oñatin ere elkarretaratzea egin zuten, manifestua irakurtzearekin bat, udaletxepeko arkupeetan. Bertso batzuk abestuz amaitu zuten mobilizazioa eta orain artekoaren balorazioa "ona" egin zuen Joxefe Diaz de Tuestak, Oñatiko pentsiodunen bozeramaileak.

Ekitaldi xumeagoak

Herri handienetan ez ezik, txikiagoetan ere egin zituzten elkarretaratzeak. "Euri eta eguraldi narrasari" aurre eginda, 25 lagun inguru batu ziren Antzuolako plazan, baina ez zuten ekitaldi berezirik egin, Joxean Ugarteburu Antzuolako pentsiodunen mugimenduko kidearen arabera. Eta Aretxabaletan dozenaka lagun batu ziren Durana kalean eginiko elkarretaratzean.

Gainontzeko herrietan, Aramaion, Elgetan, Eskoriatzan eta Leintz Gatzagan, ez zuten mobilizaziorik egin.

ARIZMENDI, KOOP. E.AREN BATZAR NAGUSIRAKO DEIALDIA

Arizmendi Koop.E.aren Estatutu Sozialetako 30. artikuluak dioenari jarraituz, Kontseilu Errektoreak 2022ko abenduaren 14an egindako bileran adostu du Arizmendi Koop.E.aren bazkideak Ohiko Batzar Nagusi honetara deitzea, kooperatibaren interesetarako onuragarria delakoan.

EGUNA: 2023ko otsailaren 2a..
LEKUA: Arimazubiko aretoa.
ORDUA: Lehen deialdia: 17:30ean. Bigarren deialdia: 18:00etan.

GAI-ZERRENDA

1. Aurreko Batzar Nagusiaren aktaren onespen-txostenaren irakurtzea. Aktaren onespenerako bi bazkide izendatzea.
2. 2021-2022 ekitaldiko zuzendaritza-txostena aurkeztea, eta hala balegokio, onartzea.
3. 2021-2022 ekitaldiko sozietate-kudeaketa eta Urteko Kontuak (Balantzea, Galera eta Irabazien Kontua, Cndare Garbiaren Aldaketen egoera-orria, Diru Fluxuen egoera-orria eta Txostena), baita Kudeaketa-Txostena ere, aztertzea eta, hala balegokio, onartzea.
4. 2021-2022 ekitaldiko emaitzak banatzea.
5. 2022-2023 ekitaldirako helburu nagusiak eta aurrekontu ekonomikoa aurkeztea.
6. Kontseilu Soziala berriztatzea.
7. Kontseilu Errektorea berriztatzea.
8. Kontseilu Errektorea ahalduntzea Batzar Nagusian hartutako erabakiak egikaritzeko.
9. Mondragoneko Ezagutza dibisioaren eraketaz informatzea.
10. Galde-erantzunak.

arizmendi ikastola

Goretti Maturana Esquibel
Kontseilu Errektoreko Lehendakaria
Arrasate, 2022/12/14

Otalora lizentziaduna, 8 20500 Arrasate.
Telefonoa 943 77 20 25 Faxa 943 79 79 22 www.arizmendi.eus

Eskualde mailako eguna ospatuko du Ernaik

Gazte antolakundearen 10. urteurrena ospatuko dute martxoaren 18an, Oñatiko plazako pilotalekuan. 'Debagoienetik ari gara' izenarekin, hitzaldiak, bazkaria eta kontzertuak antolatu dituzte. Kontzertuetarako sarrerak salgai daude dagoeneko

Miren Arregi Amasorrain OÑATI

Eskualde mailako aldarrikapen eguna egingo du Ernaik martxoaren 18an Oñatin. *Debagoienetik ari gara* egunak "eskualdeko gazteak elkartzeko, hausnartzeko eta elkarrekin gozatzeko" eguna izan gura du. Ernai gazte antolakundearen 10. urteurreneko ekitaldien baitan kokatuko da ospakizuna. Ildo beretik, apirilaren 6tik 9ra bitartean Gazte Topaketak egingo dituzte Elorrion.

Astean Oñatin egindako agerraldian, balioa eman diote antolakundeak hamar urte hauetan egindako lanari: "10 urtez gure buruak, auzoak, herriak eta eskualdea aldatzen aritu gara. Debagoienetik dena aldatzen aritu gara eta lan horretan dihardugu egun ere, oraindik aldatu beharreko gauza asko bizi ditugu eta", azaldu dute.

Ernaiko Debagoieneko ordezkariak, Oñatin. OIHAN LOIDI

Bazkaria, kontzertuak eta abar

Oñatiko plazako pilotalekuan ospatuko du Debagoieneko Ernaik eguna. Goizean hitzaldiak egongo dira, *Intersekzionalitatetik Euskal Herria Feminista Eraikitzen* izenburupean, eta, ondoren, ekitaldi politikoa egingo dute. Bazkaria ere egongo da eta arratsaldean kontzertuak antolatu dituzte. Skabidean, EH Sukarra, Tribade, Golpe de Estado, Liher eta Lehen Lerroa musika proposamenez gozatzeko aukera egongo da. Kontzertuetarako sarrerak salgai daude dagoeneko: Oñatin eta Bergaran, Arrano tabernetan; Arrasaten, Iratin; Aretxabaleta, Urbaltzen; Eskoriatzan, Inkernun eta Antzuolan Aitz Garbin. Langabeendako 15 eurotan egongo dira eskuragarri eta langileendako, 20 eurotan. Bazkarirako sarrerak aurrerago jarriko dituzte salgai, bost eurotan.

'Rap showcase'-a eta mikro irekia antolatu ditu GKSk gaurko

Datorren urtarrilaren 28an, Gazte Koordinadora Sozialistak deituta, manifestazioak egingo dira Bilbon eta Iruñean, *Enpresari eta agintarien erasoaldiaren aurrean, gazte langileok borrokara* lelopean. Hain zuzen, "mobilizazio horien edukien berri emateko eta sozializaziorako", egitarau desberdinak antolatu dituzte Bergaran eta Oñatin gaurko. Oñatiko Antixena gaztetxean, 20:00etan hasita, *rap showcase*-a eta kontzertuak egingo dira. Bergaran, berriz, mikro irekia egingo dute, 19:00etan, Zubitxako Zentro Sozialistan –eskola zaharrean–.

Urtarrilaren 28ko mobilizazioei begira, gainera, autobusak antolatu dituzte GKStik. Aramaiotik, Aretxabaletatik, Arrasatetik, Oñatitik eta Bergaratik irtengo dira. Horietan izena emateko aukera dago Arrasateko Osorik tabernan, Aretxabaletako Ezkutun, Bergarako Usoan eta Oñatiko Boga tabernan.

MIGUEL ALTUNA Lanbide Heziketa

LANGILE ETA LANGABEENTZAT IKASTAROAK
%100ean DIRUZ-LAGUNDUAK

LEHENTASUNA: LANGILEEK IZANGO DUTE			
FABRIKAZIO MEKANIKOA			
IKASTAROEN IZENAK		ORDUAK	DATAK
UF0879	TXIRBIL-HARROKETA BIDEZ PIEZAK FABRIKATZEKO CNC PROGRAMAK PRESTATZEA	80	2023/02/06 - 2023/03/23
UF0878	TXIRBIL-HARROKETA BIDEZKO MEK. ERAGIKETATAN MAKINAK,TRESNERIA ETA ERREMINTAK PRESTATZEA. KONBENTZIONALA	80	2023/03/13 - 2023/05/09
UF0453	FABRIKAZIO MEKANIKOKO PRODUKTUETARAKO IRUDIKAPEN GRAFIKOA SOLID WORKS. MODELATZEA ETA 2.0 PLANOAK	40	2023/01/23 - 2023/02/15
FMEH0005HV	SOLID WORKS II. MULTZOAK	30	2023/02/21 - 2023/03/08
FMEE00350H	3D CAM NX-CAM PROGRAMAZIOA	40	2023/03/13 - 2023/04/04
FMEH00750H	EGIAZTAPEN TRIDIMENTSIONALA M-COSMOS	30	2023/03/06 - 2023/03/21
	EGIAZTAPEN TRIDIMENTSIONALA. PC-DMIS	30	2023/04/24 - 2023/05/10
ELEKTRIZITATEA ETA ELEKTRONIKA			
FMEM009PO	ROBOTIKAREN OINARRIAK	50	2023/01/23 - 2023/02/20
OC21200149	AUTOMATAK PROGRAMAGARRIAK	60	2023/02/27 - 2023/03/30
LEHENTASUNA: LANGABETUAK - GAITASUN ZIURTAGIRIAK – ENPRESAKO PRAKTIKAK			
FMEE0108	FABRIKAZIO MEKANIKOKO ERAGIKETA OSAGARRIAK	440	2023/02/06 - 2023/06/15
ENAE0108	EGUZKI-INSTALAZIO FOTOVOLTAIKOAK MUNTATZEA ETA MANTENTZEA	540	2023/02/27 - 2023/07/07

Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzua Servicio Vasco de Empleo
Fp
Unión Europea

INFORMAZIOA ETA IZEN EMATEA: MIGUEL ALTUNA LANBIDE HEZIKETA - Agirrebidea 2, 20.570 Bergara.
Tel: 943 89 92 72 // Eposta: ikastaroak@maltuna.eus // www.maltuna.eus

Hirekin zentroaren lehen harria jartzeko ekitaldian hainbat elementu sartu zituzten kutxan erakundeetako ordezkariek. M.U.

Hirekin: industriaren eraldaketa eraikitzen

Enpresei, ekintzaileei, ikertzaileei eta ikasleei zuzendutako lankidetzarako gunea da Hirekin berrikuntza eta ekintzailetza industrialeko zentroa; ia zortzi milioi euroko aurrekontua du eta 2024. urtearen erdialderako bukatuta egotea aurreikusten da

Idoia Aranbarri Arzuaga ARRASATE

Mondragon Unibertsitateak Hirekin berrikuntza eta ikertzailetza industrialeko zentroaren lehen harria jartzeko ekitaldi sinbolikoa egin zuen astelehen goizean; izan ere, ekitaldiaren data atzeratu egin behar izan dute, hainbat arrazoirengatik, eta, horregatik, eraikitze lanak hasita daude dagoeneko.

Enpresei, ekintzaileei, ikertzaileei eta ikasleei zuzendutako gunea da Hirekin eta industria jasangarriaren arloko balio erantsi handiko erreferentziazko zentroa izatea da haren helburua. Hala, egungo industriaren isurtzeak gutxitzeko irtenbide berriak bilatuko ditu zentroak, baina ingurumen-helburuekin bat datozen jarduera ekonomiko berriak sustatu ere. Vicente Atxa MUko errektoreak esan zuenez, "ekintzaileen eta eragile teknologikoen lankidetza sustatzea gaur egungo industria jarduerak sostengarriago bihurtzeko eta aktibitate industrial berriak sortzeko". Ekintzailetza, intraekintzailetza, ikerkuntza eta hezkuntza bultzatuko ditu; hainbat eragileren artean elkar-lankidetzako eredu irekia oinarri izanda.

INDUSTRIA JASANGARRIAN ERREFERENTZIAZKO ZENTROA IZATEA DU HELBURU

Ekitaldi sinboliko hartan, instituzio eta erakunde askotariko ordezkariek hartu zuten parte eta proiektuarekin lotutako elementurik adierazgarrienak sartu zituzten berrikuntza eta ikertzailetza industrialeko zentroaren irudia daraman kutxa batean; Jose Maria Arizmendiarrietaren *Hazia* musikalaren kartela, *Humanity at Music* sinfonia kooperatiboa, txanponak, proiektuaren planoak, harria eta bailarako egunkariak, zehatzago izateko. Carlos Garcia MUko Goi Eskola Politeknikoko koordinatzaile nagusiak adierazi zuen kutxa astelehenean bertan lurperatzea zela asmoa, baina egun hartako euri zaparradak zirela-eta ekintza hori eguraldi hobea dagoen egun baterako utzi dutela.

Arrakastarako bidea

Vicente Atxa Mondragon Unibertsitateko errektoreak, Joxe Oleaga arkitektoak, Joxean Alustiza Fagor Taldeko eta Gizabidea Fundazioko lehendakariak, Iñigo Uzin Mondragon Korporazioko lehendakariak, Teresa Riesgo Zientzia eta Berrikuntza Ministerioko idazkari nagusiak, Jokin Bildarratz Hezkuntza sailburuak, Maria Ubarretxena Arrasateko alkateak eta Markel Olano Gipuzkoako diputatu nagusiak hartu zuten hitza ekitaldian, hurrenez hurren.

HIZLARIEK ADIERAZI ZUTEN HIREKIN EZINBESTEKOA DELA ELKARLANA AURRERA ATERATZEKO

Guztiek izan zuten gogoan Jose Maria Arizmendiarrietaren figura eta nabarmendu zuten Hirekin zentroa ezinbesteko proiektua dela enpresen, ikertzaile eta ekintzaileen arteko elkarlana aurrera ateratzeko. Zientzia eta Berrikuntza Ministerioko Teresa Riesgo idazkari nagusiak Europan asko entzuten den "berrikuntzen agenda berria"-ri egin zion erreferentzia; ekimen horretan berrikuntza ekoizpenaren sektorera iritsi nahi baitute, eta Hirekin bat datorrela ideia horrekin: "Era batera edo bestera hasi behar da, baina enpresek prototipoak proba ditzaketen instalazioak izateak arrakastarako bidea ziurtatuko du".

Ildo beretik jarraitu zuen Mondragon Korporazio lehendakari Iñigo Uzinek: "Etorkizunean, teknologiagatik jende gutxiago beharko da ekoizpenean, baina garapena geroz eta garrantzitsuagoa izango da eta baliabide gehiago eskatuko ditu".

Markel Olanoren esanetan, proiektu horrek bat egiten du Gipuzkoan azken urteetan martxan jarri diren beste zenbait erreferentzia zentroekin.

Elkarlana txalotu zuten Uzinek eta Bildarratzek. Halaber, hezkuntza-guneek eta enpresek "eskutik helduta" joan behar dutela aldarrikatu zuen Hezkuntza sailburuak, "gizarte bezala benetan aurrera egin nahi bada. Askotan esaten zaigu Euskadin zergatik daukagun hainbesteko arrakasta gune horiek sortzeko orduan. Aspalditik lanean gabiltzalako da hori; horregatik ateratzen ditugu horrelako emaitzak".

Arrasaten izatearen garrantzia

Zentroa Arrasaten eta ez hiri baten inguruan jartzeari garrantzia eman zioten Markel Olanok eta Maria Ubarretxenak. Arrasateko alkateak proiektua "ausart" bezala deskribatu zuen. Olanok, berriz, azpimarratu zuen "Debagoien indartsu batek Gipuzkoa indartsuagoa egingo duela; eta Gipuzkoa indartsu batek Euskal Herri indartsuagoa".

Fagor Taldeko eta Gizabidea Fundazioko lehendakari Joxean Alustizak etorkizun hobe baten alde ekarpenak egiteko konpromisoa azaldu zuen: "Jarraitu nahi dugulako elkarlanean eta eraldaketa sozialean oinarritutako Debagoiena eraikitzen".

Gaur egun, eskualdeko hainbat erakunde ari dira MUrekin elkarlanean, hala nola Mondragon Korporazioa, Saiolan, Ikerlan, Fagor Taldea eta Gizabidea Fundazioa, Debagoieneko Mankomunitatea, Isea, Galbain eta Garaia Parke Teknologikoa. Proiektua irekia denez, espero dute erakunde eta enpresa gehiagok bat egitea.

2024an amaitzea aurreikusita

Goi Eskola Politeknikoaren zentro berriak 6.000 metro karratu izango ditu eta Arrasateko Uribarri auzoan kokatuko da. Lanak hasita daude eta 2024aren erdialdera amaitzea aurreikusten dute; 7.120.702 euroko aurrekontua du. Hirekin zentroa diseinatu duen Joxe Oleaga arkitektoak aurreratu zuen eraikinak 19 metroko altuera eta 24 metroko zabalera dituen nabe zentrala izango duela eta horrek ahalbidetuko duela inguruan beste eremu batzuk sortzea: laborategiak, tailerrak, *coworking* guneak, bilera gelak eta kantina.

LANTEGIAK, TAILERRAK ETA SORKUNTZA ETA BILERA GELAK IZANGO DITU ERAIKINAK

ZABALIK

OSKAR ELIZBURU

Ez dut milagro handirik espero

Barakaldokoa naiz eta daukat paro obrero, horregatik euskaltegira noa ni egunero... kantatzen zigun Oskorrik; Barakaldo aldean, erdara eta langabezia nagusi. Lanerako euskara lagungarri izango zela askok sinistu genuen. Nahiago dut ez zenbatu zenbat urte joan diren, etsiak jo ez nazan; eta esango nuke ordutik euskararen normalizazioan egin diren aurrerapenak, asko eta asko izan arren, ez direla askotan baliagarriegiak.

Biztanle guztiok harrera euskaraz jaso ahal izatea eta administrazioak hori bermatu behar duela jasotzen du Euskararen Legeak, baina zer gertatzen da gero? Barakaldon gertatu berri direnek ederki erakusten digute badirela mila modu ez betetzeko. Legeak lege, eskubideak eskubide, epailetzaren erabakiak, maiz, kalterako dira.

ESKUBIDEAK ESKUBIDE, EPAILETZAREN ESKUBIDEAK, MAIZ, KALTERAKO DIRA

Zer gertatzen da, ba, administrazioak bermatu behar badu zerbitzua euskaraz ez betetzeko? Zergatik epaileek sindikatu baten eskariz euskara bermatzeko bidea geldiarazi? Zein da arrazoia? Pribatizazioa.

Bai, horixe, administrazioak azpikontratak hartzen ditu eman behar dituen zerbitzuetarako –merkeago zaiolako, langile publiko bihurtzen ez direlako...–. Dena dirua aurreztearen izenean egiten da, baina kaltegarria da, adibidez, langile horien eskubide eta soldatetan, eta bestelako alboko arazo ugari dakar; adibidez, euskararen erabilera ez bermatzea. Administrazioek betebeharra badute ere, enpresa pribatuek ez; eta epaileek hori baliatuta erabakitzen dute azpikontratek hizkuntz eskakizunak eskatu behar ez izatea euren langileei.

Legez administrazioak bermatu behar duen zerbitzua haren azpikontrataz bete behar duenak ere berdin egitea ezinbestekoa da; bestela, euskaraz artatuak izateko eskubidea ez da bermatzen ari. Badihardugu urteak eta urteak hori legean sar dadin eskatzen, ezinbestekoa delako, logikoa delako... *baina ez dut milagro handirik espero.*

MARRAZKIZ

ALEX UGALDE



GUTUNAK

Urtarrilaren 28an Bilbora!

AITANA GUERETA MAGER
DEBA BAILARAKO GKS-KO KIDEA
DEBAGOIENA

Krisian dagoen kapitalismoa ziklo ekonomiko berri batean sartu da, pobreziak eta eskubideen ezabapenak ezaugarritzen duten ziklo batean. Agerikoa da langileon bizi baldintzak geroz eta okerragoak direla, zentzu ekonomikoan zein politikoan.

Gazte langileoi modu argian eragiten digu egoera honek, eta honen ondorioak egunerokoan ikus ditzakegu: lan baldintza prekarioak, dirulaguntzekiko dependentzia, aisialdiaz gozatzeko ezintasuna, bortizkeriaren gorakada, kriminalizazioa eta abar, eta abar. Gazteok etorkizuna garela diguten horiek oso ondo dakite hala dela, eta horregatik, bizi eredu txiro eta autoritarioa gazte belaunaldien eguneroko bilakatzen dute, etorkizunean ere hala izateko.

Egoera honen aurrean, gazte langileon arteko batasun politikoa sustatu eta enpresari handien eta agintarien erasoaldiari aurre egitea dagokigu. Horregatik, urtarrilaren 28an manifestazioak egingo ditugu Bilbon eta Iruñean. Mobilizazio batek ez du enpresarien erasoaldia gelditukо, baina gazteon arteko antolakuntza eta borrokarako grina hedatu behar dugu, eta GKS, gazte langileontzako erreminta bat garen heinean, helburu horiekin konprometituta gaude.

Enpresari eta agintarien erasoaldiaren aurrean, gazte langileok borrokara!

Urtarrilaren 28an mobilizatu!

ZUZENKETA

Aurreko asteko GOIENA aldizkarian, *EHPMren bosgarren urtemuga* gutuna argitaratu genuen, Amaia Zubiriaren izenean. Ez zen zuzena: Itziar Usandizaga zen sinatzailea. Barkatu eragozpenak.

goiena KOMUNIKAZIO TALDEA
www.goiena.eus

Argitaratzailea
Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkartea
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria
Monika Belastegi.
Zuzendari nagusia
Iban Arantzabal.
Eduki zuzendaria
Eneko Azkarate.

Erredakzio batzordea
Eneko Azkarate, Monika Belastegi, Mirari Altube.

Zuzendari komertziala
Mireia Larrañaga.
Administrazio zuzendaria
Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna
Iñaki Iturbe.
Hizkuntza arduraduna
Sergio Azkarate.
Harpidetza eta banaketa arduraduna
Igone Osinaga.

Sailetako arduradunak
Xabier Urzelai (Kirola),
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).
Maketazioa
Imanol Soriano,
Aitor Lagoma,
Amaia Martinez de Arenaza.
Publizitatea
Mireia Larrañaga, Ziortza Martin, Amaia Mundiñano.

Administrazioa
Ane Berezibar, Iratxe Bengoa, Nerea Artola.

HARPIDETZA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
publi@goiena.eus
EGOITZA NAGUSIA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua: SS-965/2014
ISSN: 2174-369X
Tirada: 18.500 ale
Difusioa: 18.723 ale

Inprimategia:
Zeroa Multimedia

GOIENAk ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK

Arrasateko Udala · Bergarako Udala · Oñatiko Udala · Aretxabaletako Udala · Eskoriatzako Udala · Antzuolako Udala · Aramaioko Udala · Elgetako Udala · Leintz Gatzagako Udala

Gipuzkoako Foru Aldundia

288.000 euroko gastua matxura konpontzeko

Udal Gobernuak prentsa agerraldia egin du, izandako gastuen berri emateko. Halaber, Victoriano Fuentes zinegotziak adierazi du hodi nagusiaren "bikia" eraikitzeko lanetan ari direla, halako matxuren aurrean herri osoko ur-hornidura bermatuta gera dadin

Eneko Azurmendi Barrena ARRASATE

Irailaren 26an, Arrasateko ur-hornidurako sisteman matxura bat atzeman zuen Udalak, eta, konpondu ahal izateko, ingurabide bat egin zuten. Behin betiko konponketa-lanak 2022ko azaroan amaitu zituzten.

Asteon, prozesu osoak izan duen kostuaren berri eman dute Victoriano Fuentesek eta Luis Mari Illarramendik, OZMA Saileko batzordeburuak eta Mantentze Saileko teknikariburuak. Hala, 288.177,74 euroko kostua izan du ura hornitzeko sarearen konponketak eta ingurabidea eraikitzeak. Honako hauek dira egindako jarduketak eta horien kostua: ur-ihesaren kokapena, lehen diagnostikoa eta obra zibila, 15.867,94 euro –Excavaciones Arrasate SL–; iturgintzako materialaren hornidura, 27.439,51 euro –Fundibide SA–; ur-ihesa konpontzea, ingurabide berria eta haren behin betiko lagapena, 100.796,18 euro –Obras Hidraulicas Ortega–; matxuraren kokapen zehatza, ehorzketa, hoditeria aldaketa eta eremua hasierako egoerara itzultzea, 67.393,62 euro –Construcciones Moyua SL–; ingurabidea lurperatze-obrak, 14.446,27 euro –Construcciones Y Excavaciones Pera–; ingurabidea lurperatzeko materiala, 797,15 euro –Aldeko Material eta Eraikuntza Zerbitzuak–; zementu-egituraren kalkuluak, 605 euro –Salaberri Ingenieria–; matxura, bideo-formatuaren berrikuspena, 344,85 euro –Ansareo Servicios Integrales–; obraren koordinazioa eta segurtasuna, 263,39 euro –BSP Consultoria–; ur-sarearen analisia, 223,83 euro –Itsas Natura SL–; eta ur galera, ur-horniduraren fakturazioaren estimazioa, 60.000 euro.

Hodi "bikia" egingo dute

Ur-horniduraren sare nagusiko hodi nagusiaren "bikia" egin gura du Udal Gobernuak, Zalduspetik Kulturola pareraino, "halako matxuraren bat izanez gero ur-hornidura bermatzeko", Fuentesen esanetan. Kulturola parean hasten da hodi nagusia hodi txikiagoetan banatzen herriko hainbat puntutara iristeko, eta horregatik egin nahi dute hodi berria horraino.

HODI NAGUSIAREN "BIKIA" EGINGO DUTE LASTER, MATXUREN AURREAN HORNIDURA BERMATZEKO

Hodi horren ibilbidea baldintzatu ditzaketen elementu garrantzitsuak dira autobidea eta autobia. "Beraz, proiektuaren idazketan, hainbat alternatiba aztertu beharko ditugu, inguruaren topografia ondo aztertu, alor teknikoa zein ekonomikoa aintzat hartuz. Horrez gain, bestelako hodi edo kableak ere egon daitezke inguru horretan eta horiek ere aintzat hartu behar dira", dio Illarramendik. "Bien bitartean, behin-behineko ingurabidea mantendu egingo dugu".

Epe jakinik ez dute

Oraindik ez dakite zenbat denbora beharko duten behin betiko hodi alternatiboa edo hodi nagusiaren biki hori jartzeko. "Espero dugu urte eta erdi edo bi urte izatea, asko jota. Behin lanak esleituta, zazpi bat hilabetean idatzi daiteke proiektua, eta, horren ostean, obra gauzatzeko lehiaketa zabalduko litzateke. Edozelan ere, oraindik ez dakigu obra zehatza zein izango den; beraz, ez dakigu epeak ondo aurreikusten", azpimarratu du teknikariburuak.

Fuentesek gogora ekarri duenez, Uraren Euskal Agentziak emandako aukeretako bat izan zen San Josepeko depositurainо bideratzea hodia, ur-hornidura bermatu ahal izateko. "Baina depositu horrek ez du banatzen herri osorako ura eta horregatik egin genuen behin -behineko ingurabidea". Hala ere, obra berria baliatuta, hodi berria San Joseperekin lotzeko aukera ere ikusten badute, hori ere egingo dute. "Hala ere, teknikarien azterketak ahalbidetu beharko du hori". Proiektua idazteko 200.000 euroko partida daukate gordeta 2023ko aurrekontuan.

Hormigoizko blokea jarri dute, behin matxura konponduta. HASIER LARREA

Urtarrilaren 28ra atzeratu dute zuhaitz landaketa herrikoia

Eguraldi iragarpena dela eta, astebete atzeratu dute; zuhaitz azoka, ordea, egingo dute, bihar, Seber Altuben

E.A.B. ARRASATE

Bihar, zapatua, bertako produktuen azoka egingo dute Seber Altube plazan, 09:00etan hasita, eta zuhaitz azoka egiteko ere baliatuko dute. Aurten, bost haztegik parte hartuko dute: Zaldibarko Areitiok eta Belarrek, Gatikako Etxeberriak, Zarauzko Lurberryk eta Arrasateko Ekoudalatxek. Bertaratzen direnek fruta-arbolak, koniferoak, basoko landare autoktonoak eta lorategikoak, basoko fruitu txikiak eta fruitu ekologikoak erosi ahal izango dituzte; gainera, bi zuhaitz-sorta zozketatuko dituzte erosleen artean.

Horrekin batera, zuhaitz landaketa egitekoak ziren Etxezarretan, baina astebete atzeratu dute, eguraldi iragarpena dela eta. Hala, urtarrilaren 28ko landaketa 10:00etan hasiko dute eta parte-hartzaileak Musakolako San Isidro elizatik abiatuko dira. Parte hartu nahi duten herritarrek 943 25 20 05 telefonoan eman beharko dute izena aurrez. Horrekin batera, landaketarako, gomazko katiuskak eramatea gomendatu dute Udaletik

Martxoaren 8ko kartel lehiaketa abian da, otsailaren 15era arte

'Martxoak 8: elkartu, saretu eta eraldatu!' leloa ardatz hartuta egin beharko dute kartela parte-hartzaileek

E.A.B. ARRASATE

Arrasateko Udaleko Berdintasun Sailak Martxoaren 8ko 26.. Kartel Lehiaketa antolatu du. Aurtengo edizioko leloa honako hau da: *Martxoak 8: elkartu, saretu eta eraldatu!* Lanak aurkezteko epea otsailaren 15a izango da, eguaztena, eta Arrasateko BAZen egin beharko da hori. Irabazleak 550 euroko saria jasoko du.

Beste urte batez jarraitu gura dute Martxoaren 8a aldarrikapenerako eguna dela adierazten. "Antolatzen eta saretzen jarraitzeko eta jendartea eraldatzeko ahaleginari ekiteko; lortutako eskubideetan atzerapausorik izan ez dadin eta jendarte parekidea eraiki dezagun, denon artean, feminismotik. Izan ere, feminismotik emakumeok mundua mugitzen dugu eta feminismotik lan egiten jarraituko dugu", adierazi du Johanna Sanchezek, Berdintasun zinegotziak.

Oinarriak *Goiena.eus* webgunean kontsultatu daitezke. Dudak argitzeko, honako zenbaki hauetara deitu: 943 79 41 39 edo 618 20 62 33 (Emakume Txokoa) eta 943 25 20 00 (BAZ).

EH Bilduk Maider Morras proposatu du alkategai izateko

EH Bilduren Mahai Politikoak Maider Morras Azpiazu proposatu du alkategai izateko, eta, bestelako hautagairik aurkeztu ezean, otsail hasieran berretsiko du militantziak. Arrasateko EH Bilduk nabarmendu du hautagai "ezin hobea" dela. "Herrikoia, gertukoa eta langilea da, herriari esperientzia eta ezagutza eskaintzen diona".

Maider Morras, Arrasaten. E.A.B.

"Hizkuntza aniztasunean, espezie arraroa da gurea"

JOANES IGEREGI SUKAR HORIA KOLEKTIBO EKOLOGISTAKO KIDEA

'Euskararen kolapsoa ala kolapsoaren euskara' hitzaldia egingo du urtarrilaren 30ean Kulturateko Jokin Zaitegi gelan, 19:00etan, AEDren 'Euskara zubi zikloa'-ren baitan

Eneko Azurmendi Barrena ARRASATE

Sukar Horia kolektibo ekologistako kide da Joanes Igeregi (Sopela, 1985), eta bioaniztasunaren eta euskararen etorkizuna aztertuko ditu hitzaldian.

Titulua hitz-joko bat dela diozu.

Bai. Nire lanaren jatorria izan zen pentsatzea krisi ekologiko batek edo balizko kolapso batek ze eragin izango lukeen euskararengan. Hala ere, sakondu ahala, konturatzen joan nintzen euskarak gizarte berri horretara egokitzeko daukan gaitasunean dagoela eragina, neurri handi batean. Egokitu ezean, euskarak berak kolapsatzeko arriskua eduki dezake. Agian, *kolapsoa* ez da hitz aproposena eta *desazkundea* hitza ere erabili nezakeen, baina inpaktua sortu nahi izan nuen hitz hori erabilita.

Ekologismoaren eta euskararen egoera alderatu daitezke?

Bioaniztasunaren eta hizkuntza aniztasunaren egoerak alderagarriagoak dira. Hizkuntza aniztasunean, euskara espezie arraroa da, lortu duelako azken 60 urteetan bizitasuna handitzea; hizkuntza gehienak, berriz, gainbeheran daude. Bioaniztasuna ere gainbeheran dago, nahiz eta egongo den neurriz kanpo hazten ari den espezierik. Halere, joera orokorra da geroz eta suntsipen handiagora goazela.

Euskarak gizarte berrietara egokitzeko gaitasuna izan du orain arte.

Bai, eta, atzera begiratuta, egin beharreko irakurketa bat da hori. Askotan, joera daukagu gure egoera soziolinguistikoaren alderdi txarrari begiratzeko, baina hemen eta orain bizirik egotea bera meritua da gurea moduko hizkuntza txiki batendako. Horregatik, etor daitezkeen aldaketak nolakoak izango diren pentsatzeaz gain, horietara nola egokitu pentsatu behar dugu.

Nora garamatza krisi ekologistak?

Eztabaida handia dago benetan ze aldaketa gertatuko diren eta nolakoak. Epe luzera begira, nahiko ziurra da hain hiritarra izango ez den mundu batean biziko garela eta bizitza eremu lokalagoetan kokatuko dela. Alde horretatik, gaur egun bizi ditugun joera asko irauli egingo direla esango nuke. Geroz eta mugikortasun eta interkomunikazio handiagoa daukagu, geroz eta modu globalagoan bizi gara, eta horrek guztiak atzera egiteko aukera handiak ditu, nahi eta nahi ez. Ikerketa gehienen arabera, ez da egongo modurik erregai fosilen ordezkorik aurkitzeko eta energia berriztagarriek ezingo dute ordezkatu gaur egun dugun kontsumo energetikoa. Beraz, egungo bizitzeko modu globala oso zalantzan dago etorkizunera begira.

Joanes Igeregi, Sukar Horia kolektiboko kidea. J.I.

"EGUNGO BIZITZEKO MODUA ZALANTZAN DAGO EPE LUZERA; HORREK EUSKARARI LAGUN DIEZAIOKE"

Beraz, zailtasunak beharrean aukerak sortu daitezke euskararentzat krisi ekologikoarekin?

Esango nuke baietz. Halere, euskalgintzarako ere baliabide gutxiago egongo dira. Beraz, eremu lokalagoetan bizitzeak eta globalizazioaren eragina txikitzeak euskararen alde egin dezake, baina inertzia nagusiak gaztelaniaren eta frantsesaren gainekoak izango dira eta gai izan beharko dugu euskararen aldeko hautu kontzientea egiteko, eta lan egin beharko da euskaraz bizitzeko gogoa elikatzeko, euskara elkarteen, tokiko hedabideen eta kultur mugimenduen bitartez, adibidez.

NIRE USTEZ

ANE SANCHEZ ZEZIAGA

Galarrako koba

Imajinatzen Arrasate elite internazionalaren udako opor-leku? Badirudi gaur egun Puerto Banus dena izan zela garai batean. Hau jakitean, nire adimenak XIX. mende hipotetiko batera eramaten nau. Sei zaldiz tiraturiko gurdiak ikus ditzaket gure kaleetan barrena, egungo Porsche eta Ferrarien antzera.

Santa Agedako bainuetxeko hormak garai hartan bizitako intentsitate altuko uden lekuko izan ziren. Momentuko aristokrazia entretenitzeko magia eta dantza ikuskizunen aterpetxe izan zen. 1845. urtean, Isabel II.ak gaur egun herrialdeko ospitale psikiatriko erreferenteetako bat denaren teilatupean hartu zuen ostatu.

Egonaldian, Galarrako kobako sarrera estuan barrena, Udalaitzen barrualdeak arakatu zituen. Ziur bisitari haiek ez zutela inoiz berririk izan kobazulo honetako galeria ezkutuek gordetzen duten altxorrari buruz. Mende eta erdi geroago jakin dugu lau kilometroko galeria hauek existitzen direla, eta herriko meatzaritza jardueraren legatu diren aztarna eta tresnak aurkitu dira bertan.

San Baleixo jaiak datorren asteburuan Meatzerreka auzoan

Urtarrilaren 27an, 28an eta 29an ospatuko dituzte San Baleixo jaiak Meatzerrekan. Hilaren 27an, egubakoitza, Peru Abarrategi, Xabi Igoa eta Ane Zuazubiskar bertsolariek girotuko dute jaiei hasiera emango dien pintxo-potea, 19:30ean. 22:30ean hasita, 40. Mus Txapelketa egingo dute Meatzerrekako elkartean. Zapatuan, auzo bazkaria egingo dute, 14:30ean; eta 17:00etan, zezen txikien eta poneyen ikuskizuna egongo da. Domekan, azkenik, meza egingo dute, 10:45ean, San Baleixo ermitan, Gesalibarko eta Garagartzako abesbatzek lagunduta. 12:00etan, Txikitxu-Arrostaitz taldekoek euskal dantzak egingo dituzte elkartean.

OHARRAK

Zahartzaroa hizpide

Arrasateko Nagusien Kontseiluak antolatuta, *Jarri begirada zahartzaroan* hitzaldia egingo du urtarrilaren 31n Pepa Bojo psikologoak. Kulturateko areto nagusian izango da saioa, 17:30ean hasita.

'Familian jolasean'

Martxoaren 26ra arte, domeka arratsaldeetan egingo dituzte saioak, gehienak Okendoko ludotekan, 17:30etik 19:30era. 0-8 urte arteko haurrei eta familiei bideratutako ekimena da *Familian jolasean*.

Taillaginen piezak

Ikusgai daude Ibai-arteren 28 dendatako erakusleihoetan.

arbolapeta
arrasate
beinke

Sili Sili
Martxa eta estilo handiko arropa
Iturriotz, 9 • ARRASATE • Tel.: 943 79 81 82

Asteazkeneko agerraldiko talde-argazkia. H.L.

"Udalaren konpromiso falta" salatu du AGAKOk

Gaztetxeko asanbladako kideek Udalarekin duten "harreman motel eta hotza" azaleratu dute, eta urteetan konpondu ez diren hiru arazo nagusitan jarri dute arreta: kanpo espazioaren garbitasunean, eraikinaren segurtasun baldintzetan eta igogailuan

Hasier Larrea ARRASATE

Arrasateko gaztetxearen egune-roko jarduna AGAKOren baliabideetatik harago dauden faktoreek eta erabakiguneek baldintzatzen dutela aintzat hartuta, asanbladari ezinbestekoa zaio udal ordezkariekin elkarrizketa sustatzea. "Gure esku egon diren urratsak egin ostean, behartuta gaude Arrasateko herriari bizi dugun errealitatearen berri jakinarazteko", azaldu dute asteon, herrigintzako eragileen babesa lagun.

"Ehunka gazteren topaleku eta hamaika kontzertu, hitzaldi, bilera, eragile eta parrandaren aterpe" gisa definitu dute gaztetxea, eta gehitu "halako dimentsioko proiektu bat aurrera eramatea ez dela makala, eta ulertu beharrekoa dela proiektuak berak dituen beharrak askotarikoak direla".

Kanpo espazioa garbitzea

Behar horietako bat da eraikinaren kanpo espazioa garbi mantentzea, eta AGAKO "astero" arduratzen da horretaz: "Kontziente garelako gure jardunak kanpo espazio hori nabarmen zikintzen duela". Baina espazio hori modu duinean mantentzea asanbladaren egitekora bakarrik mugatu beharko ez litzatekeela uste dute, "gaztetxearen erabileratik harago ere ematen zaiolako bizitza espazio horri". Ekainean horixe bera azaldu zieten Udaleko Gazte Saileko ordezkariei: "Bilera hartan, Udalak konpromisoa hartu zuen bere garbiketa zerbitzuen bitartez gaztetxearen sarrera, igogailurako pasabidea eta udal pilotalekuaren larrialdietarako atearen ingurua garbitzeko, baina ez du bete".

Hezetasunak kentzea

Duela zazpi urte mahai gaineratutako kontuak dira, bestalde, hezetasunek eraikinean sortzen dituzten arazoak. Eszenatoki atzeko horma eta sabaia dira, gaur-gaurkoz, gaztetxeko eremu kezkagarrienak, "gune hori joan-etorri askokoa izanda sabai zatiak erori baitira". Gai hori tratatzeko, ezohiko bilera "gazi-gozoa" izan zuten alkatearekin eta Udaleko bost sailetako teknikariekin. "Urte asko itxaron ondoren, hezetasunak saihesteko prozesua martxan jartzea lortu dugu, eta, astiro badoa ere, bilera hark emandakoa aurrerapauso gisa ulertzen dugu. Hala ere, ez dugu bilera hartako aktarik jaso; gure eskari eta ahotsak entzunak direla ziurtatzeko, hemendik aurrerako bileretan hitz egindakoa akta bidez jasotzea eskatzen diogu Udal Gobernuari", azaldu dute AGAKOko kideek.

Igogailua erabili ahal izatea

Uarkape eta Ferixalekua arteko igogailu publikoari ere egin diote erreferentzia. Izan ere, igogailu horrek gaztetxeko sarrerara eramaten duen ate bat dauka, baina, diotenez, aukera hori "ukatua" izan zaie: "Asanbladak igogailuari eman izan dion erabilerak irisgarritasun zailtasunak dituen edonori bertarako sarbidea ahalbidetzea izan du helburu. Egia da zamalanetarako ere erabili izan dugula, baina ekainean izandako bileran, igogailuaren erabilera jatorrizko helburura mugatzeko konpromisoa hartu genuen, Udalak debekua bertan behera uztearen truke".

Afera horretan ere ez da aldaketarik egon eta "diskriminaziotzat" jotzen dute: "Igogailuaren ukapenak norbanako desberdinei aukera berdintasuna ukatzen die; esaterako, Kooltu-rren egitaraura gerturatu izan diren zenbaitzuek gaztetxerako sarbidera iristeko arazoak izan dituzte. Eragile honek egin ditu eskaerak BAZ zerbitzuaren bitartez, baina ez dute erantzunik jaso".

"Kokoteraino, baina kementsu"

Udal Gobernuak hiru kontu horiei berehalako erantzuna ematea espero du asanbladak: "Eguneroko jarduna garatzeko oinarrizko alderdiak eta herritar gisa ditugun oinarrizko eskubideak oztopatzen dituzten mugak dira". Gehitu dute "kokoteraino" daudela "gazteon hitza entzuna eta jasoa ez izateaz" eta haien jarduna "seriotasunez ez hartzeaz", baina lanerako eta proiektuei eusteko kemenez daudela.

UDAL ORDEZKARIEKIN IZANDAKO BILERAK AKTAN JASOTZEA ESKATU DU ASANBALDAK

Erreka garbitzeko auzolanean 7,5 tona zabor atera zituzten

Urriaren 15ean egin zuten eskualde mailako deialdia eta iragarri dute aurten ere egingo dutela, urriaren 14an

H.L. ARRASATE

Debagoienean Errekak Bizi Auzolanean taldeak deitutako auzolanera 280 arrasatear batu ziren iaz. Egun hark emandakoaren balorazioa kaleratu dute bideoan, datu ugari emanda. Esaterako, Arrasate eta Bergara arteko zortzi erreka tartetan aritu ziren zaborra ateratzen eta 7,5 tona hondakin batzea lortu zuten; horietatik, 800 kilo txatarra eta litxarreria-poltsak, erabilera bakarreko plastikoak eta tabernetako eta terrazatako zakarrak barra-barra.

Kopuru horiek jaisteko, zaborrontziak erabiltzeko, zentzuz kontsumitzeko eta establezimenduetan zabor gutxiago sortzeko neurriak hartzeko eskatu diete auzolaneko partaideek herritarrei; eta udalei, puntu beltzak aztertu eta jarraipena egiteko, erreka sakonago garbitzeko, estalitako erreka zatiak bistaratzeko, landare inbaditzaileak kontrolatzeko eta ibaira zaborra ez jausteko sareak jartzeko.

Auzolaneko kideak eta Mojategiko erreka tartetik ateratako hondakinak. GOIENA

"Lanerako gertu dagoen talde bat aurkitu dut"

DAVID MUÑOZ MONDRAKO ENTRENATZAILEA

Lasarteko entrenatzailearen etorrerak haize freskoa ekarri du talde arrasatearrera: "Animikoki jokalariak errekuperatzea izan da lehentasuna; hau futbola baino ez da"

Xabier Urzelai Atxa ARRASATE

Ohorezko erregional maila ondo baino hobeto ezagutzen du David Muñozek (Lasarte, 1976) eta egia da talde zuri-morera iritsi denetik Arrasatekoek dinamika negatiboa aldatu dutela. Garbi dauka, baina, aurten beheko postu horietan borrokatzera kondenatuta dagoela Mondra. Asteburuan hasiko dute bigarren itzulia, Lagun Onaken zelaian.

Aloñaren kontra irabazi eta gero, aste barruan errazago egiten da Arrasaterako bidea...

Zalantza barik, eta ez genuen partidu ona egin, Aloña hobea izan zen, baina puntuak lortu genituen eta orain hori behar dugu.

Dinamika negatiboa atzean uztea lortu duzue.

Emaitza nahiko onak lortu ditugu, bai. Tolosaren partiduan ezin izan nintzen aulkian egon; berba egin nuen jokalariekin partidu bezperan, baina ez nuen taldearekin fitxarik. Zorionez, partidua irabazteko kapaz izan ziren, eta, ondoren Elgoibarren kontra galdu egin bagenuen ere, Mutrikuren eta Aloña Mendiren kontra puntuak batu ditugu.

Lasartekoa zara eta kategorian talde asko daude Donostia ingurukoak: Añorga, Usurbil, Oiartzun, Hernani, Vasconia.... Arrasate Gipuzkoaren barnealdean dago.

Bai, eta talde horietako batzuetan ibilitakoa naiz entrenatzaile lanetan; Hernanin eta Zarautzen, esaterako. Baina banuen Debagoien aldera etortzeko gogoa. Esango nuke hemen jokalariei gehiago kostatzen zaiela ondoko herriko klubera joatea; fidelagoak dira, zelanbait esatearren. Donostialdean, berriz, taldeen artean joan-etorri handiagoa izaten dute jokalariek. Jokatu ere beste modu batean jokatzen hemen, ezberdina da.

Lehen itzuli txarra egin du Mondrak; zer aurkitu duzu bertan?

David Muñoz, domekan derbia amaitu berritan, Azkoagainen. ENEKO AZURMENDI

Eskaintza onartu aurretik taldea jarraitzen ibili nintzen eta onartutakoan eta lanean hasitakoan aurretik ikusitakoa berretsi dut. Jokalari gazteak daude eta lesioek dezente baldintzatu dute orain artekoa, baina lanerako gogoz dagoen talde bat aurkitu dut. Eta lehenagotik ere ondo landutako taldea da Mondra, egin duten lana ez da txarra izan. Esango nuke hasieran lehiakor ibili zirela, baina emaitzek ez zutela batere lagundu. Eta hor hasten zara behera etortzen, konfiantza galtzen, dinamika txar batean sartzen zara eta futbolarekin gozatzeari uzten diozu... Eta egia dena da Mondra baino talde hobeak ez daudela asko. Badira koska bat gorago dauden taldeak; iaz izan nuen Hernani da adibide bat, baina, guztira, hiruzpalau dira, ez gehiago. Gainontzekoak maila antzerakoan daude eta ondo lehiatzean dago gakoa.

"AMAIERARA ARTE BEHEAN EGOTERA KONDENATUTA DAGO MONDRA, BAINA BIZIRIK GAUDE"

Dinamika txarretik irteteko zer esan edo egin duzue?

Azken batean, burua fresko duen pertsona bat naiz, ez daukana jokalariek emaitzengatik hartu duten motxila, eta motxila hori kentzen saiatu naiz; galdutako borrokak ahaztu egin behar ditugu eta aurrera begira jarri. Askotan, garrantzi handiegia ematen diogu futbolari, nik duela urte batzuk egiten nuen moduan. Partidu bat galtzen nuen eta ingurukoek ez zuten nitaz ezer jakin nahi... Eta gero, konturatzen zara joko bat baino ez dela eta neurria hartu behar zaiola. Partiduan zaudenean ez dago munduan gauza garrantzitsuagorik; lehiakorra izan behar duzu, baina kito, horraino. Taldeak konfiantza errekuperatzeko egin dugu lan.

Bigarren itzulia hasiko duzue; egutegira begiratu eta kontuak egiten dituen horietakoa zara?

Ezetz esango banizu, gezurretan ibiliko nintzateke; egin ditut nire kontuak, bai. Baina jokalariekin ez dut horretaz berba egiten, ez ditut presionatu nahi.

Arrasate-Udalatxen izena emateko eguna urtarrilaren 28a da

Mondraitz kirol elkarteko lagunak badabiltza apirilaren 2an egingo duten Arrasate-Udalatx mendi lasterketara begira motorrak berotzen. Hala, urtarrilaren 28an, 10:00etan, zabalduko dute izen-ematea, *kronoak.com* web atarian. Aurten ere 350 dortsal jarriko dituzte salgai eta agortzen direnean itxarote-zerrenda jarriko dute.

Olatz Igartua da Besaide mendi elkarteko presidentea

Eguaztenean egin zuten Besaide elkartearen batzar orokorra, eta, iazko kontuak eta aurrekontu berria onartzearekin batera, Eñaut Iturberen lantaldea ordezkatuko duen zuzendaritza talde berria aurkeztu zuten. Hala, Besaidek lehenengoz izango du emakumezko bat presidente lanetan: Olatz Igartua. Beste zortzi lagun izango ditu ondoan.

DEBAGOIENEKO GREMIOAK

AROZTEGIAK
AZKARATE AROZTEGIA
BERGARA / Telleria 19 B02-B03
Tel.: 943 76 47 19 / 610 88 40 20
blogak.goiena.net/azkarate

HONDEAKETAK
EXCAVACIONES Y CONTRATAS ARRASATE SL
ARRASATE / Meatzerreka 30
Tel.: 943 77 12 26/ 646 29 59 87
e.arrasate@gmail.com

ITURGINTZA
EGIA ITURGINTZA
ARRASATE
Gipuzkoa etorbidea 39, behea
Tel.: 943 77 01 85

URKO MANTENIMIENTO SL
ARETXABALETA
Basabe industrialdea B-3
Tel.: 943 77 19 88
Faxa: 943 79 59 97

LOREZAINTZA
MAKAI KOOP. ELKARTEA
ARETXABALETA
Basabe poligonoa D-2-1
Tel.: 943 79 78 45 - 616 96 57 98
Faxa: 943 79 78 45

Iragarkia jarri nahi baduzu, deitu **943 25 05 05** zenbakira.

The Potes familiak harro ospatuko du urtebetetzea

2012ko abenduaren 25ean egin zuten lehen agerraldia; hamar urteko joan-etorrian bertsio irlandarrak egitetik kantu propioz jositako bi disko kaleratzera pasa dira. Bihar, zapatua, gaztetxean joko dute, 22:00etan, eta Erne taldea ere izango da

Hasier Larrea ARRASATE

Folka eta rocka dira The Potes zazpikotearen sustraiak; hasieran, folka gehiago. "Irlandako The Pogues eta Flogging Molly taldeen abestiak jotzeko ideiarekin batu ginen lehenengoz eta DAT tabernan egin genuen zuzenekoa. Harrera beroa izan genuenez, jarraitzea erabaki genuen", azaldu du Igor Salak, taldeko akordeoilariak.

Yul Bolinaga banjo-joleari oparia egiteko sortu zuten lehen kanta, *Harro nago* izenekoa: "Plazer handia izan da hark abesti hori gurekin batera jo izana. 2014an betiko joan zitzaigun eta haren hutsunea Beñat Abasolok bete zuen. Halaxe erabaki genuen kantu propioak egiten jarraitzea".

Gerora ere aldaketa gehiago izan dituzte taldean, eta gitarra elektrikoek pisu handiagoa hartu dute euren errepertorioan, kutsu irlandarra galdu gabe. Horren erakusle dira kaleratu dituzten bi diskoak: *Ametsak dira egi erabat bete aurretik* eta *Damurik ez, bihotza aske*. Hiru abeslari, musika-tresna asko... taldekideen arteko harreman estua gakoa dela nabarmendu du Beñat Osinaga bateria-joleak: "Beti esan izan dugu familia bat garela, halaxe bizi baitugu; bakoitzak bere betebeharrak musikaren magia sortuz ahazten ditu".

Zazpikotea, kontzertu baten osteko agurra egiten. 'MARABAO PHOTOGRAPHY'

BIHAR, IBILBIDE OSOAN ZEHAR JOTAKO KANTUAK EGONGO DIRA ENTZUNGAI, BAITA SORPRESAK ERE

Hamar urteei errepasoa

Pandemia tarteko, ez dute abesti berrienen nahi beste aurkezpen egin ahal izan. Horretarako aprobetxatuko dute biharkoa, "baina sorburuko bertsioak eta lehen diskoko kantak ere izango dira, eta sorpresatxoren bat edo beste ere bai".

Maiatzean "erronka handia"

Aurrera begira, aipatu dute maiatzean Arrasate Musikalen Bandarekin batera interpretatuko dituztela euren abestiak, musika eskolaren 50. urtemugaren baitan: "Elkarlana egin nahi zuten herriko talde batekin, eta gugana jo zuten; eskertzekoa!".

Gaur, Balarrasa eta Broken Legacy

Danbaka Musika Lehiaketan gau berean parte hartu zuten bi taldek, aramaioarrez osatutako Balarrasa eta Oñatiko Broken Legacy, 22:00etan izango dira gaztetxean; izan ere, bi taldeetako kideak elkarren lagunak dira eta aspalditik zeukaten kontzertu bat antolatzeko gogoa. Metala eta rock gogorra dastatzeko aukera paregabea, horrenbestez.

Balarrasakoak, Bergarako Seminarixoan, Danbakako finalaurrekoan. GOIENA

Aniztasunarekiko beldurra islatuko du 'Lagun beltz asko'-k

Domekan, 19:30ean, aurkeztuko du Ados Teatroak umorezko antzezlan probokatzailea Amaia antzokian

H.L. ARRASATE

Garbi Losadak idatzita eta Ramon Ibarrak, Asier Hormazak eta Asier Sotak taula gainera eramanda, "gaurkotasun biziko gai bati lotutako istorio bat" kontatuko dute *Lagun beltz asko* obraren bitartez. "Ongi definitutako pertsonaiak" antzeztuko dituzte, "ezagun egingo zaizkigunak", gizakiaren miseriak dramaturgia fresko eta biraketa-puntu harrigarriekin adierazteko: "Izan ere, hemen ez gara arrazistak, hemen denok ditugu lagun beltz asko. Eta gauza asko entzuten dira, gero eta delinkuentzia gehiago dagoela, jende horrek lana kenduko digula eta abar".

Abiapuntu hori oinarri hartuta, ixtear doan taberna arrunt batean gertatuko da istorioa. Barruan tabernako jabea eta bere lagun hoberena azken tragoa hartzen ari direla, galduta dagoen migratzaile batek atea jo eta eskuko telefonoa kargatzen uzteko eskatuko die, Londresen dagoen alabarekin hitz egin ahal izateko. Anfitrioiek lagundu egingo diote, baina, bien bitartean, haien isilpeko sekretuak azaleratuko dira.

Protagonistak, tabernan. ADOS TEATROA

Lau tailer berri jarriko ditu eskura Udal Bibliotekak

Miren Amuriza Plaza idazle eta bertsolariak sormenerako espazio bat eskainiko du, "gogoetarako, idazketako eta elkartrukerako". Idazketa prozesuen aurretiko, bitarteko eta ostekoez arituko da partaideekin. Gaztelerazko idazketa tailerra, ostera, Isabel Albak gidatuko du eta narratibaren egituretan, ikuspuntuetan, plagioan eta errimoetan sakonduko du, esaterako. 6 urtetik gorakoek komikiak marrazten ikasiko dute Santa Marinako bibliotekan, Iñaki Martiarena *Mattin* komikigilearen eskutik, ordu eta erdiko ikastaro laburrean, otsailaren 9an, 18:00etan. Laugarren tailerra 9 eta 11 urte artekoei zuzendutako Irakurketa Klubak osatuko du, Yolanda Arrietak dinamizatuta. Saioei buruz informazio gehiago jakiteko edota izena emateko, sartu *arrasate.eus*-en *Biblioteka* atalean.

Loixe taldearen zeramika hastapen eta trebatze saioak

Kulturolan du egoitza berria buztina lantzen duen Loixe taldeak, eta bertan antolatuko ditu ikastaroak aste barruetan, hilaren 30etik martxoaren 30era. Lau talde egingo dituzte, bi hasiberrientzat eta beste bi esperientzia dutenentzat, partaideek piezak sortu eta euren proiektu propioa garatzeko. Izena emateko, deitu edo idatzi 685 79 61 27 zenbakira.

Eneko Barberenak 'Suak erreko ez balu' nobela aurkeztuko du

Jokin Labayenek gidatuta, urtarrilaren 24an, martitzena, izango da berriketaldia, Kulturateko Jokin Zaitegi aretoan, 18:30ean hasita. Euskal Herrian literatura beltza sustatzeko (H) ilbeltza beka irabazi zuen idazle arrasatearrak 2021ean, eta urtea hastearekin bat kaleratu du emaitza, *Suak erreko ez balu* titulupean.

Goian, ezkerrean, Ibarrako periferia; eskuman, Izena pentsau bida; eta, behean, Tratamendurik gabekoak. A.B.E.

Taldearen babesean bertsotan aritzeko plaza

Urtarrilaren 29an hasiko den Bertso Kuadrilla Artekoan hamabi taldek parte hartuko dute; hiru, Aramaiokoak. Bertsolari gazteendako plaza izango da: Aramaioko bost bertsolari ariko dira lehenengoz kuadrilla artekoan, bat-bateko modalitatean

Arantzazu Ezkibel Galdos ARAMAIO

Arabako bertsogintza saretzeko eta indartzeko sortutako topaketa egingo dute aurten ere. Bertsolaritzari beste ikuspegi batetik begiratzeko aukera ematen du formatuak. Hain zuzen, plaza ona da bertsolari gazteentzat, taldearen babesean abesteko aukera ematen duelako. Urtarrilaren 29an hasi eta martxoaren 5ean Laudion bukatuko den lehiaketak Aramaioko hiru talde izango ditu: bat-bateko modalitatean abestuko dute Izena Pentsau Bida, Tratamendurik Gabeak eta Ibarrako Periferia taldeek. Lehenengo bi taldeek, A ligan; eta hirugarrenak, E ligan. Hamabi taldek parte hartuko dute, eta 64 bertsolarik.

"Bertso Kuadrilla Artekoari begira, aurtengo helburua izan da bertso eskolako gazteei plazak egiteko aukera eskaintzea. Hala, sortu ditugun hiru taldeetan daude lehenengo aldiz parte hartuko duten bertsolariak", azaldu du bertso eskolako kide Xabi Igoak. Izena Pentsau Bida taldekoak dira: Martin Abarrategi, Danel Herrarte, Manex Agirre eta Sabin Abarrategi; Tratamendurik Gabekoak taldekoak dira: Peru Abarrategi, Paula Amilburu, Andere Arriolabengoa, Txomin Abarrategi eta Gari Arexolaleiba; eta Ibarrako Periferia taldekoak dira: Xabi Igoa, Iraide Onaindia, Ane Arexolaleiba eta Aitor Ugarte. Taldeek, gainera, gai-jartzailea, epailea, musikaria, kazetaria... dituzte.

Aramaioarrak nagusi 2020an

Aramaiok hiru talde izateaz gain hiru saio ere hartuko ditu; izan ere, aramaioarrek bertsolaritzarekiko duten zaletasuna ezaguna da. Kuadrilla Artekoa 2020an jokatu zuten azkenekoz. Orduan, Aramaioko bi talde sailkatu ziren Murgiako finalerako eta Izenbakuak taldea nagusitu zen –Danel Herrarte, Peru Abarrategi, Manex Agirre eta Andere Arriolabengoa–, Konde Basoko Iluek taldearen aurka.

Aramaioko saioak

- **Otsailaren 4an** Plazako elkartean, 20:00etan. Izena Pentsau Bida eta Tratamendurik Gabeak taldeak. Afarirako, bidali mezua –10 euro–: 629 11 84 05.
- **Otsailaren 10ean** Zabolan, 19:30ean. Ibarrako Periferia eta Txandrio (Arabako Errioxa). Ondoren, afaria egingo dute –10 euro–.
- **Otsailaren 10ean** Zabolan, 22:30ean. Tratamendurik Gabeak eta Altubepekoak (Aiaraldea). Otsailaren 10eko afarirako, bidali mezua: 688 62 70 89 edo 688 69 87 26 telefono zenbakietara.

Santa Ageda batzea otsailaren 4an egingo dute, zapatua

Bi entsegu egingo dituzte: urtarrilaren 26an eta otsailaren 2an, 19:00etan, Musika Etxean

A.E.G. ARAMAIO

Santa Ageda eguna gertu dago eta herriko hainbat eragile dagoeneko hasi dira Santa Ageda batzea antolatzen. Otsailaren 4an izango da, zapatua; Santa Ageda bezperan, hain zuzen.

Eguna iritsi baino lehen, ahotsak entrenatzeko aukera egongo da. Bi entsegu egingo dituzte: bata urtarrilaren 26an eta bestea otsailaren 2an. Biak eguenean izango dira, 19:00etan, Musika Etxean. Ohiko kantuak edo koplak izan arren Santa Agedaren omenez kantatutakoak, komeni da entseatzea, egunean bertan arazorik ez izateko.

Aramaixoko Bertso Eskola, Papargorri abesbatza, Alaiak erretiratuen elkarteko abesbatza eta Trikikalejira elkartea ari dira Santa Ageda batzea antolatzen. Egunean bertan, otsailaren 4an, 10:00etan elkartuko dira, Bizente Goikoetxea plazan. Ondoren, bazkaria egingo dute eta hara joan gura duenak aurrez izena eman beharko du: 615 73 92 55 telefono zenbakira deituta. Izena emateko azken eguna urtarrilaren 30a da.

Hondakinak ondo kudeatzeko kanpaina hasi du Udalak

Hondar frakzioari beste zerga bat ezarri zaio, udalek ordaindu behar dutena; hau da, udal-aurrekontuetatik

A.E.G. ARAMAIO

"Pertsona guztiok erantzukizun indibidual eta kolektiboak" dituztela nabarmenduz, sortutako hondakinak ondo kudeatzeko kanpaina jarri du abian Udalak.

Ohar bidez emandako datuen arabera, hondar frakzioaren edukiontzietan –edukiontzi grisa– jasotako hondakinaren %50 jatorri organikoa duen hondakina da; hau da, konpost aukeren bidez kudeatu daitekeen hondakina. "Hondar frakzioa da gutxien sortu beharko litzatekeena; hori murrizten saiatu behar dugu, ondorengo kudeaketan sortzen diren zailtasunengatik", nabarmendu dute. Zailtasunez eta ingurumenari egindako kalteez gainera, Udalak nabarmendu du kostu ekonomiko handia duela frakzioaren kudeaketak: "Apirilaren 8ko azken legearen arabera, plantan berreskuratu ezin den hondakina zabortegira bideratzen da, 30 euro tonako zerga aplikatuz". Udalek ordaindu behar dute zerga hori. Helburua da hondakinen kudeaketa txarra zergapetzea.

Espainiako txapelketa 17. postuan amaitu du Garcia Bidaburuk

Zapatuan jokatu zuen aramaioarrak Espainiako ziklo-kros txapelketa, Katalunian. Nahia Garcia Bidaburuk 17. tokian amaitu zuen kadete mailako lasterketa; Espainiako txapelduna izan zen Lorena Patiñi galiziarra baino 3 minutu 26 segundo gehiago eginda. Aramaioarrak 31.06ko denbora egin zuen Vic-eko lasterketan.

Urteko lehen odol ematean emaile berri bat erregistratu dute

Odol-emaileen autobusa Aramaion izan zen urtarrilaren 10ean. Han izandako datuak eman ditu Arabako odol-emaileen elkarteak. Urtarrilaren 10ean 19 lagun joan ziren odola ematera; horietatik, 18k eman zuten odola. Gainera, nabarmendu dute emaile berri bat erregistratu zutela. Elkartearen izenean, zorionak guztiei.

Kirolaren balioen gainean antolatutako solasaldia entzuten hainbat lagun, abenduan. GOIENA

Autoestimuaren bueltan landutakoa borobiltzera

EKKO prebentzio proiektuaren baitako 'Inklusioa/Ilusioa' egitarauari iazko azaroan eman zioten hasiera eta datorren astean hainbat saio egingo dituzte Lehen Hezkuntzako bosgarren eta seigarren mailetako ikasleekin eta gurasoekin

Mirari Altube ARETXABALETA

Eskola, Komunitatea, Kirola, Osasuna (EKKO) proiektuaren baitan eta *Inklusioa/ilusioa* egitarauaren barruan, haurrekin eta gurasoekin trebetasun sozialak lantzeko lehen hitzorduak zehaztu dituzte. Autoestimuaren gaineko unitatea landu dute azken asteetan Eskoriatzako eta Aretxabaletako ikastetxeetan Lehen Hezkuntzako bosgarren eta seigarren mailetan dauden neska-mutikoek, eta orain, egindako lanaren nondik norakoak azalduko dizkiete gurasoei.

Lanketaren deskargua

Bost modulu landuko dituzte gaztetxoek ikasturtean zehar, EKKO dinamizatzaileek gidatuta: autoestimua, gatazken kudeaketa, komunikazioa, harremanak eta erabakiak hartzea. Modulu bakoitzeko lau saio egingo dira ikastetxean, eta, behin bukatutakoan, ordubete inguruko beste saio bat egingo dute ikasle horiek gurasoekin batera. Hala, autoestimuaren bueltako lanketa bukatu da eta deskargua datorren astean egingo dute, Maider Etxaniz Udaleko Gazteria zerbitzuko teknikariak adierazi duenez: "Errepaso bat da, zer landu den jakin dezaten; ariketa batzuk ere egingo dituzte haien artean". Parte-hartzea bermatze aldera eta samurtasunak emateko asmoarekin egutegi eta ordutegi aukera zabala zehaztu dute astelehenetik egubakoitzera bitartean –zerrenda alboan–, eta hortik saio bakarra aukeratu beharko da.

Jolasak hilaren 28an

Urtarrilaren 28an, zapatuan, ostera, kirol jarduerak izango dituzte Ibarra kiroldegian. Jolasak eta trebetasun sozialak uztartuko dituzte orduan, hainbat dinamikaren bitartez: "Hainbat jolas eskainiko dizkiete: petanka, lokotx batzea... Bizitza aktiboa sustatzeko jarduerak izango dira guztiak. Eta, gainera, trebetasun sozialak lantzeko ariketak ere egingo dira". Jarduera horretara ere "ezinbestekoa" izango da guraso batek lagun eginda joatea haurra.

Adinaren arabera banatutako bi txanda izango dira: bosgarren mailakoak 10:30etik 12:00etara eta seigarren mailakoak, 12:15etik 13:45era. Aipatutako saioetarako eta kirol jolasetarako aldez aurretik eman behar da izena, honako formulario hau beteta: *https://labur.eus/ilusioa_eta_inklusioa*.

Egutegia

Urtarrilak 23
- **18:00** Aretxabaleta, eusk.
- **18:30** Eskoriatza, eusk.

Urtarrilak 24
- **18:00** Eskoriatza, eusk.
- **19:00** Aretxabaleta, gazt.

Urtarrilak 25
- **18:30** Eskoriatza, gazt.
- **19:00** Aretxabaleta, eusk.

Urtarrilak 26
- **17:30** Eskoriatza, eusk.

Urtarrilak 27
- **17:30** Aretxabaleta, eusk.

Oharra: Aretxabaletan, kiroldegian eta Eskoriatzan, Ibarraundin.

Egindakoarekin "gustura"

San Juan de Dios ospitaleak, UDAk eta Eskoriatzako eta Aretxabaletako udalek eta ikastetxeek egin dute bat EKKO proiektuan eta azarotik dago abian *Inklusioa/ilusioa* egitaraua. Solasaldien bidez askotariko gaiak landu dituzte, eta, balorazio ofizialik egin ez badute ere, Etxaniz "gustura" dago: "Landu gabeko gaiak izan ditugu mahai gainean punta-puntako solaskideekin. Ikastetxeetako ordezkariak eta gurasoak elkartzea ere sekulakoa da".

Salatu dute pediatra zerbitzurik ez dagoela Aretxabaletan

EH Bilduk adierazi du hainbat herritarren kexa jaso duela eta hala dela "egiaztatu" ahal izan duela

M.A. ARETXABALETA

Azken asteetan Aretxabaletan pediatra zerbitzurik ez dagoela aditzera eman du EH Bilduk. Hala jaso dute hainbat herritarren aldetik, baita egiaztatu ere. "Egia dela ziurtatu dugu eta egoera horrek hainbat hilabete iraungo du", eman dute aditzera prentsa-ohar bidez, eta gaineratu: "Egoera horrek irauten duen bitartean badirudi kontsulta guztiak Eskoriatzara bideratuko direla".

Diote Aretxabaleta eta Eskoriatza artean 1.400 biztanle daudela zerbitzu hori jasotzeko adinean: "Jakinekoa da adin horretan Osakidetzako zerbitzuen erabilera oso handia dela. Horregatik, zaila dirudi bideragarria izatea; baldintza horiekin, behintzat".

Egoera "argitzea"

"Datu gehiago" lortzeko eta egoera "hori ahalik eta azkarren konpontzeko" bi ekimen jarri ditu abian EH Bilduk: batetik, Osasun Ssailburuari bideratutako galdera bat erregistratu dute Eusko Legebiltzarrean, "egoera argitzeko"; eta bestetik, Aretxabaletako alkateari eskatu diote Debagoieneko ESIko arduradunekin "egin beharreko kudeaketak egin ditzala lehenbailehen konpontzeko". Ildo beretik eskatu dute adingabeek behar duten osasun arreta eta jarraipena jasotzeko "kalitatezko pediatria zerbitzua" bermatzeko.

Otsailaren 1a arte

Debagoieneko ESIren ardurapekoa da Aretxabaletako osasun etxean ematen den zerbitzu hori eta han baieztatu dute urtarrilaren 11tik falta dela pediatra. Gaineratu dute ospitaleko medikuen laguntzarekin dihardu-ela lanean Eskoriatzakoak. Egoera hori otsailaren 1ean aldatzea espero dutela adierazi dute, pediatra bat kontratatuko delako ordurako.

GORA ETA BEHERA

Iralabarri plaza zikinkeriaz beteta

"Zikinkeria zen nonahi joan den domeka goizean Iralabarri plazan, zapatu iluntzeko arrastoak agerian geratu ziren". Hala salatu du bertako bizilagun batek, kezkatuta, eta gonbidatu ditu umeak zein helduak inguruak garbi eta txukun uztera.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? *berriak@goiena.eus* edo 688 69 00 07.

Euskal film laburren jaialdia, abiatzeko gertu

Hamaseigarren Huhezinema betiko espirituari eutsita baina berrikuntzei atea zabalik dator; Mondragon Unibertsitateko Ikus-entzunezko Komunikazioko ikasleek antolatu dute, beste behin, eta urtarrilaren 25etik 27ra bitartean izango da aurten

Mirari Altube ARETXABALETA

Udaberrian beharrean –orain artekoak legez–, negu betean egingo dute aurten Huhezinema jaialdia, urtarrilaren 25etik 27ra bitartean, hain zuzen ere, eta egitarau betea osatu dute. Hamaseigarrenez dator Mondragon Unibertsitateko Ikus-entzunezko Komunikazio ikasleek antolatutako ekimena eta herritarrak ere parte hartzera animatu dituzte; bereziki, "ikus-entzunezkoak maite" dituztenak.

Antolatzaile lanetan diharduten Mondragon Unibertsitateko ikasleak. HUHEZINEMA

Hiru sail, 32 finalista

Hiru sailekin osatu dute jaialdia eta, guztira, 84 lan jaso dituzte; horregatik, oso pozik agertu da Iban del Campo, Huhezinemako zuzendari artistikoa: "Sormen isuria etengabea dela erakusten du horrek. Eta lan handia izan dugu aukeraketa egiterakoan". Izan ere, 84 horietatik 32 dira finalista. Sail Ofizialean hamar film izango dira. "Eskarmentu handiko sortzaileen lanak eta hasiberrienak uztartu ditugu. Adibidez, Esti Urresolaren *Cuerdas* film laburra dago, Goya sarietarako ere izendatua", dio, eta gaineratu du: "Askotariko estiloak eta formatuak aukeratzen saiatu gara: drama da gehiengoa, baina badago animaziozko lana, komedia, lan esperimentala…".

Ikasle Sailean Mondragon Unibertsitatetik kanpoko ikasleen lanak ere onartu dituzte aurten. "Euskal Herrian ekoizten denak behar du pauso hori", adierazi du antolatzaile taldeko kide Julen Iglesias ikasleak. Sail horretan beste hamar lan izango dira lehian. Eta iaz abian jarritako Bideoklip Saileko finalerako hamabi lan sailkatu dira.

Proiekzioak eta solasaldiak

Eguaztenean ekingo diote euskal film laburren jaialdiari, Kurtzebarri eskolako ikasleei eskainitako emanaldi batekin, hain zuzen ere. Ondoren, Ikasle Saileko eta Bideoklip Saileko finalisten lanak emango dituzte. Eguenerako, Arantxa Moñux aktorea eta Ane Aseginolaza bikoizketan diharduen aktorea gonbidatu dituzte hainbat gairen gainean jarduteko. Ondoren, Oñatiko gaztetxe mugimendua ardatz duen *Ixilik nahi gaituztenean*, *Mari* filma emango dute eta haren egile eta protagonistekin solasaldia izango da gero.

Kepa Errasti epaimahaian

Sail Ofizialean finalista diren lanak egubakoitzean erakutsiko dituzte eta iluntzean sari banaketa ekitaldia izango da. Epaimahai ofiziala hiru kidek osatuko dute: Andoni Imaz kazetariak, Nagore Eceiza film zuzendariak eta Kepa Errasti aktore eta gidoilari aretxabaletarrak. Mundukide Saria ere emango du izen bereko gobernuz kanpoko erakundeak, baita Vertigo Saria ere Mondragon Unibertsitateko ikasleek dirulaguntza publiko barik ekoiztutako film bati, eta aurten, lehenengoz, Senior Saria izango da, erretiratuz osatutako epaimahai batek emango duena. Guztira, 4.000 euro banatuko dituzte sarietan.

Egitaraua

Urtarrilak 25
- **10:00** *Orkestra lurtarra* proiekzioa Kurtzebarri eskolako ikasleentzat.
- **15:00** Ikasle Sailaren proiekzioa.
- **18:30** Bideoklip Sailaren proiekzioa.
- **20:00** Poteoa.

Urtarrilak 26
- **10:30** Senior proiekzioa.
- **12:30** Ardo-dastatzea.
- **16:30** Elkarrizketa: Ane Aseginolaza eta Arantxa Moñux.
- **18:00** *Mari* filma.
- **19:15** Solasaldia: Jone Markuleta, Mikel Garai eta Mariasun Pagoaga.

Urtarrilak 27
- **14:30** Sail ofizialaren proiekzioa (I).
- **16:45** Sail ofizialaren proiekzioa (II).
- **19:00** Sari banaketa ekitaldia.
- **20:30** Luntxa.
- **21:30** Elektrotxaranga: ElektroPottotte.
- **23:30** DJa.

Santakurtz kalea eraberritzeko lanak azken txanpan sartu dira

Exprex taberna inguruan dihardute, eta, horregatik, Arkupe alboko tunela itxita izango da bukatu artean

M.A. ARETXABALETA

Orain dela urtebete hasi zituzten Santakurtz kaleko lanak eta dagoeneko azken txanpan sartu dira. Exprex tabernaren aurrean dagoen eremuan eta Kurtzebarri eskola inguruan dihardute aste honetan, eta, horregatik, Arkupeko eraikinaren ondoko tunela itxita dago astelehena ezkero.

Lan horiek direla-eta, Basabeko biribilgunetik sartzen diren autoak tuneleraino bakarrik joan ahal izango dira aparkatzeko eta garajeetara sartzeko. Horregatik, obrak egiten diren bitartean, bideak noranzko bikoitza izango du, autoen sarrera eta irteera ahalbidetzeko.

Bestalde, Arkuperen atzeko partean dagoen aparkalekura Otalora kaletik sartu beharko da. Azken aldaketa horiek iraungo dute Santakurtz kalearen berrurbanizazioa amaitu arte.

Iparragirre kaleko kexa

Santakurtz kalea ez ezik, inguruko kaleak ere eraberritu dituzte; Iparragirre, esaterako. Eta hango bizilagun batzuk kexu dira: "Espaloiak ez du bi metroko zabalerarik, 1,20 jarri diote, eta horrek arautegia ez du betetzen. Gainera, batzuek brea dute etxe aurrean eta beste guztiek, baldosa. Bizilagunek oinezkoentzako bidea izatea eskatzen dute".

Unai Elkoro alkateak adierazi du kale hori oso estua dela eta aparkatutako autoek espaloira igo behar dutela maniobrak egiteko. "Kale horretako bizilagunei deialdia egin zitzaien eta galdetu horrela izan zedin gura zuten; bileran izandako guztiak ados agertu ziren. Orain konforme ez badaude, irtenbidea da kalea oinezkoendako bakarrik izatea. Aztertuko dugu".

Mozorroak gertatzeko lokala erabiltzeko gertu dago

Dagoeneko erabilgarri dago Aratusteetako mozorroak prestatzeko lokala –Basabe industrialdean–. Giltza eskuratzeko Arkupetik pasatu behar da, fidantza ordaindu –50 euro– eta Udalak jarritako arauak betetzeko konpromisoa hartu.

Aratuste-domekan egingo diren bi bazkaritarako txartelak, ostera, urtarrilaren 28an jarriko dituzte salgai. Udalak antolatutakoa kiroldegian izango da eta txartelak Arkupen salduko dituzte, 10:00etan hasita. Kuadrillaka eman beharko da izena; helduen menua 22 euro da eta umeena, 14 euro.

Bazkari *golfua* Karnabalen Lagunek antolatu dute eta pilotalekuan izango da; txartelak Kixkor eta Urbaltz tabernetan izango dituzte, 20 eurotan. Kasu horretan ere, kuadrillaka eman beharko da izena eta abesti bat proposatuko dute orduan.

Hika Teatroak 'Toto' antzezlana eskainiko du domekan

Toto txakurraren kustodia partekatzen duen bikotearen gorabeherak eroango ditu Hika Teatroak urtarrilaren 22an Arkupeko oholtzara (19:00). Mafalda Bellidoren *Chucho* lanaren egokitzapena da eta euskarara itzulpena Kepa Errasti aretxabaletarrak egin du. Protagonistak, ostera, Miren Gojenola eta Asier Hernandez dira.

Bazkaltzeko toki barik, berrasmatu egin behar

Urte berean jaiotakoak batu, kintada bakoitzak bazkaria egin eta Santa Ageda neska-mutilek herrian festa giroa izateko aitzakian, Kinttaden Eguna ospatuko dute otsailaren 4an; berrikuntza gisa, zenbait herri bazkaria izango da kiroldegian

Imanol Beloki Unamuno ESKORIATZA

Duela hamarkada bat Eingeinke ekimenak jarri zuen martxan Kinttaden Eguna Eskoriatzan. Lehenengo edizioan sekulako arrakasta izan zuen festa egun horrek, baita gainontzekoetan ere. Herrian ondo errotu zen jaieguna eta aurten hamaikagarren edizioa ospatuko dute, otsailaren 4an. Lehenengo ediziotik, zenbait kintadak euren bereizgarria eraman izan dute Kinttaden Egunean: batzuek jaiotako urtea idatzita zapian, beste batzuek kamisetetan, eta beste batzuek ordea, gorbatak edo txapelak eraman izan dituzte ezaugarri gisa, eta aurten ere ikusiko dira horrelakoak.

Sorrerako ildo beretik

Eskoriatzako gazte mugimendua sustatzeaz, herriko gazteen hizkuntza ohituretan eragiteaz eta euskara erabilera indartzeaz batera, inguru ezberdinetako gazteak harremantzeko helburua du Eingeinke ekimenak, eta, abiapuntua hori izanda, hala hasi zen Kinttaden Eguna ospatzen. Oinarrian, Santa Ageda bezperan neska-mutilak kalera ateratzean herrian giroa izateko helburua izan zuen jaiak, baina norbere adinekoekin elkartu, bapo bazkaldu eta eskoriatzarren artean harremantzeko egun seinalatu bihurtu da askorentzat. Hala ere, sorreratik, urte hauetan guztietan ez dute ezer antolatu beharrik izan Eingeinke ekimenekoek; izan ere, eskoriatzarrek euren agendetan ondo apuntatuta duten eguna da eta kintada bakoitzak bere bazkaria antolatzea da egin beharreko gauza bakarra. Hala ere, aurtengo edizioan, Eskoriatzan bazkaltzeko tokia izateko zailtasunak daude.

Leku faltari konponbidea

Badira zenbait kintada urte batetik bestera bazkaltzeko lekua elkarte gastronomiko edo jatetxe berean erreserbatzen dutenak; kintadaren batek edo bestek afaria ere egin izan du, baina, orokorrean, bazkaria izaten da.

EINGEINKE EKIMENAK ETA ITZARTU GAZTE ASANBLADAK HERRI BAZKARIA ANTOLATU DUTE KIROLDEGIAN

Hala, belaunaldi askotako eskoriatzarrak batuko diren aurreikuspenaz eta bazkaltzeko leku falta egon daitekeelakoan, zenbait kintadak elkarrekin bazkaltzeko aukera jarri dute Eingeinke ekimenekoek eta Itzartu Gazte Asanbladak: Kinttaden Eguneko herri bazkaria antolatu dute.

Herri bazkaria kiroldegian

Herriko elkarte gastronomikoak eta jaten ematen duten taberna eta jatetxeak jendez beteko direlakoan, Manuel Muñoz kiroldegian herri bazkaria antolatu dute. Bertan belaunaldi askotariko kintadak batzea da asmoa, eta elkarrekin bazkaltzea.

Adin-tarte guztietako herritarrei irekita dago kiroldegian egingo den herri bazkaria eta menua honako hau da: entsalada mistoa, baserriko oilaskoa eta txerri-saiheskia parrillan, Ezeizako pasteltxoak, ogia, kafea eta edariak –prezioa: 23 euro–. Horrekin batera, aukera beganoa eta gluten gabekoa ere izango dela zehaztu dute. Kintaden herri bazkarira joateko interesa dutenentzat, izen-emate orria jarri dute Inkernu tabernan, eta bertan, kintada bakoitzeko bi ordezkarik eman beharko dute izena. Horretarako azken eguna urtarrilaren 24a izango da, eta izena lehenbailehen emateko dei egin dute antolatzaileek, plazak mugatuak direlako.

2005ekoek, dantza

2005ean jaiotako eskoriatzarrak izango dira aurten Santa Ageda neska-mutilak. Hori horrela, ohiturari jarraituz, Santa Ageda egunean dantza egingo dute, otsailaren 5ean. Horrekin batera, hurrengo domekan, hilaren 12an, berriro ere aterako dira plazara dantza egitera. Guztira, 47 lagun izango dira aurtengo kintoak.

Hamargarren Kinttaden Egunean, zenbait herritar plaza inguruan. IMANOL SORIANO

GORA ETA BEHERA

Hesia kenduta, arriskua sarreran

Kultura etxeko eraikineko sarreran zegoen hesia kendu egin zuten, eta, lurzoruan koskatxoa dagoenez, estropezu egiteko edo labaintzeko arriskua dagoela salatu du herritar batek.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? *berriak@goiena.eus* edo 688 69 00 07.

2023ko egutegi fiskala argitaratu dute GAOn

Urtarrilaren 11n argiratu zuten Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 2023ko egutegi fiskala. Egutegi horretan, zergak borondatez ordaintzeko epeak ezartzen dira. Horrekin batera, ordenantza fiskalen berri ematen da; hau da, Udalak eskaintzen dituen zerbitzuen tarifak finkatzen dituzten udal arauak: prozedurak, aplikatzeko moduak, baldintzak… Horrekin lotuta, aste honetan eskuorri bat banatzen ari da Eskoriatzako Udala herriko etxe guztietan, eta bertan zehazten dira egutegi fiskala eta udal zergei zein jarduerei aplikatuko zaizkien salbuespenak, hobariak eta beherapenak –informazio gehiago, udal webgunean–.

Xabi Larrearekin malabarrak eta magia domekan

Ping pang umorezko zirku ikuskizuna izango da ikusgai, 17:00etan, domeka honetan, urtarrilak 22, Zaldibar antzokian. Xabi Larrea antzezleak ping-pongeko pilotak manipulatzeko teknika landua erabiliko du aretora joaten diren ikus-entzuleen aurrean, malabarismoaren eta magiaren teknikak elkartuz.

Imanol Ituiñoren, Txefo Rodriguezen eta Xabi Larreren sorkuntza da *Ping pang* eta testu gabeko ikuskizuna da. 5 urtetik gorako edonori zuzenduta dago eta 50 minutu iraungo du saioak. Sarrerak aldez aurretik eros daitezke, hiru eurotan, Manuel Muñoz kiroldegian eta *bibe.me* webgunean.

Enbido eta ordago artean karta-jokoa Inkernun

Euskal Herriko XIV. Mus Txapelketa abiatzera doa eta Eskoriatzako kanporaketa urtarrilaren 29an jokatuko da, Inkernun. Lehen fasea otsailaren 26 arte izango da eta herrialdeko finalak martxoaren 11n jokatuko dira zazpi herrialdeetan

Imanol Beloki Unamuno ESKORIATZA

Euskal Herriko Mus Federazioak antolatutako egitasmoak ez du hutsik egingo aurten ere Eskoriatzan. Herriz herri jokatuko da lehenengo kanporaketa, otsailaren 26ra arte, eta herrialdeko kanporaketak, berriz, martxoaren 11n izango dira. Euskal Herriko finala, aldiz, Bizkaian izango da aurten, Zornotzan, martxoaren 25ean, eta bertan egoteko ahaleginak egingo dituzte Eskoriatzako txapelketan parte hartuko duten bikoteek.

Inkernu tabernan jokatutako mus txapelketa bateko irudia. IMANOL SORIANO

Aurreikuspena: zortzi bikote

Eskoriatzan garaile izaten den bikoteak 100 euro eta finalerdietarako pasea lortuko ditu. 16:00etan bertan batzeko dei egin dute eta mus partiduak 16:30ean hasiko dituzte, Inkernu tabernan. Izen-ematea, bikoteko, 20 euro da. Eskoriatzan zortzi erregetara jokatuko dutela azpimarratu dute; edozelan ere, hurrengo fasean lau erregetara jokatuko da.

"Euskal Herriko Mus Federazioak ezarritako arauak jarraituz urteak daramatzagu Eskoriatzan antolatzen. Izen-ematea egunean bertan egingo dugu, eta, aurreikuspenen arabera, ohiko jokalariak batuko dira bertan. Hala eta guztiz ere, azken urteetan gazteak ere animatu dira eta hori poztekoa da. Horrekin batera, lehenengo kanporaketa honetan, jokatzen duen bikote kopuruaren araberakoa da hurrengo kanporaketarako txartela lortzea. Hau da, bikote asko izaten badira jokoan, agian, bi bikotek lortu ahal izango dute hurrengo fasera pasatzea. Gure kasuan, zortzi bikote inguru izanda soilik, irabazleak lortuko du sari hori", adierazi du Oscar Escribanok, Inkernuko mus txapelketa gidatzen arituko den herritarrak.

Zaletasunaz harago

Bikote kopuru handia ez batu arren, urterik urte Eskoriatzan aritu izan direnek emaitza onak lortu izan dituzte. Esaterako, 2011n jokatutako txapelketan, Urruñan jokatutako finalean, Eskoriatzako Juan Zubizarretak eta Roberto Nietok laugarren postua lortu zuten.

Urte hartan, Euskal Herri osoko 250 herrietara iritsi zen txapelketa eta, hain zuzen, Euskal Herri osoko 2207 bikotek parte hartu zuten Euskal Herriko Mus Txapelketan.

Gatz Museoko Turismo Bulegoa eta gatz ekoizpeneko eraikina, asteon. J.L. ZABALA

Informazioa jasotzeko eta bisita gidatuetarako aukera gehiago

Ordutegia luzatu egin dute Leintz Gatzagako Gatz Museoko informazio-gunean

Imanol Beloki Unamuno GATZAGA

Leintz Gatzagako Gatz Museoko Turismo Bulegoko ordutegian aldaketak ezarri dituzte. Orain, eguaztenetan ere zabalik izango dituzte Gatz Museoko informazio-guneko ateak, eta, beraz, eguaztenetan, eguenetan eta egubakoitzetan 09:00etatik 14:00ak arte izango da orain aukera bertara deitzeko, edo eraikinera –Santa Columba ermita zena– joateko informazioa eskatzera, zalantzak argitzera, bisita gidatu batean parte hartzeko eskaera egitera edo Gatzagako gatza erostera, besteak beste. Horrekin batera, asteburuetan, zapatuan zein domekan, 11:30etik 13:30era izango da zerbitzu bera, orain arte moduan.

Bisita gidatuei dagokienez, berriz, zapatu, domeka eta jaiegunetan 12:00etan euskarazko saioak eskainiko dituzte eta 13:00etan, berriz, gaztelerazkoak.

Jendea animatzeko mezua

"Gure ordutegia luzatu egin dugu, eta orain, asteazkenetan ere zabalduko ditugu ateak. Animatu zaitez plan ezberdin bat egitera. Historiaz betetako herria eta Gipuzkoako gatzaga bakarra ezagutzeko aukera izango duzu!". Mezu hori zabaldu du sare sozialetan Leintz Gatzagako Gatz Museoak, egin dituen aldaketen berri emateko.

Hitzordua eskatzeko

Hamar pertsonatik gorako taldeen kasuan, ordutegitik kanpo bisita gidatuak egiteko –eguaztenetik domekara– eta bisita beste hizkuntza batean egiteko –katalanez edo ingelesez– aldez aurretik hartu beharko da hitzordua Gatz Museoan. Harremanetarako: 943 71 47 92 telefono zenbakira deitu daiteke, edo *reservas@gatzmuseoa.com* helbide elektronikora idatzi.

Gorka Idigoras, Euskadiko rallysprint txapelketan bigarren

Amaitu da 2022ko Euskadiko Rallysprint Txapelketa eta Iokin Agirre eta Arantzazu Araneta izan dira txapeldunak –Eskoriatzako I. Rallysprintean ere azkarrenak izan ziren–. Sailkapen orokorrari erreparatuz, bigarren postua, berriz, Gorka Idigoras pilotu eskoriatzarrarentzat izan da, haren Renault Clio Sport autoarekin.

Uxue Alberdiren 'Dendaostekoak' lana izango dute aztergai

Hilaren 26an, Literatura Solasaldien saioa izango dute bertako partaideek Mikel Antzaren gidaritzapean. Oraingoan, Uxue Alberdi idazlearen *Dendaostekoak* liburua izango dute aztergai, 18:00etan, kultura etxean. Saioa euskaraz izango da eta parte hartzeko *biblioteka@eskoriatza.eus* helbidera idatzi edo 943 71 31 35 zenbakira deitu daiteke.

Akulu taldeak diskoa aurkeztuko du zapatu honetan, 22:30ean

Aretxabaletako Akulu taldeak *Sua* diskoa aurkeztuko du bihar, zapatua, Inkernu tabernan, 22:30ean hasita. Xabi Iribekanpos, Aitor Bengoa *Poli Karpo* eta Pablo Sanz musikariak igoko dira oholtza gainera punk kontzertua eskaintzera. Oi! kanturen bat, punk melodikoa, punk bizkorra… askotariko estiloak uztartzen ditu *Sua* diskoak.

Ludotekako ohiko zerbitzurik ez, haur faltagatik

Leintz Gatzagako ludoteka zerbitzua irailetik maiatzera arte eskaintzen da, baina, geroz eta erabiltzaile gutxiago dituela ikusita, orain arte astean behin eskaintzen zuten zerbitzua –egubakoitzetan, ordu eta erdi– bertan behera uztea erabaki dute. Hala ere, Gurel guraso elkarteak jarraituko du herriko txikienentzat zuzendutako ekintzak antolatzen, baita Gatzagako Udalak ere.

"Momentuz, hori da hartu dugun erabakia; ohiko zerbitzurik ez eskaintzea. Ez dago ume askorik, eta, gutxi izateaz gainera, guztiok batera elkartzeko egun bat adosteak nahikoa lan ematen digu. Iazko ikasturtean, esaterako, lau edo bost haur izan ziren soilik eta hain kopuru txikia mantentzea ez da erraza… Geroz eta zailagoa egiten zaigu", adierazi du Nerea Altuna gatzagarrak.

Bakardadea neurtzeko proiektua, herriari begira

Udalarekin batera landutako proiektuan, Mariaren Lagundiko Lanbide Heziketako ikasle talde batek bakarrik bizi diren 65 urtetik gorako herritarrak elkarrizketatuko ditu, hainbat erabilera izan ditzakeen bakardadearen gaineko diagnostiko bat helburu

Proiektuaren diseinu-faseko saioetako bat, ikastetxean. MARIAREN LAGUNDIA

Jokin Bereziartua Lizarazu BERGARA

Udalak Mariaren Lagundia ikastolako zikloetako ikasleekin arlo sozialeko lanketa egingo du zerbitzu ikaskuntzaren bitartez. "Lankidetzaren baitan ze gai landuko genituzkeen aztertu genuen bi aldeek eta bakardadearen gaiari heltzea erabaki genuen. Gaur egungo kezka orokorra da eta herriko egoera ezagutzea interesgarria iruditu zitzaigun guztioi", adierazi du Ongizate zinegotzi Zihortza Marzanek.

Udalak bakarrik bizi diren 65 urtetik gorako pertsonen errolda dauka; 888 bergarar dira, orotara. Errolda horretako 270 pertsonako lagin batekin harremanetan jarriko dira ikasleak bakardadearen gaiari buruz hitz egiteko; betiere, sexua, adina eta bizilekua aintzat hartuta ahalik eta argazkirik osotuena izateko. Pertsona horiek gutun bat jasoko dute Udaletik, eta, ondoren, Mariaren Lagundiko ikasleek telefonoz deituko diete elkarrizketa bat adosteko. Asmoa diagnostikoa egitea da eta diagnostiko horretatik abiatuta etor daitezkeen proiektuak gauzatzea.

Hilaren 30etik aurrera

Mariaren Lagundiko irakasle Maite Usabiaga ari da proiektua koordinatzen eta eguazteneko prentsaurrekoan azaldu zuen zein izango den prozedura. "Bakarrik bizi diren pertsonekin hasiko gara. Bakardadea sentimendu bat da, eta, beraz, neurtzeko zaila. Horregatik, teorizazio-lan mardula egin dugu, bakardadea zer den ondo zehaztetik hasita".

Diagnostikoak honako fase hauek izango ditu: gaiaren parte teorikoa aztertzeko, iritzia jasotzeko metodologia eta tresnak prestatzeko diseinu-fasea amaitu berri dute eta urtarrilaren 30etik aurrera iritzi-jasotzea abiatuko dute adineko pertsonekin elkarrizketak eta parte-hartze saioak eginez; amaitzeko, ondorioak aterako dituzte eta horiek herritarrei jakinaraziko dizkiete. Usabiagak herriari egingo dioten ekarpena azpimarratu du: "Hezkuntza sistemak, oro har, eta ikastolak duen erronka bat da komunitatera irekitzea, eta lankidetza hau aukera paregabea iruditzen zaigu horretarako; herria hobeto ezagutu eta zerbait eskaintzeko aukera izango dute".

BAKARRIK BIZI DIREN 65 URTETIK GORAKO 270 HERRITAR ELKARRIZKETATUKO DITUZTE, TELEFONOZ

"Berehala" konektatu dute

Usabiagaren arabera, ikasleek "berehala" konektatu zuten gaiarekin, bakardadea zer den jakiteko ez dagoelako zertan 65 urtetik gorako herritarrengana jo; gazteek ere ezagutzen dute-eta bakardadea. "Ikasleentzako erronka oso polita, interesgarria eta aberatsa da. Etorkizuneko profesionalak sortzen ari gara, kolektibo honen arretan lan egingo dutenak, eta esperientzia honek asko jantziko ditu. Izan ere, gizarte arloko Lanbide Heziketako modulu bi eskaintzen ditu Mariaren Lagundiak eta parte hartuko duten ikasleek ziklo amaierako lana egingo dute proiektu honekin. "Ikasle hauek herri mailako proiektuetara begira lanean jartzea Bergararentzat oso aberasgarria izango da", uste du Usabiagak.



MAIALEN LETE MARIAREN LAGUNDIKO IKASLEA

"Bakardadea denok jasan dezakegu... Proiektua azaldu ostean galderak nola egin behar diren hasi ginen lantzen; gogotsu gaude elkarrizketak hasteko".



ENERITZ MORENO MARIAREN LAGUNDIKO IKASLEA

"Ez dugu halako proiektu handi baten parte hartu sekula, Udalarekin batera... Hau berria da guretzat, jaso behar ditugun datuak benetakoak dira".



NAIARA VARGAS MARIAREN LAGUNDIKO IKASLEA

"Asko interesatzen zaigu gaia, denok inplikatu gara lanketan. Gogotsu gaude bakardadea sentitu dezaketen herritarrak nola bizi diren jakiteko".



NAHIA GRANADOS MARIAREN LAGUNDIKO IKASLEA

"Proiektu oso aberasgarria da guretzat, halakoak ez dira-eta egunero aurkezten. Bergarako egoera zein den lehen eskutik jasotzea ederra izango da".

Hauteskundeetarako "boluntario sarea" aurkeztuko du EH Bilduk

Ekitaldia baliatuko dute Ainhoa Lete bigarren moduan aurkezteko; bihar izango da, San Martin plazan (13:30)

J.B.L. BERGARA

Maiatzaren 28ko udal hauteskundeetarako "boluntarioen sarea" aurkeztuko du EH Bilduk bihar, urtarrilak 21, San Martin plazan (13:30). Gainera, boluntario sarea osatuko dute, kanpainako zereginak egiten laguntzeko, eta zerrendarekin bat egiten duen herritar orori dei egingo zaio izena eman dezaten. Gainera, aditzera emango dute gaur egun alkateorde den Ainhoa Lete izango dela bigarren zerrendan, Gorka Artolaren ondoan. EH Bilduren arabera, Letek herrigintzatik ulertzen du udalgintza: "Hurbilekoa, konprometitua eta eraginkorra". Erantzukizunez eta arduraz onartu du eskaintza Letek: "Bergaran bizi naiz eta ondo bizi nahi dut, nire ingurukoek eta gainerako bergarar guztiek bezala. Horretarako nire aletxoa jartzen jarraitu nahi dut; ahalegin apala, baina irmoa". 2011 ezkero Udaleko zinegotzi da Lete; azken lau urteak, Udal Gobernuan.

Larramendiko Arnasa: 'Cuerdas' filma eta solasaldia hilaren 31n

Larramendiko "erraustegiaren" aurka dagoen Larramendiko Arnasa taldeak *Cuerdas* film laburra emango du urtarrilaren 31n Seminarixoan (19:00). Ondoren, solasaldia egingo dute: Gurasos taldeko Jose Maria Izetak eta Joseba Belaustegik eta Larramendiko Arnasako Nuria Arnedok eta Joseba Zuzaetak hartuko dute parte mahai-inguruan.

23 enpresa batzen dituen Enpresarerekin itun berria 2023rako

Bergarako eta inguruetako 23 enpresa batzen dituen Enpresare elkarteak eta Udalak 2023ra hitzarmena sinatu berri dute. Helburuak dira, besteak beste, elkarlana bultzatzen jarraitzea, beste erakunde eta agente batzuekin lankidetza sustatzea eta herriko enpresen jarduera ekonomikoa sustatzea. Udalak 30.000 euro bideratu ditu aurten.

Autodefentsa eta umorea, ahalduntze feministarako

Jabekuntza Eskolaren urritik urtarrilera arteko epealdiko azken bi tailerrak izango dituzte urtarrilaren 21ean eta 28an Agorrosinen: lehena autodefentsa feministaren gainekoa da eta bigarrena, berriz, umorea eta generoa lantzen dituen 'Barrez lehertzen' saioa

Jokin Bereziartua Lizarazu BERGARA

Jabekuntza Eskolak antolatuta, emakumeei zuzendutako bi saio interesgarri izango dira urtarrilaren 21ean eta 28an. Hilaren 21ean, 2022ko azaroan atzeratu behar izan zen autodefentsa feministaren gaineko saioa izango dute; Agorrosin Ekintza Gunean elkartuko dira, 10:00etatik 14:00etara eta 15:00etatik 17:00etara. Euskaraz egingo dute eta Emagin elkartea izango da dinamizatzailea.

Antolatzaileek hiru arrazoi eman dituzte, besteak beste, autodefentsa feminista garatzeko beharra azaltzeko: "Ez dugulako sasi-salbatzailerik behar, gu geu gai garelako; egunero jasaten ditugun eraso sexisten aurrean erantzun bat emateko; eta balio justuagoetan oinarritutako harremanak lantzen dituelako".

Bea Egizabalek –argazkian– eta Paki Caballerok gidatuko dute hilaren 28ko saioa. GOIENA

Egizabal eta Caballero

Bestalde, urtarrilaren 28an, umorea eta generoa landuko dituen *Barrez lehertzen* izeneko tailerra izango dute Agorrosinen, 10:00etatik 14:00etara eta 15:30etik 18:30era. Bea Egizabal Ollokiegik eta Paki Caballero Martinek dinamizatuko dute saioa eta izena ematen duten emakumeen arabera erabakiko da ze hizkuntzatan emango duten. Egizabalek eta Caballerok ibilbide luzea dute umorea feminismotik lantzeko saioak gidatzen.

Oso modu berezian egin dute izena emateko gonbidapena: "Arduragabeak, saminduak, tuntunak, handiusteak, umorista kaskarrak, emakumeak ez diruditenak... ongi etorriak izango zarete tailer honetara. Barre egingo dugu elkarrekin; hasteko eta behin, geure buruari egingo diogu barre. Sudur gorri batekin kamuflatuta, anonimotasuna mantenduko dugu".

Epealdiko azken saioak

Jabekuntza Eskolako tailer eta ikastaroak doakoak dira eta izena emateko epea ekintza hasi baino bost egun lehenago amaitu ohi da. Hortaz, interesatuek oraindik aukera izango dute urtarrilaren 28ko umorezko saioan izena emateko; 943 77 91 00 telefono zenbakira deituta edo *berdintasuna@bergara.eus* helbide elektronikora idatzita eman daiteke izena. Hilaren 28ko tailerra izango da 2022ko urritik 2023ko urtarrilera arteko epealdiko azken saioa.

San Joxepe: karta-jokoak, sariak eta irteera datozen egunetan

Hurrengo astean mus, briska eta tute txapelketak izango dituzte; otsailaren 7an, irteera Pradejonera eta Azagrara

J.B.L. BERGARA

San Joxepe erretiratu elkarteak askotariko ekintzak antolatu ditu datozen egunetarako. Urtarrilaren 23an, 24an eta 26an mus, briska eta tute txapelketak izango dituzte, hurrenez hurren; txapelketak 16:30ean hasiko dira eta gutxieneko kopurua zortzi bikotekoa izango da. Gaur da izena emateko azken eguna. Gainera, Gabonetan jokatu zen billar txapelketako sari banaketa ekitaldia urtarrilaren 27an egingo dute, 16:30ean. Jose Mari Jimenezek, Santi Rasconek eta Feliciano Davilak osatu dute podiuma. "Eskualdeko zentroetako irabazleen aurka jokatuko dute. Gipuzkoako finala ekainean izango da; ea gureek txapela ekartzen duten!".

Bestalde, otsailaren 9an Pradejon (Errioxa) eta Azagra (Nafarroa) ezagutzeko txangoa egingo dute; 08:00etan irtengo dira, Ibargaraitik. Besteak beste, Pradejonen Txanpinoien Interpretazio Zentroa bisitatuko dute eta Azagrako Venecia jatetxean bazkalduko dute. Otsailaren 7ra arte eman daiteke izena; prezioa 40 euro da.

OHARRAK

Ostalariendako formakuntza: sasoiko platerak

Elikadura Mahaiak sasoiko produktuz osatutako platerak eta pintxo-potea egiteko ostalariei begirako saioa antolatu du Osoa sukaldaritza eta ikaskuntzako Anne Otegiren eskutik. Urtarrilaren 25ean izango da, 16:00etatik 19:00etara, San Joxeperen egoitzan. Izena emateko: 943 25 09 49 eta 681 66 08 63.

Kartzela zaharreko irakurketa taldearen zita

Maite Mutuberriaren eta Iñigo Astizen *Joemak eta polasak* liburua hizpide hartuta solasaldi kolektiboa egingo dute Iñigo Astizekin; urtarrilaren 26an, kartzela zaharrean (18:30). Izena emateko: *kolaxirratsaioa@gmail.com.* Txapa Irratiko *Kolax* saioak eta Angiolillo liburutegiak antolatu dute solasaldia.

Landa-eremuetako dirulaguntzetarako epea

Udalak urtero ematen ditu dirulaguntza horiek eta urtarrilaren 26ra arte eska daitezke, Bergararren Arreta Zerbitzuan.

Gazte Kontseilu Sozialista Deba Bailara

Urtarrilaren 28ko Bilboko manifestaziora dei egiteko mikro irekia izango dute gaur, hilak 20, Zubitxako Zentro Sozialistan –eskola zaharrean– (19:00); jatekoa eta edatekoa egongo da.

Negozio txikien jabeei begirako saioak antolatu dituzte Irizarren

Foru Aldundiaren eta Udalaren Geroa Bermatuz jardunaldien barruan izango dira, otsailaren 8an eta 15ean

J.B.L. BERGARA

Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia Sustapena, Turismo eta Landa Ingurumen Sailak eta Debagoieneko Mankomunitateak antolatzen dituzten Geroa Bermatuz jardunaldietan bi gai landuko dituzte 2023an: autonomoen erretiroa eta negozio txikien transmisioa. Hartzaileak izango dira negozio txikien jabeak, gehienez ere bost urteko epean erretiroagatik edo beste arrazoi batzuengatik jarduera uzteko asmoa dutenak; eta negozio txikien jabeak, negozioaren transmisioa arrakastaz egiteko jarraitu beharreko urratsak ezagutu nahi dituztenak. Jardunaldiotan parte hartzen dutenek euren negozioaren transmisioari buruzko doako aholkularitza indibidualizatua eta pertsonalizatua jasotzeko aukera izango dute.

Irizar jauregian egingo dira saioak, otsailaren 8an eta 15ean; gaztelaniaz izango dira, 14:00etatik 16:30era. Izena emateko: *www.bergara.eus*.

Kabutzia
ARRANDEGIA
Fraiskozuri 6
BERGARA
Tel.: 943 76 56 62

Sugoi
ERLOJUAK,
ARTIKULU
ELEKTRONIKOAK,
KALKULAGAILUAK...
Fraiskozuri plaza 8.
943 76 59 54 BERGARA

Urtarrilaren 15eko emanaldiaren amaiera; antzezleak, musikariak eta publikoaren zati bat zutik, txaloka, Toti Martinez de Lezeari. ARGAZKIAK: MIKEL LEGARISTI

'Bretxa'-k arrakala eragin du musikalen historian, jauzi kualitatibo betean

Bergarako Antzerki Musikala (BAM) elkartea eta Bergarako Musika Eskola oinarri dituen 'Bretxa' musikala arrakasta handiz estreinatu dute Donostiako Victoria Eugenian, hiru emanaldietan aretoa beteta; hurrengo emanaldia frontoian izango da, martxoaren 4an

Jokin Bereziartua Lizarazu BERGARA

Bretxa-rekin jauzi kualitatibo esanguratsua eman du Bergarako musikalen tradizioak. Urtarrilaren 13an, 14an eta 15ean Donostiako Victoria Eugeniara joan ziren herritarrak –horietako asko Bergarakoak– horren lekuko izan ziren. Euskal Herriak bere historian bizi izan duen gertaerarik lazgarrienetako bat kontatzen du musikalak, 1813an Donostia erre zutenekoa; Toti Martinez de Lezearen izen bereko eleberria du oinarri ikuskizunak. Une dramatikoak dira nagusi, baina badira momentu komikoak ere, bergararren aurreko musikaletan bezala; igarri zen Bergarako musikaletan ia 30 urteko eskarmentua dutela. Musikarako zein antzezpenerako dohainak ilusioarekin, lanarekin eta esperientziarekin batzen direnean, emaitzak ikusgarriak dira. Inoiz baino baliabide tekniko gehiago ditu *Bretxa*-k, gaur egun ikus-entzunezkoen teknologiak antzerkian maisuki baliatzeak sortzen duen magiarekin.

Jauzi kualitatibo betea

Estreinaldiarekin oso pozik dago obraren zuzendari eta musikaren egile Oihan Vega bergararra. Hasteko eta behin, esker on hitzak izan ditu lantaldearentzat: "Eskerrik asko partaide guztiei amets hau egia bilakatzen laguntzeagatik. Modu boluntarioan aritu dira lanean, denak afizionatuak. Hemen ez dago kobratu duen profesionalik; partaideek euren eguneroko eginbeharrak egin ostean etorri dira entseatzera, karpeta eskuan zutela bizpahiru orduko entseguetara. Horrela izan zen azken entseguan ere; domekan, aste osoko nekea gainean zutela, hamabi bat orduko entsegu bizi bezain luzea. Hori guztia ondo zaindu beharreko altxorra da; herri kulturaz ari garenean honetaz ari gara". Esker on hitzak ere izan ditu Vegak Toti Martinez de Lezearendako: "Erraztasun handiak jarri dizkigu eta hori asko eskertzen da".

"DENAK BOLUNTARIO ETA AFIZIONATUAK DIRA; ALTXORRA DA, ZAINDU BEHARREKOA"

OIHAN VEGA, OBRAREN ZUZENDARIA

Bergarako Antzerki Musikala (BAM) elkartea izan da *Bretxa* musikalaren "motorra" eta Bergarako Musika Eskolako kideak izan dira "oinarria", baina beste eragile eta talde asko inplikatu izana "itzela" izan dela dio Vegak. Hiru emanaldiekin "harro, pozik eta zoriontsu" dago lantaldea, Vegaren arabera: "Asebeteta gaude. Ikus-entzuleak hunkituta ikusi genituen antzokitik irteterakoan eta ausartuko nintzateke esatera lantaldea osatu dugun 150 pertsonon artean ekimen honek inflexio-puntu bat sortu duela eta nor bere esparruan –abesten, dantzatzen, antzezten edo dena delakoa egiten– hazi egin dela. Ilusioz beteta gaude martxoaren 4an Bergaran ere estreinatzeko eta asmoa dugu beste herri batzuetara ere joateko, *Bretxa*-k merezi du eta". Eszena zuzendari Valen Moñuxen arabera, hirugarren emanaldia izan zen onena: "Amestutakoa, urduritasun gutxiagorekin eta erritmo eszenikoa hartuta". Laugarrena martxoaren 4an izango da, frontoian (20:00), dena hasi zen lekuan; 1994ko urtarril hartan *Les Miserables* estreinatu zuten leku berean. Sarrera gutxi batzuk geratzen dira oraindik.

Izen propioen zerrenda luzea

Luzea da eszenan agertzen direnen eta oihalen atzean daudenen zerrenda. Baina Argiñe Agirrezabal protagonista nagusiaren lana –Maritxuren rolean– sekulakoa da; baita Gorka Unamuno, Sara Manzano, Marije Ugalde, Andoni Moñux –ustekabe atsegina Alistair Williamsen rolean–, Julen Alberdi, Valen Moñux, Oihan Vega, Andoni Etxeberria, Karlos Etxaniz edota Patxi Agirrerena ere. Musikari guztiak, Txemi Etxeberriaren gidaritzapean eta Mikel Markiegiren orkestrazioarekin. Eszenografia, dekoratuak… ederrak dira –Ander Arruti, Mikel Ibarzabal– eta argiztapena, soinua eta efektuak, goi mailakoak. Ahaztu barik koreografiak –Carol Gomez–, jantziak, atrezzoa… Ikuskizun borobila.

Victoria Eugenia lepo bete zen hiru emanaldietan; irudian, publikoa antzezleei eta orkestrari txaloka.

Ikuskizunak Victoria Eugenia antzokiaren atariak ere hartu zituen, erakustaldi eta guzti.

"Oso maila politeko pilotariak lehiatuko dira"

JULEN ARANBURU BERGARAKO PILOTA SAILEKO ORDEZKARIA

Soraluce lau eta erdiko txapelketaren hamahirugarren edizioa hasiko dute hilaren 31n: "Erreferentziazko torneoa da gurea, maila oneko partiduak izaten dira"

Xabier Urzelai Atxa BERGARA

Hilabete eta erdiz Bergarako pilotalekuan promes eta amateur mailetako lau eta erdiko pilota partiduak izango dira martitzenero (19:00). Finala martxoaren 14an jokatuko dute eta antolatzaileek espero dute torneoa hasiko duten pilotarien artean bajarik ez egotea, posible den neurrian. Debagoieneko bi pilotari daude gonbidatuen artean: Ander Etxaniz bergararra eta Ander Murua arrasatearra.

Hamahiru urte beteko ditu txapelketak. Bada zerbait...

Bai; esango nuke Soraluce lau eta erdikoa erreferentziazko torneo bilakatu dela. Uste dut sasoi ona dela torneo pribatu bat antolatzeko; pilotariak txapelketa ofizialak jokatzen dabiltza asteburuetan, baina gure partiduak martitzenetan jokatzen dituzte eta pilotariek tartea dute gero errekuperatzeko. Eta urte hasieran jokatzen den torneoa da; badira beste hilabete beteago batzuk. Ea torneoko pilotarien artean ez dugun azken ordukorik izaten, lesioak eta halakoak ohikoak izaten direlako.

Maiatzean edo ekainean zailagoa izango litzateke halako torneo bat antolatzea?

Seguruenik, bai. Eta hor badugu, esaterako, Bergara Hiria txapelketa. Pandemia tarteko azken hiru urteotan ez dugu Bergara Hiria antolatu, eta hori ere erreferentziazkoa zen. Zuzendaritzatik bagabiltza pentsatzen zelan heldu ostera ere torneoari, ordurako pilotariek Herri Artekoa ere izaten dute eta.

Bergarako frontoia zer moduzkoa da lau eta erdian jarduteko?

Oso kirol instalazio ona da, leku beroa da, jendea gustura etortzen da eta zoru ona du pilotan egiteko, noblea. Egia da horma zatartuta dagoela; epe laburrean pentsatu beharko litzateke konponketaren bat egitea.

Julen Aranburu, joan den astean Bergaran. GOIENA

"BERGARAKO FRONTOIA KIROL INSTALAZIO EDERRA DA; EGIA DA HORMA ZATARTUTA DAUKALA"

Lau eta erdikoak badu arrisku bat, partiduak azkar hautsi daitezkeela...

Bai, gerta daiteke; akaso, buruz burukoa arriskutsuagoa da, baina, tarteka, egoten dira halako partiduak. Iaz, esaterako, sekulako partiduak izan genituen, oso berdinduak. Zorionez, hemengo pilotariek maila ona dute eta, orokorrean, partiduak lehiatuak izaten dira. Baina tarteka gertatzen da, bai.

Baduzu faboritorik?

Promesen mailan Beñat Zubizarreta nabarmenduko nuke; iaz ere hark irabazi zuen torneoa eta aurten ere eskuz binakako torneoetan beti ibili da finalen bueltan; uste dut besteak baino koska bat gorago dagoela. Eta nagusien mailan, Eneko Labaka ere hor egongo da; Oihan Kanabal iaz lesionatu egin zen, baina aurten uste dut torneo polita egin dezakeela, pare bat txapelketa irabazi ditu lau eta erdian; bestetik, Josu Igoa ere indartsu dago...

Debagoieneko Ander Murua eta Ander Etxaniz gonbidatu dituzue.

Bai; ordezkoen zerrendan ere badaude debagoiendar gehiago, eta bi horiek hasierako multzoan daude. Murua eta Etxaniz maila politeko pilotariak dira, baina, hasiera batean, ez nituzke faboritoen multzoan sartuko. Ander Etxanizek oso maila tekniko ona du, polita da hura pilotan ikustea, oso ondo jartzen du gorputza eta landutako pilotaria da. Baina egia da defentsa lanean hor dauden batzuk hobeak direla, indar handiagoa daukatela. Lehenengo partidua Karregalen kontra dauka eta errebantxa gogoz egongo da, Gabonetan galdu egin zuen-eta haren kontra. Eta Ander Muruak eskuz binaka oso torneo onak egin ditu 2022an, hainbat txapel jantzi ditu eta maila onean dago; gainera, iaz Soraluce lau eta erdikoan finalerdietaraino iritsi zen... Esandako moduan, ez nituzke faboritoen multzoan sartuko, baina ezustea eman dezaketen pilotariak dira.

Urtarrileko emanaldia egingo du Bandak domeka eguerdian

Ohikoa den moduan, askotariko estiloak batzen saiatu dira frontoian doan emango duten kontzertuan

X.U. BERGARA

Bergarako Bandak urtarrileko kontzertua emango du domekan frontoian –12:30ean; sarrera, doan–, eta, Enrike Txurruka zuzendariaren esanetan, "bariatua eta denentzat egokia" izango da, normalean egiten duten moduan.

Hala, Bergarako Bandak oraingo domekan eskainiko duen kontzertuak sei pieza izango ditu. Horien artean lehenengoa Enrike Txurrukak idatzitakoa den eta domekan estreinatuko duten *Lehen martxa* izeneko lana izango da. Eta horrekin batera joko dituzte *Ordizia* –Eduardo Mokoroaren lana, euskal doinuetan oinarrituriko obertura–, *Aquila Chrysaetos* –Alex Poelman, arrano beltza irudikatzen duen obra deskriptiboa da–, *Arizona* –Franco Cesarini, lurralde horren irudi deskriptiboa egiten du–, *Brave* –Patrick Doyle, animazioko filmaren folk ukituko soinu banda–, eta, azkenik, *Hegan* –Zetak-en musika elektroniko dantzagarria, bandak sonoritate sinfonikora ekarria–.

Bulego ikusteko sarrerak salgai martitzenetan

Otsailaren 10ean (22:30) joko du Bulegok Bergarako kartzela zaharrean eta kontzertu horretarako sarrerak joan den martitzena ezkero daude salgai. Hala, otsailaren 7ra arte, martitzenero ibiliko dira sarrerak saltzen kartzela zaharrean (20:30ean). Kontzertua *Nortasuna ta aurrera Tour* barruan dago eta sarrerak 8 euro balio du.

Aretxabaletako emanaldia, iaz. GOIENA

Domekara arte dago zabalik Buztinzaleren erakusketa Aroztegin

Bergarako Buztinzale elkartearen erakusketa domekara arte egongo da zabalik. Piezetako asko buztin zuriarekin eginda daude eta beste batzuk, berriz, gorriarekin. Eskulturetarako buztin txamotaduna erabili dute eta aurten, material berri modura, lanpara moduko bi pieza jarri dituzte, portzelanaz eta egunkari paperez egindako nahasketa batez egindakoak. Era berean, Buztinzale elkarteko kide zen Maria Jesus Mancisidorren omenez, haren piezak ere jarri dituzte ikusgai. Eta jarraian, Beart elkartearen erakusketak hartuko du erreleboa: urtarrilaren 27tik otsailaren 5era bitartean egongo da zabalik.

Bihar aurkeztuko dute 'Casilda revolucionaria' lana

Bihar, zapatua (18:30), aurkeztuko dute *Casilda revolucionaria* liburua Angiolillo liburutegian. Ruben Uceda (1972) marrazkilari madrildarrak Kasilda Hernaez (Zizurkil, 1914) anarkista miliziano eta feministaren bizitzaren gainean egindako komiki liburua da *Casilda revolucionaria* eta Angiolillon 2023an aurkeztuko duten lehenengo lana da.

Idazle madrildarrak egindako lanen artean nabarmentzen dira *Vahidos* (2008), *El decapital. Tratado sobre el divino consumo* (2013), *El corazón del sueño. Verano y otoño de 1936* (2014), *Versoñetas* (2015) eta *Atado y bien atado* (2018).

Eskuinean, Lazareto etxea, Errekalden; eraistean, aparkalekua eta parkea egingo dituzte, eta zirkulazioa egokitu. A.R.K.

Inbertsio nagusiak

2023ko udal aurrekontuan hainbat diru-partida zehaztu ditu Udal Gobernuak. Urtero legez, hainbat dira izango dituen gastuak, baina badira garrantzia duten inbertsioak ere.

Zehaztutako inbertsio batzuen zerrenda

Udal Pilotalekuko obra	**110.000 €**
Plan Orokorra idaztea	**35.000 €**
Zurrategiko kioskoa egokitzea	**30.000 €**
Eskola barruan eta patioan megafonia jartzea	**22.000 €**
Olarango argiteria berritzea	**22.000 €**
Jardinerak eta landareak erostea	**15.000 €**
Komunikazio-panelak	**10.000 €**
Antzuola-Aiherra ibilbidearen webgunea	**5.000 €**
Udalaren protokolozko opariak	**3.000 €**

Horrez gain, kontuan hartu behar dira aurreko urtetik datozen bi inbertsio, 2022ko likidazioarekin zehaztuko direnak.

Errekaldeko urbanizazioa	**675.000 €**
Biltegi berriaren erosketa	**210.000 €**

3.092.298 euroko aurrekontua onartu du Udal Gobernuak

EH Bilduren aldeko botoekin egin du aurrera, EAJk eta PSE-EEk "gardentasun falta" eta prozeduran izandako ustezko akatsak salatu baitituzte. Inbertsiorik "potoloenen" artean dago Errekalde auzoa urbanizatzea, 2022ko gerakinetik bideratu nahi dena

Amaia Ramirez de Okariz Kortabarria ANTZUOLA

3.092.298 euroko aurrekontua onartu du Antzuolako Udal Gobernuak; 2019-2023ko agintaldiko azkena, hain justu ere. Iazkoa baino 162.671 euro handiagoa izango da eta Gipuzkoako Foru Funtsetatik lortuko da kopuruaren zati handi bat; zehazki, 1.700.818 euro, aurrekontu osoaren %55.

Hori gogoan, Beñardo Kortabarria Antzuolako alkateak adierazi du herritarrak gogoan izanda landutako aurrekontuak direla. "Herriak behar dituen proiektuei aurre egiteko aurrekontuak dira; nolabait, ateak pixka bat zabalik uzten ditu hurrengo datorren taldearentzat". Beraz, nabarmendu du egungo Udal Gobernuak ez dituela amaituko hasitako lan guztiak, baina horiek bideratzera eramango duten aurrekontuak sortu nahi dituztela.

Ez da adostasunik

Alabaina, martitzenean onartutako aurrekontuak soilik EH Bilduren aldeko botoak jaso zituen, EAJk eta PSE-EEk aurka botatu baitzuten.

Miren Gallastegi sozialistak "gardentasun falta" leporatu dio Udal Gobernuari, jarrera hori oposizioarekiko "errespetu falta" dela erantsita. Horrez gain, azaldu du aurrekontuek ez dutela "ezer berririk jasotzen, ez dela Antzuolarentzako proaktiboa izan daitekeen ezeren alde" egiten eta, gainera, hauek lantzean jarraitu beharreko prozesua "ez dela egokia" izan.

"HERRIAK BEHAR DITUEN PROIEKTUEI AURRE EGITEKO AURREKONTUA DA"

BEÑARDO KORTABARRIA, ALKATEA

Eta, hain justu, bide beretik heldu dio Basilio Ormazabal EAJko bozeramaileak ere. "Ja hirugarren urtea da diodana, baina aurrekontuek batzordeetan landutakoak izan behar dute. Eta ikusten duguna da batzordeetatik ez direla pasatu. Hori ez da bidezkoa".

Gainera, azaldu du aurrekontuen aurkezpena "forma aldetik ere" ez dagoela "ondo estrukturatuta". Izan ere, jeltzaleen arabera, era horretako dokumentu bat kapituluka aurkeztu behar da; besteak beste, memoria batekin. Beraz, jakin nahi dute ea legezkoa den prozedura horrela egitea. "Jarriko nintzateke alkatearekin edo Ogasunekoarekin egun baten partidaz partida aztertzen, ea nondik datozen eta nora doazen". Ormazabalek nabarmendu baitu "gaizki kalkulatuta" zeudela horietako batzuk.

Dena den, alkateak ez du harriduraz jaso EAJren eta PSE-EEren ezezkoaren aldeko hautua, eta are gutxiago eurek esandakoa, aitortu duen arren balitekeela aurrekontuak osatzerakoan pauso aski ez ematea. "Gardentasun faltarena betiko leloa da, eta, parte hartzeari dagokionez, onartu dugu, agian, ez dugula tarterik eta indarrik izan. Baina eraman izan ditugunean ere kritika berbera entzun dugu".

Likidaziokoa Errekaldera

Hala ere, aurrekontuek oniritzia dute aurrera egiteko, behin-behinean bada ere, alkateak gogorarazi baitu hilabeteko epea dagoela alegazioak egiteko. Bertan jasotako proiektuen berri eman du, ordea.

Errekaldeko urbanizazioaren berritzea nabarmendu du. Azaldu duenez, "inbertsio potoloa" izango da, biltegi berria erostearekin batera, baina gogorarazi du ez dagoela aurrekontuetan zehaztuta, 2022ko likidazioaren gerakinarekin zehaztuko baitira. Hala ere, aurreikuspenen arabera, Errekaldera 675.000 euro inguru bideratzea espero da; hain justu, asmoa da Lazareto etxea eraistea, bertan aparkalekuak eta parkea egitea eta, horrez gain, zirkulaziorako lan batzuk egitea, Gipuzkoako Aldundiarekin hitz eginda.

"AURREKONTUEK BATZORDEETAN LANDUTAKOAK IZAN BEHAR DUTE"

BASILIO ORMAZABAL, EAJ-KO KIDEA

Zehaztutako inbertsioak

Horiez gain, inbertsio gehiagoren berri ere eman du alkateak: 110.000 euro bideratuko dituzte Antzuolako Udal Pilotalekuko lanak egitera; eta Hiri Antolamenduko Plan Orokorra idaztera, berriz, 35.000 euro.

Zurrategiko kioskoa egokitu egingo dute, EAJk horren beharrik ikusten ez badu ere, eta eskolan eta patioan megafonia jarriko dute, besteak beste.

Diru kantitate aldetik partidak baxuagoak badira ere, Aiherrarekin (Nafarroa Beherea) harremana sendotzen jarraitzeko nahia dute: bi herrien arteko ibilbidearen webgunerako 5.000 euro jarriko dituzte. Are gehiago, gizarte zerbitzuen kalitatea bultzatzen ere segituko dute. Hala, alkateak nabarmendu du aurrekontuen %14 bideratuko dutela lehen mailako gizarte laguntzetara.

Zeregin gehiago

Kaleetako espaloiak, barandak eta zoladurak konpondu egingo dituzte, 175.000 euroren truke; argiteria publikoa aldatzeko, berriz, 52.000 euro adostu dituzte, eta landa auzoetako pistak ere konponduko dituzte.

Ipintza institutuaren 50 urteak, erakusketa baten

Bergarako institutu publikoak mende erdi bete du eta askotariko ekintzak egiten dabiltza ikasturte honetan. Erakusketa bat ondu dute urteotako argazkiekin eta Olarango erakusketa aretoan ikusi ahalko da asteburu honetan eta datorrenean

Amaia Ramirez de Okariz Kortabarria ANTZUOLA

1972ko irailean hasi zuen ibilbidea Bergarako Ipintza institutuak, izaera publikoarekin, eta mende erdia igaro da ordu geroztik. *50 urtez lanean, denok batera aurrera bidean* lelopean, ospakizun ikasturtea du, eta hainbat ekintza egiten ari dira joan den urtea ezkero. Besteak beste, erakusketa bat inauguratu zuten 2022ko irailaren amaieran Bergarako aroztegi aretoan, eta orain, Antzuolara ekarriko dute. Olarango erakusketa aretoan izango da ikusgai asteburu honetan eta datorrenean, hilaren 28an eta 29an, 18:30etik 20:30era bitartean.

Bergarako Aroztegi aretoan inauguratu zuten erakusketa, irailean. IMANOL SORIANO

Bego Mujika eta Agurtzane Arriola institutuko irakasle ohiak aritu dira erakusketa antolatzen eta azaldu dute informazio-panelek ez ezik argazkiek ere osatzen dutela lan hori. Horiek dute garrantzia.

Hain justu, Angiozarko abade Imanol Irigaraik utzitako argazki-bilduma dago erakusketaren oinarrian, baina, horrez gain, adierazi dute badirela Ipintzatik igarotako ikasleen, irakasleen eta gainontzeko langileen eskutik jasotako irudi batzuk ere. Are gehiago, Bergarako Udal Artxibategian ere izan dira eta Arantzazu Oregi arduradunaren laguntza izan dute, beste hainbat argazki eskuratu baitituzte elkarlan horri esker. Izan ere, hutsuneak zeuden hainbat urtetan.

Antzuolarrak ere Ipintzan

Emandako datuen arabera, 50 urteotan 450 ikasleren bueltan ibili da batez besteko kopurua Ipintza institutuan. 1974-1975eko ikasturtea izan zen ikasle gutxien jaso zuena eta 1998-1999koa gehien. Gutxiago edo gehiago izan, ordea, tarte horretan hainbat antzuolar izan dira bertako ikasle eta egun ere badira. Beraz, erakusketara joaten denak izango du, beharbada, norbere burua argazkietan identifikatzeko aukera, bertatik igarotakoen zenbait argazki baitaude bilduta bertan.

IMANOL IRIGARAI ABADEAREN ARGAZKI-BILDUMA DAGO LANAREN OINARRIAN

Martxan dira Ibarrondo auzoa berrurbanizatzeko lanak

Oinezkoendako guneak eta berdegune berriak egingo dituzte, eta aparkalekuak ere antolatuko dituzte

A.R.K. ANTZUOLA

Martxan dira Ibarrondo auzoa berrurbanizatzeko lanak, Orsa SL enpresarekin adostu ostean. 151.282.28 euroko aurrekontua du obrak –BEZa barne–, eta asmoa da hilabete eta hiru asteko epean amaitzea egin beharrekoak; otsail erdialderako, alegia.

Hain justu, lau etxebizitza-atari daude auzoan, eta, horietatik hirutan bizilagunen komunitateetako kideek igogailuak jarri ondoren, Antzuolako Udalaren asmoa da urbanizazioa guztiz berritzea. Hala, emandako informazioaren arabera, lan sakonak egingo dituzte eta urbanizazioa guztiz berrituko dute. Zehazki, aparkalekuen antolamendua aldatu egingo dute eta, gainera, oinezkoendako guneak eta berdegune berriak izango ditu aurrerantzean Ibarrondok.

Ibarrondoko lanak. A.R.K.

Alabaina, obrek iraun artean aparkaleku gutxiago izango dira auzoan, lanak egiteko kendu egingo baitituzte; ondorioz, eragina izango du Eroskira joango diren kamioietan nahiz herritarrengan, supermerkatua bertan baitago.

'Harira' saioan azken agintaldia izango da hizpide martitzenean

2019-2023ko agintaldia amaitzear da eta Goiena telebistan *Harira* saio bereziak egiten dabiltza herrietako alkateekin eta alderdietako ordezkariekin. Martitzenekoan, Beñardo Kortabarria, Basili Ormazabal eta Miren Gallastegi elkarrizketatuko dituzte. 21:00etan eta 23:00etan izango da emisioa eta *Goiena.eus*-en ere ikusi ahalko da.

Galiziako bidaiaren berri emango dute Landatxope elkartean

Maiatzaren 14tik 21era bitartean, Galiziara bidaia antolatuko dute erretiratuek, eta horren berri emango dute eguaztenean, urtarrilaren 25ean, Landatxope elkartean, 16:30ean. Eroski Bidaiak-eko arduradun batek emango ditu azalpen guztiak, eta bertaratuek izan ditzaketen kezkak argitzen ere saiatuko da, egunez egun antolatuta baitago.

Abian da Mus Txapelketa

Joan den zapatuan, urtarrilaren 14an, hasi zen Antzuolako Mus Txapelketa, lehen kanporaketa jokatu baitzen Mox tabernan. Bost bikotek hartu zuten parte eta Jesus Kortabarriak eta Miren Iturbek osatutakoak lortu zuen finalerako txartela.

Bigarren kanporaketa, berriz, gaur izango da, Gailur tabernan, 22:30ean.

IMANOL SORIANO

MUJIKA HARATEGIA

Berezitasunak: Etxean hazitako zekorrak eta oilaskoak

Kalebarren 1
ANTZUOLA
Tel.: 943 76 64 34

LARREA
TABERNA
Kalebarren 17
ANTZUOLA

Oinherriko, Udaleko, Herri Eskolako eta haur eskolako ordezkariak martitzeneko aurkezpen ekitaldian. L.Z.L.

Herri hezitzaileen sarera batu berri da Elgeta

Gaur egun, 35 herrik osatzen dute Oinherri sarea, eta Iraitz Lazkano alkateak esan du Elgetako Udalak bat egiten duela erabat Oinherri filosofiarekin. Lan bilerak hasita daude; martitzenean elkartu ziren Herri Eskolako eta haur eskolako ordezkariekin

Larraitz Zeberio Lekuona ELGETA

Euskal Herriko herri hezitzaileen sarea sustatzen duen Oinherri elkartearekin hitzarmena sinatu berri du Elgetako Udalak. Martitzenean egin zituzten hedabideen aurreko agerraldia eta lehenengo lan bilera udaletxeko areto nagusian. Hezkuntzaren ikuspegia eskolaren eta familiaren esparrutik harago zabaltzea da Onherriren helburua eta Elgetan ere talde eragile bat sortuko du bide horretan lanketa egiteko. "Hezkuntza ulertzeko gonbidapen desberdin bat da herri hezitzaileen filosofia", azaldu du Oinherriko kide Maite Azpiazuk. "Azken hamarkadetan ulertu da hezkuntza eskolaren eta familien ardura moduan eta haurtzaroan hasi eta nerabezaroan amaitzen den zerbait bezala. Oinherritik aldarrikatzen dugu ikuspegi hori zabaldu beharra dugula, bai espazioan eta bai denboran hezkuntza edo heziketa bizitza osoan zehar garatzen doan prozesua delako".

Oinherri sareko arduradunek defendatzen dute hezkuntza herrira zabaldu behar den zerbait dela, eta jaiotzen garenetik hiltzen garenera arteko prozesu bat dela. "Hala, herriak eremu hezitzaile bihurtu behar ditugu. Gure misioa da herriak horren kontzientzia hartzen hastea, eta modu kolektiboan definitzen joatea ze balio sustatu nahi diren herri bakoitzean".

Beharrak identifikatu

Herri bakoitzak bere errealitate beharrak ditu. Lehenengo egitekoa da errealitate hori aztertzea eta beharrak identifikatzea. "Oinherri sarean askotariko herriak daude. Oso desberdinak dira lurraldetasunari zein herri tipologiari dagokionez. Elgeta moduan LHra arteko hezkuntza formala duten herrien tipologian identifikatuta dugu nerabeak apur bat *galdu* egiten direla, badoazelako alboko herrira ikasketekin jarraitzera. Askotan, aisialdia eta kuadrilla ere beste herri horretan garatzen dituzte. Tipologia horretako herriekin, adibidez, ari gara nerabezaroaren kultura eta parte hartzearen kultura lantzen", esan du Azpiazuk.

Iraitz Lazkano alkateak azaldu du Udalak bat egiten duela erabat Oinherri filosofiarekin eta aspalditxo dabilela herriko hezkuntza eragileekin antzeko lanketa egiten. "Uste dut honek ikuspegi integralagoa emango digula sortze bidean den talde eragile horren bidez dinamika eta filosofia hau guztia herrian txertatzeko. Asmoa da, denborarekin, gehitzea bestelako eragile batzuk talde horretara, hezkuntza formaletik harago herria bera ere hezitzaile izateko".

Elgetako Udalak urtebeterako hitzarmena sinatu du Oinherri sarearekin. Mila euroko inbertsioa da.

L.Z.L.

"Elkargune bat sortuko dugu"

MAITE AZPIAZU ERRAZKIN
OINHERRI ELKARTEA

Hezkuntza eragileekin elkartu ziren martitzenean Oinherriko ordezkariak.

Zein izaten da prozesua?

Herri hezitzaile bat egiteko ez dago errezeta magikorik. Lehen bileretan saiatzen gara gure planteamendua herriratzen, baina ez da berdina Elgetak izan dezakeen errealitatea edo Tuterak. Horregatik, eragileekin elkartzen gara eta elkargune bat sortzen dugu. Oinherri filosofia aurkezten dugu bertan eta herriko eragileak entzuten ditugu.

Eta zeintzuk izango dira hurrengo pausoak?

Oinherriren misioa da Euskal Herri luze zabalean herri hezitzailearen filosofia lantzea. Helburua izango da dauden beharrak identifikatzea eta maila kolektiboan lantzea.

Neguko lehen elurtea

Bat-batean heldu da negua eta eguaztenean hamar bat zentimetroko elur-geruzarekin esnatu zen Elgeta. Errepideetan zenbait arazo izan ziren goizean goiz, baina horiek konponduta ez zen zirkulazioan aparteko eragozpenik sortu. Hotza eta izotza etorri dira jarraian. Oraindik ere ondo babestuta joatea komeni da, eta kalean tentuz ibiltzea.

IBAN ARANTZABAL

San Sebastian eguneko ekitaldia eta danborrada gaur

San Sebastian eguna da gaur, eta Nobleen Kofradiako kideek urteroko ekitaldia egingo dute. 13:00etan, meza entzungo dute Elgetako parrokian, eta, jarraian, ekitaldia egingo dute sakristian. Aurreikusten dute 25 lagun elkartzea: Elgetakoak hogei, Angiozarkoak lau eta Uberakoa bat. Ondoren, bazkaria egingo dute Lola jatetxean, 14:30ean.

Herri Eskolan, berriz, urteroko danborrada prestatu dute, eta, aurreko bi ikasturteetan ez bezala, normaltasunez egingo dute aurten. Haur Hezkuntzako 3, 4 eta 5 urteko geletako neska-mutikoek eta Lehen Hezkuntzako 6. mailakoek hartuko dute parte danborradan, eta, besteak beste, Sarriegiren martxak joko dituzte. Ikastetxeak jakinarazi du familiak gonbidatuta daudela danborrada ikustera. 15:30ean egingo dute emanaldi nagusia, eskola ondoko frontoian.

Mendi Mendia Racing jaia otsailaren 4an

Bueltan da Elgetako pilotu taldeak eta inguruko jarraitzaileek urtero antolatzen duten jaieguna. Bi urteko etenaldi behartuaren ostean, gogotsu datoz bueltan. Oraingo honetan, gainera, mendi lasterketa ere sartu dute goizeko programazioan

Larraitz Zeberio Lekuona ELGETA

Egun osoko egitaraua aurkeztu dute eta auto erakusketarekin emango diote hasiera jaialdiari, 11:00etan. Rally-autoak eta auto klasikoak elkartuko dituzte plazan, nahi duen guztiak gertutik ikusteko aukera izan dezan. "Lasterketen munduan dabilen jendeak ekarriko ditu autoak", adierazi du Mendi Mendia Racing taldeko Ibon Unzetabarrenetxeak.

Mendi Mendia Racing jaialdiko bazkaria, 2020an. MENDI MENDIA RACING

Lasterketa Egoarbitzara

Mendi Mendia Racing jaialdiaren bosgarren edizio honetan, nobedade nagusia herri lasterketa izango da. 16 urtetik gorako lasterkariendako izango da. "Aurretik pentsatuta geneukan zerbait zen. Inoiz ez da egin Egoarbitza mendira lasterketarik, eta interesgarria ikusi genuen, ibilbide polita baita. Horretaz aparte, jendearentzat ere interesgarria izango zela iruditu zitzaigun, eta kanpoko jendearengana heltzeko bide bat zela ere bai. Intxortako Ahuntzak elkarteko kideek lagunduko digute; haiek arduratuko dira ibilbidea antolatzeaz eta segurtasunaz". Gaur, barikua, zabalduko dute lasterketan izena emateko epea, eta doan izango da. Proba 11:30ean abiatuko da, Mendizaleen plazatik, eta sari banaketa 13:30erako dago aurreikusita.

JAIALDIRAKO TXARTELAK SALGAI DAUDE DAGOENEKO LOLA, ARRANO ETA ILUNTZ TABERNETAN

Bazkaria eta kontzertuak

Aurreko Mendi Mendia Racing jaialdietan moduan, bazkaria antzokian izango da. Ondorengo kontzertuan, Arrasateko Añube, Bergarako No Limits eta Iruñeko The Lio eta Stretwise taldeak arituko dira. Azken Erromantikoak DJ saioarekin luzatuko dute gaua Elgetan. Jaialdirako txartelak salgai daude Elgetako Lola tabernan, Bergarako Arranon eta Arrasateko Iluntzen. Prezioa 25 euro da –kontzertua bakarrik, 10 euro–. 2020an egin zuten Mendi Mendia Racing jaialdia azken aldiz. Orduan, 210 lagun elkartu ziren bazkaltzeko eta gaueko kontzertuan 400dik gora pertsona.

Motorraren mundua, plaza erdigunera

Mendi Mendia Racing jaiaren helburuetako bat da rallyak eta motorraren mundua herritarrengana gerturatzea. Gaur egun, Mendi Mendi Racing taldeko Mikel Beretxinagak eta Adrian Gorostizak jarraitzen dute lasterketetan. Oskar Sarasua autoa konpontzen ari da eta Asier eta Ibon Unzetabarrenetxeak orain dela gutxi saldu dute autoa.



Mendi Mendia Racing taldeko bi auto, 2020an, plazan ikusgai. GOIENA



Ibon Unzetabarrenetxea. ELGETAKO EH BILDU

Ibon Unzetabarrenetxea da Elgetako EH Bilduren alkategaia

29 urteko elgetarrak Abokatu ikasketak ditu eta administrazio publikoan jardun du lanean urteotan

L.Z.L. ELGETA

Udal hauteskundeetarako bost bat hilabete falta direla jakinarazi du Elgetako EH Bilduk nor aurkeztuko duen zerrendaburu. Ibon Unzetabarrenetxea izango da EH Bilduren Elgetako hautagaia maiatzean egitekoak diren udal hauteskundeetarako. Unzetabarrenetxea 29 urteko elgetarra da, Zuzenbideko gradua eta Abokatutzako masterra ikasketak eginak ditu eta azken urteotan administrazio publikoan jardun du lanean.

"Ilusioz eta gogoz"

Sare sozial bidez eguaztenean zabaldutako aurkezpen bideoan, Unzetabarrenetxeak adierazi du "ilusioz eta gogo handiz" eman duela baiezkoa. "Orain dela gutxi jaso dut Elgetako EH Bilduko Mahaiaren proposamena maiatzeko hauteskundeetan alkategai izateko eta zera adierazi nahi diet herritarrei, ilusioz eta gogo handiz eman dudala baiezkoa. Eskerrak eman nahi ditut nigan jarri duten konfiantzagatik eta zin dagit Elgeta hobetzeko helburuarekin egingo dudala lan eta nire eskuetan dagoena egingo dudala herriarendako eta baita herritarrendako ere".

EH Bildutik jakinarazi dute Unzetabarrenetxea dela taldearen proposamena hauteskundeetan alkategai izateko. "Beste hautagai batzuk aurkezteko epea irekiko da orain, eta, ondoren, bozkatu egingo da", zehaztu dute.

Unzetabarrenetxea ezaguna da herrian, besteak beste, automobilismoa eta pilota dituelako zaletasun. Hala, herri mailan hainbat ekitaldi antolatzeko laguntzen ibili izan da. Esaterako, Mendi Mendia Racing jaialdia edota Elgetako pilota txapelketa.

Koko-jantzien erakusketa eta dantza tailerra gaur

Gaur iluntzean zabalduko dute koko-jantzien erakusketa, zeramika gelan. Bertan, otsailaren 11ko koko-eskean erabiliko diren jantziak egongo dira ikusgai eta konpartsako kide izan nahi duten herritarrek aukera izango dute ikusteko zer-nolako mozorroak prestatu behar diren. Lehen dantza tailerra ere gaur izango da, 19:15ean, gimnasioan.

OHARRAK

Podologoa

Erretiratuendako kontsulta astelehenean izango da. Txanda hartzeko, deitu: 669 99 81 65 (Maite Elkoro).

Kantsatzeke

Elgetako mendi elkarteak federatzeko eta elkarteko bazkide egiteko kanpaina martxan du. Martitzenean da hitzordua, kultura etxean, 19:00etatik 20:00etara.

Torreauzoko zubiko lanetan langileak, martitzenean. IMANOL BELOKI

Torreauzoko zubiko lanak hasi dituzte astean

Zubian bertan egokituko dituzte bidegorria eta ibilgailuendako galtzada. Bidegorria errepidea baino pixka bat altuago egongo da, gorriz margotuta, eta ezkerreko aldean egongo da. Astelehenean hasi zituzten lanak eta otsailean bukatuko dituzte

Oihana Elortza Gorostiza OÑATI

Torreauzoko zubian ibilgailuek, oinezkoek zein bizikleta gainean dozenek modu seguruan zeharkatzeko lanak hasi dituzte aste honetan. Hainbat aukera aztertu ondoren eta plataforma berririk egin barik, errepidea eta bidegorria kota ezberdinetan baina egungo zubitik bideratzea erabaki dute. Bidegorriaren maila igo egingo dute apur bat da eta zubiaren ezkerraldean egokituko dute, egungo trazatuari jarraipena emanez. Kolore ezberdinak erabiliko dituzte bidegorria eta errepidea bereizteko.

Pasabiderik ez

Zubiaren aldamenean oinezkoentzako pasabide bat egitea zen hasierako asmoa, ezkerretik zein eskumatik, baina uholdeak ekiditeko altuera handiko euskarri batzuk jarri beharko lituzkete, legea betetzeko, eta eraginak izango lituzke horrek bidegorriaren trazatuan. Horrela, errepidea eta bidegorria egungo zubi gainetik egitea erabaki dute, zintarri batek berezituta: "Aztertu dugu zubiaren goialdera eta behealdera pasabide bat egitea, baina irteten den emaitzarekin ez gara gustura geratu. Izan ere, uholde arriskua dela-eta, zubiaren altura eta dimentsioengatik… ez litzateke ondo geratuko zubi historiko horren alboan azpiegitura. Hori horrela, hirugarren aukera moduan, zero alternatibaren alde egin dugu; gaur egungo zubia aprobetxatuta, gaur egungo arazoei konponbidea emate aldera. Oinezkoentzako bidea eta ibilgailuentzako errepidea banatzea zintarri baten bitartez, gaur egungo bidegorriari jarraipena emanaz, altura emanda eta bidegorria kolorez ere desberdinduz. Aukera honek gerora ere pasabide bat egiteko aukera ematen digu, baina uste dugu azpiegitura erraldoi bat jarri beharrean funtzionatuko duela", adierazi du Xabier Igartuak, Oñatiko Udaleko Zerbitzu eta Landa Garapen Saileko batzordeburuak.

SEGURTASUN LANAK DIRA, OINEZKOENDAKO ZEIN IBILGAILUAN EDO BIZIKLETA GAINEAN DOAZENENDAKO

Ezkerreko aldetik

Bidegorriak 1,75 metroko zabalera izango du eta ibilgailuentzako errepideak, 4,20 metro, egun bezala. Bidegorria errepidea baino koska bat altuagoa egongo da eta ezkerreko aldean. Santxolopeztegi aldera joateko zebra-bidea egingo dute.

Iazko aurrekontuetan 250.000 euro zituen gordeta Oñatiko Udalak Torreauzoko zubiko lanetarako, baina esku-hartze txikiagoa izango da; Etxaide enpresa ari da lanak egiten eta 50.000 euroko kostua izango dute. Egungo arazoei konponbidea emango dietela uste du Udalak.

Emakumeen Etxearen aukerak partekatzeko saioa dago bihar

Eltzian izango da, 11:30ean, eta funtzionamendua, espazioak eta baliabideak izango dituzte hizpide

O.E.G. OÑATI

Emakumeen Etxea zer den, nola funtzionatu dezakeen, zein zerbitzu edo baliabide jasotzen dituen eta zein aukera ematen duen ikusteko irteerak egin zituzten azaroan. Bi irteera izan ziren eta Gipuzkoako lau herritan egon zen hogei bat laguneko taldea: Zumaian, Azpeitian, Donostian eta Hernanin, hain zuzen ere. Hango emakume etxeak bisitatu zituzten eta horietan ikusitakoa partekatu eta esku artean dauden aukerak aztertzea eta jasotzea izango da bihar Eltzian egingo den saioaren helburua.

Elkarren artean ezberdinak diren emakumeen etxeak bisitatuta, ikusitakoa eta ikasitakoa partekatu gura dute saio honetan. Emakumeen etxeen gaineko kokapen orokorra ere eskainiko dute. Lagungarria ikusten dute saio hori, hurrengo fasean Oñatiko proiektua definitzen hasteko. Oñatiko Emakumeen Etxeari buruz informazioa izan gura duen edozein herritar dago gonbidatuta. Saio irekia da, 11:30etik 13:30era.

Iriarte eta Elorza, Natur Eskolara egindako bisitan. OÑATIKO EH BILDU

Herriko proiektuak ezagutzen egon da Maddalen Iriarte

Alkatearekin eta Udal Gobernuko hainbat zinegotzirekin batera ikusi ditu egindakoak eta aurreragoko asmoak

O.E.G. OÑATI

Gipuzkoako Foru Aldundirako EH Bilduren hautagai Maddalen Iriarte Okiñena herrian izan da astean. Izaro Elorza Arregi alkatearekin eta Udal Gobernuko hainbat zinegotzirekin batera, azken agintaldian egindako hainbat proiektu eta aurreragoko batzuk ezagutu ditu, hala nola Energia Plana eta Onaro telekomunikazio zerbitzua, Natur Eskola, Sancti Spiritus unibertsitatea zabaltzeko asmoa eta Emakumeen Etxearen proiektua.

"Oñatin gobernatzeko dugun eredu propioaren erakusgarri diren zenbait proiektu erakutsi gura izan dizkiegu Maddalen Iriarteri eta bere lantaldeari. EH Bilduk berezko duen eredua da gure egunerokoaren oinarri", adierazi du Izaro Elorza alkateak. "Esan daiteke EH Bilduk berezko duen ereduaren adibide dela Oñati. Eta haren politikek balio ugari dituztela barnebildurik: berdinetik berdinerako harremana, herritarren parte hartzea, iraunkortasuna, zerbitzuen eredu justuagoa… Finean, beraiek dioten bezala, esan dezakegu dabilen herria dela Oñati", Iriartek esandakoa.

"Irakurtzen duen orori on egin diezaioke"

JUANMA QUELLE IDAZLEA

2015. urtean, bizitzaren norabidea aldatzea erabaki zuen; ordutik, psikologia positiboan oinarritutako liburuak idazten eta hitzaldiak egiten dihardu

Iñigo Barrena Kortabarria OÑATI

Hogei urte egin ditu Juanma Quellek enpresa munduan murgilduta, baina 2015ean haren bizitzak erabateko aldaketa izan zuen. Egoera pertsonal gogor baten ondorioz dena alde batera utzi zuen eta psikologia positiboaren bizitzari ekin zion. Ordutik, hain zuzen, psikologia eta pentsamendu positiboan oinarritutako ikasketak burutu ditu; eta ikasketa horiek liburu eta hitzaldi bihurtu. Makina bat hitzaldi egin ditu eta, momentuz, hiru liburu argitaratu: *Territorio felicidad; En menos de 100 palabras;* eta azkena, *El viaje de Samila*.

Juanma Quelle, azken liburuarekin. IÑIGO BARRENA

Zer kontatzen du liburuak?

El viaje de Samila psikologia eta pentsamendu positiboan oinarritutako amodiozko istorio bat da, irakurlearentzat atsegina izan dadin; eta, aldi berean, liburuak proposatzen dituen kontzeptuak gogorarazteko. Nik beti pentsatu izan dut pertsona bakoitzak egin dezakeen bidaiarik onena norberarengana itzultzea dela, eta horixe da, azken finean, liburu hau.

Zure lehen liburuaren bigarren zatia dela diozu; zertan ezberdintzen dira?

Territorio felicidad liburua une hartan bizitzen ari nintzen egoera pertsonal zail batetik irten eta egoera hobe batera heltzeko asmoarekin idatzi nuen.

El viaje de Samila-ren kasua, berriz, 4 urteko ikasketa prozesu baten ostean, psikologia positiboan egindako master baten ostean eta beste bizipen ugariren ondoren dator. Orduan konturatu nintzen bidaia hori beste liburu bat idazten burutu behar nuela.

Samila *Territorio felicidad*-era bidaia egin duen pertsona bat da, baina badaki oraindik gaur egun erantzun batzuk aurkitzeke dituela. Hori dela eta, berriz ere leku berera itzultzen da eta bertan pertsona batzuen laguntza izango du erantzunak aurkitu ahal izateko eta ongizatea aurkitzeko.

"IRAKURLEAK AZKAR IKUSIKO DU LIBURUAK GURE BIZITZA ERALDATZEKO DUEN GAITASUNA"

Zer esango zenieke irakurleei liburua irakurtzera animatzeko?

Nahi duten orrialdea irekitzeko eta irakurtzen hasteko. Azkar ikusiko dutelako liburuak orri gutxitan gure bizitza eraldatzeko eta hobetzeko duen gaitasuna.

COVID garaiak igarotzetik gatoz; horrelako liburuek lagundu dezaketela uste duzu?

Zalantzarik gabe. Uste dut COVIDak gauza asko irakatsi dizkigula. Agian, ikasketarik garrantzitsuena bizitza egun batetik bestera aldatu daitekeela izan da. Pandemian, indarberrituta atera direnak, norbere buruan hobetu beharra dutenak eta pandemiak berak gogor eragin dienak ere izan dira.

Zure aurreikuspenen kudeaketa, elkarbizitzarako duzun kudeaketa eta kudeaketa emozionala geroz eta handiagoa denean, indartsuago ateratzen zara horrelako egoera batetik; eta liburu honek, batez ere, horren inguruan hitz egiten du. Irakurtzen duen edozeini ondo egin diezaioke.

Liburua duela gutxi irten da, baina etorkizunera begira ba al dituzu proiektuak?

Mexikora noa, hain zuzen, bi aste barru, 26 eguneko bira bat egitera. Ondoren, apirilean Txilera, maiatzean Argentinara eta urrian Mexikora itzuliko naiz; beraz, berbaldi askoko urtea izango da hau. Eta jada ari gara beste liburu bat prestatzen; ondo bidean, 2024ko udaberrian kaleratuko da.

Oker ez banago, hitzaldiak ere egingo dituzu, ezta?

Bai; joan den urtean, 114 hitzaldi egin nituen eta 100.000 pertsona batu genituen, guztira; aurten, antzerako zenbakiak egitea aurreikusten dugu. Zoragarria da erantzun hori izatea, baina nik, ordea, gutxiago egitea espero dut; azken finean, nekea ere nabaritzen dut.

Asisko Urmenetak hitzaldia emango urtarrilaren 24an. OIHANA ELORZA

Euskaldunen historia hobeto ezagutzeko aukera

Nabarralderen 'Oñatiko sustatzaileek' erakusketa eta hitzaldi zikloa antolatu dituzte datozen asteetarako

Iñigo Barrena Kortabarria OÑATI

Oñatiko Nabarralderen sustatzaileek urtero antolatzen dituzten Geuk jardunaldien laugarren edizioa izango da aurtengoa eta martxan da jada. Euskaldunen historia zein izan den ezagutzeko, erakusketa eta hitzaldi zikloa antolatu dituzte aurtengo; astelehenean ekin zioten jardunaldiei, erakusketarekin.

Habitat izena dauka erakusketak. Begirada lur eremu honetan jarrita dago, gizakiak jokatu duen historia kontatzen da, ekologian ere erabiltzen den *habitat* kontzeptuarekin batera, gizakiak sortutako hizkuntza, kultura eta erakundeak aztertuz, erromatarren garaitik, Bigarren Karlistaldia amaitu bitartean. Gainera, mapa bidez erakutsiko da nola sortu zen erresuma eta nola kendu zuten, gaur egungo egoerara iritsi arte. Erakusketa Beñi Agirreren eskutik izango da eta astelehenean egin zuten lehena; beste aukera bat urtarrilaren 31n (18:00) izango da. Horrez gain, DBH-4ko ikasleek ere aukera izango dute euskaldunei buruz gehiago jakiteko, bisita gidatuen bitartez.

Hitzaldi zikloa

Jardunaldien bigarren atala hitzaldi zikloa izango da. Asteazkenean hastekoak ziren, Iñaki Sagredoren *Nafar estatua defendatzen, Gipuzkoatik Amaiurrera* hitzaldiarekin, baina denboraleak atzeratu egin du hasiera. Horrez hain, beste bi hitzaldi egongo dira: lehena, hilaren 24an (19:00) kultura etxean, Asisko Urmenetak eskainiko duena, *Euskaldunak, estatu(tu)ak ba(na)tuak;* eta hurrengo egunean, kultura etxean (19:00), Aritz Ibarrak eta Iñigo Larramendik *Gasteiz 1200* komikiaren aurkezpena egingo dute.

Trafiko istripuak saihesteko hitzaldia ikasleentzat gaur

Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailaren *Don't be Dummy/Zuk ez duzu ordezkorik* izeneko ekitaldi ibiltariek trafiko-istripuak prebenitzeko helburua daukate eta EAEko ikastetxe ez-unibertsitarioetako gazteei zuzenduta daude.

Gaur goizean (11:15) Oñatin izango dira, Santa Ana antzokian, eta Txantxiku Ikastolako Oñati BHI institutuko ikasleek hartuko dute parte saioan.

Ekitaldian zenbait lagunen zuzeneko testigantzak entzuteko aukera egongo da: Jon Zuloaga, udaltzaina; Aitor Otamendi, suhiltzailea; eta Alaitz Arbilla, trafiko istripu baten ondorioz bizkarrezur-muineko lesioa duen neska. Bestalde, ekitaldian zehar testigantza gehiagoren bideoak ikusteko aukera izango dute ikasleek. Saio horiek gazteen barnea mugitzea dute helburu, eta kontzientziazio-lana egitea.

Areto futboleko jokalariak gol bat ospatzen. MIGUEL PEREZ

Igoera lortzeko lehian egon nahi dute

Maila berrira ondo moldatu da areto futboleko talde nagusia; laugarrena da sailkapenean, lehen itzulia amaituta, nahiz eta azken hilabetean ez duen partidurik irabazi. Asteburuan ekingo dio bigarren itzuliari, Gaintxu taldearen aurka

Iñigo Barrena Kortabarria OÑATI

Joan den denboraldian, areto futboleko Gipuzkoako lehen mailara igotzea lortu zuen Coinbroker Aloña Mendik. Denboraldi berrirako bi fitxaketa egin dituzte; entrenatzailearen hitzetan, "fitxaketa garrantzitsuak" izan direnak. Denboraldiaren erdialdera iritsi dira eta sailkapenari dagokionez, behintzat, lan bikaina egiten ari dira Iñaki Iglesiasek zuzendutakoak: laugarrenak dira, 24 punturekin; asteburuan ekingo diote bigarren itzuliari. Helburuak, ordea, argi dituzte txantxikuek urtea hasi zenetik: "Hasieratik ideia mailaz igotzea edo gora begira egotea izan da, eta, lehenengo itzulia ikusita, helburua lortu dezakegula uste dut".

Azken hilabetean, berriz, bidea zertxobait okertu da, ez baitute partidurik irabazi. "Azken hilabetea ez da erraza izaten ari, aurkari zuzenen aurka jokatu dugulako, igoerako lehian egongo direnak", dio Iglesiasek.

Ikasketa prozesuan murgilduta

Maila berrira egokitzea ez da lan makala izaten eta horretan dihardu Aloña Mendik. Entrenatzaileak dioenez, taldeak lau urte daramatza lehiatzen eta jokalari batzuk futboletik iritsiak dira. Hori dela eta, oraindik futboleko kontzeptu horiek dituzte batzuek buruan, eta, horregatik, "ikaste prozesuan" daudela aitortzen du. "Maila handiko txapelketan sartu gara eta kontzeptu berriak ikasten ari gara oraindik. Neu saiatzen naiz horiek jokalariei erakusten".

Aurkari batzuek duten areto futbol maila ere azpimarratu nahi izan du eta "poliki-poliki" maila hori lortzeko lanean jarraituko dutela.

"HASIERATIK GURE IDEIA MAILAZ IGOTZEA EDO, BEHINTZAT, GOIKO POSTUETARA BEGIRA EGOTEA IZAN DA"

Hobetzeko tarte handia

Laugarrenak izanda, sailkapenean gauzak ezin hobeto doazela dirudi, baina autokritika ere egiten du prestatzaile oñatiarrak: "Neurketetan kosta egiten zaigu entrenamenduetan egindakoa islatzea; azken finean, entrenamenduan jende ezagunarekin zaude eta partiduetan, ordea, dena aldatzen da".

Sailkapenari dagokionez, egindako lanaren ostean gaur egun "toki pribilegiatuan" daudela aitortu du: "Jokoak ez du islatzen sailkapeneko postua, baina horrek esan nahi du jokoan hobetzen dugunean sailkapenari begira abantaila askoz handiagoa izango dela".

Hala eta guztiz ere, ez dio meriturik kentzen orain arte egindakoari eta baikor begiratzen diote hastear dagoen bigarren itzuliari. *"Play-off* postuak lortzeko moduko taldea dugula uste dut, baita igoera lortzeko lehian egoteko ere", adierazi du Iñaki Iglesiasek.

Haurrentzako antzerkia izango da domeka arratsaldean

Glu Glu taldearen eskutik, 'Munduari itzulia 80 egunetan' antzezlana izango da ikusgai Santa Anan

Iñigo Barrena Kortabarria OÑATI

Domeka arratsaldea etxeko txikienei zuzendutakoa izango da, Glu Glu antzerki taldeak *Munduari itzulia 80 egunetan* antzezlana eskainiko du-eta Santa Ana antzokian, arratsaldeko bostetan hasita; emanaldi bakarra izango da. Ordubete inguruko antzerkia izango da eskainiko dutena eta, azken egunetako eguraldi txarrari aurre egiteko, familiarekin batera edo lagunen artean gozatzeko aukera paregabea izango da igandekoa, inolako dudarik gabe.

Ikuskizunaren abiapuntua *Munduari itzulia 80 egunetan* liburu ospetsua da, Jules Verneren eleberrian oinarritutako bertsio librea. Glu Gluren lanetan ohikoa den moduan, Ugaitz Alegria aktoreak zuzentzen duen antzezlanaren tonu nagusia komikoa eta musikala da.

Hain zuzen ere, antzerkia ikustera joan nahi dutenek sarrerak jadanik eskuragarri dituzte Oñatiko Udalaren webgunean, *www.oñati.eus*-en, eta 4 euro ordaindu beharko dituzte sarrerak lortzeko.

Datorren asteko kultura hitzorduetako sarrerak salgai daude

Hurrengo asteburuan izango diren kultura ekitaldietarako sarrerak jada salgai daude. Zapatuan, hilak 28, gaueko hamarretan hasita, Bizanga (Madril), Peralta (Arrasate) eta Motz (Oñati) taldeen kontzertua izango da gaztelekuan. Sarrerak eskuragarri daude Udalaren webgunean, eta, aldez aurretik erosiz gero, 8 euro ordaindu beharko dira; egunean bertan kontzertua baino lehen erosten dutenek, berriz, 10 euro ordaindu beharko dituzte.

Egun bat geroago, urtarrilaren 29an, antzerkia izango da protagonista. Artedrama eta Axut! antzerki taldeek *Hondamendia* antzezlana eskainiko dute Santa Ana antzokian, arratsaldeko zazpietan hasita. Kasu horretan ere, sarrerak eskuragarri daude jada Udalaren webgunean eta 10 euroko prezioa dute.

Hastapen saioetan parte hartu ahalko da kiroldegian

Pilates eta gimnasia hipopresibo saioak izango dira, hain zuzen, hastapenekoak. Pilates saioak datorren urtarrilaren 31n hasiko dira, astelehena, eta beste hiru saio izango ditu: otsailaren 2a, osteguna; 7a, asteartea; eta 9a, osteguna. Gimnasia hipopresiboko saioak, berriz, bi izango dira, eta biak otsailean: lehena otsailaren 6an, astelehena; eta bigarrena 9an, osteguna.

Parte hartu nahi duenak Zubikoa kiroldegian eman beharko du izena, edo, bestela, 943 71 63 75 telefono-zenbakira deituta ere aukera egongo da. Ez da, ordea, guztientzat lekua egongo, bi lekuetarako plazak mugatuak izango direlako.

Bihar irekiko dute Aloñako Igoeran izena emateko epea

Datorren apirilaren 23an jokatuko da 2023ko Aloñako Igoera eta antolatzaileak prestaketa-lanetan ari dira eguna iritsi bitartean. Bihar, korrikalariak hainbeste itxaroten ari diren eguna iritsiko da, izena emateko epea zabalduko baitute. Eguerdiko hamabietan irekiko dute izena emateko epea eta *www.sailkapenak.com* webgunearen bitartez egin beharko da.

Urtero 300 korrikalarik baino gehiagok parte hartzen dute Aloñako Igoeran. Bertan izan nahi dutenek kontuan izan beharko dute izena emateko zerrenda mugatua dela eta azkar ibili beharra dagoela, agortu egiten direlako dortsalak.

DANBAKA 5.

MUSIKA LEHIAKETA

Babesleei, laguntzaileei,
parte hartzaileei eta
Danbaka jarraitu duzuen guztioi

ESKERRIK ASKO!

BABESLEAK

Gipuzkoako Foru Aldundia
Kultura, Lankidetza, Gazteria eta Kirol Departamentua

Diputación Foral de Gipuzkoa
Departamento de Cultura, Cooperación, Juventud y Deporte

Bergarako Udala

LAGUNTZAILEA

SEIN

"Aire libreko sentsazio onek jarraipena dute"

MALEN RUIZ DE AZUA VALENCIA SPORT TALDEKO ATLETA

ATLETISMOA Iaz ez bezala, Arrasatekoak ondo hasi du neguko denboraldia. Bordelen pista estaliko marka pertsonala berdindu berri du (4,43), baina gehiago nahi du

Malen Ruiz de Azua, artxiboko irudi batean, Mojategin. GOIENA

Xabier Urzelai Atxa ARRASATE

Anoetara bidean hartu du Malen Ruiz de Azuak (Arrasate, 1995) GOIENAren deia. Eguraldiak aste barruan ez du batere lagundu halako joan-etorriak egiten ibiltzeko, baina denboraldi hasieran eguaztenero Anoetara entrenatzera joateko erabakia hartu zuen Jonathan Perez entrenatzailearekin batera; hango kirol instalazioetan teknika lantzea da helburua eta ez dute kalerik egin gura. Joan den asteburuan Bordeleko Star Perche topaketa irabazi izana pozgarria izan dela aitortu du arrasatearrak; bereziki, pista estaliko marka pertsonala berdindu duelako (4,43). Baina orain datoz sasoiko hitzordu handiak eta pauso bat aurrera eman gura du.

Bistan da neguko denboraldia iaz baino hobeto hasi duzula...

Bai, sentsazio onekin nabil eta, iaz ez bezala, aurten askoz hobeto hasi dut pista estaliko denboraldia. Iaz oker hasi nuen urtea eta, azkenean, ezin izan nuen neguko sasoia zuzendu. Txapelketa txar bat egiteagatik ez da ezer gertatzen, baina egiten duzun guztietan txarto ibiltzen bazara... Konfiantza galtzen duzu eta bukle negatiboan sartzen zara. Eta egoera horri buelta ematea zaila izaten da, neguko sasoiak bost aste inguru baino ez du-eta irauten; ez da egoten zuzenketetarako denbora askorik. Udan, berriz, konfiantza hartu nuen eta ekain amaieran eta uztailean sentsazio on horiek errekuperatu egin nituen; gustura ibili nintzen. Hala, hainbat hilabetez geldi egon eta gero, denboraldi berri hau prestatzen hasi naizenean orduko jarraipena izan dut, udako sasoia eta sentsazioak errekuperatu ditut eta bolada on horretan jarraitzen dut.

Bordelen (Frantzia) topaketa irabazi berri duzu eta marka pertsonala berdindu. Zer eskatzen diozu urteari?

Aurten, nire marka pertsonala ondu nahi dut, baina ez pista estalikoa bakarrik (4,43); aire libreko marka ere ondu nahi dut aurten (4,47). Jakinda hori lortzea ez dela batere erraza. Izan ere, maila gorenean diharduzunean hobekuntza txikiena lortzea asko kostatzen da; tarte txikia izaten dugu gora egiteko, baina saiatu egin gura dut.

Euskadiko txapelketa izango duzue domekan; berrikuntza batzuk egiteko asmoa duzue.

Bai. Domekan Anoetan lasterkako tartea pare bat pauso luzatzen saiatuko gara; hamar pausoko korrikaldia egitetik hamabi pausokoa egitera pasatzea da asmoa. Teoriak dio hori egiten badut abiadura handiagoarekin iritsiko naizela salto egin behar dudan momentura eta horrek aukera emango didala pertika gogorragoa erabili eta salto handiagoa egiteko. Baina horiek teoriak dira; gero, praktikara eraman behar dira! Kar, kar, kar. Gaur [eguaztena] egingo ditugu probak, eta, ondo badoa, denboraldi amaierara arte halaxe jarraituko dut.

Zeintzuk dira neguan gorriz markatuta dituzun hitzorduak?

Euskadiko txapelketa egin eta gero baditugu bestelako probak, baina otsailaren 11n Espainiako taldekako txapelketa izango dugu eta otsailaren 17ko eta 18ko asteburuan Espainiako txapelketa absolutua.

Gero, aire librean hobetzen jarraitzea?

Hori da logikoena, sasoi hobean egoten garelako eta hilabete gehiago izaten ditugulako prestatzen joateko. Normalean, marka onenak udan egiten dira; aire librean klimatologiak ere eragina du; bereziki, txapelketan haizea alde baduzu. Baina badira neguan hobeto ibiltzen diren atletak ere.

"IAZ NEGUAN TXARTO IBILI NINTZEN, KONFIANTZA BARIK; GERO, UDAN ZUZENDU NUEN HORI"

Star Perche topaketan onena

Bordeleko Star Perche txapelketan 4,43ko saltoa eginda, topaketako onena izan zen joan den astean Malen Ruiz de Azua. Anoetan 4,35 metroko jauzia eginda zeukan aurten. Pista estalian marka pertsonala berdindu du salto horrekin.

Itzuliaren azken etapa Bergaratik pasako da; Gorla jaitsiko dute

ZIKLISMOA Antolatzaileek prest dute ibilbide bera izango duen martxa zikloturista: Itzulia Basque Challenge

X.U. ARRASATE

Gasteiz eta Bastida artean egingo duten etaparekin hasiko dute, apirilaren 3an, Euskal Herriko Itzulia. Eta aurten ere lasterketa Debagoieneko errepideetatik pasako da; izan ere, Eibarren hasi eta amaituko duten azken etapan lasterketa bailaratik pasako da. Ziklistak Gorla jaitsita sartuko dira Debagoienera eta Eibarrerako bidea hartuko dute gero –aurten lasterketa ez da Arraten amaituko–. Gainera, azken etapa horren ibilbide berbera izango duen martxa zikloturista ere aurkeztu dute: Itzulia Basque Challenge 2023.

Martxa zikloturista

Itzulia Basque Challenge 2023 egitasmoa ere aurkeztu dute. Itzuliaren antolatzaileek antolatuko dute martxa zikloturista hori –apirilaren 9an izango da–. "Lasterketa honek bi ibilbide eskainiko ditu: batetik, World Tour delakoa izango da eta txirrindulari profesionalek egingo duten etapa nagusiko ibilbide berbera izango du –138 kilometro eta 3.600 metroko desnibela–; bestetik, beste ibilbide laburrago bat eskainiko da, ez horren gogorra, 80,6 kilometroko luzera eta 2.100 metro baino gehiagoko desnibela izango duena", adierazi zuten aurkezpenean. Izen-ematea zabalik dago, *itzuliabasquechallenge.com* helbidean sartuta –90 euro izena otsailaren 28a aurretik ematen bada eta hortik aurrera, 95 euro–.

Itzulia, 2020an. GOIENA

Aloña Mendik ez du gidoia errepikatu nahi

FUTBOLA Mondraren kontrako derbian oñatiarrek partidu osoagoa egin arren ez zuten punturik batu (0-1); domekan Aretxabaletaren kontra zorrotzago ibili nahi dute ate aurrean. Bergarak ere etxean hasiko du bigarren itzulia, Zarautzen kontra

Xabier Urzelai Atxa OÑATI

Joan den asteko Alola Mendiren eta Mondraren arteko derbian oñatiarrak gehiago izan ziren. Mondrako entrenatzaile David Muñozek ere aitortu zuen hori Goiena telebistako kameren aurrean, eta gaineratu asko gustatu zitzaiola talde oñatiarra. Oraingoan, baina, puntuak arrasatearrendako izan ziren, Etxeberria aurrelariak bigarren zatian egindako jokaldi ederrari esker (0-1). Alde horretatik, Garikoitz Nuñez entrenatzaileak ez zuen askorik euren jokalariei aurpegiratzeko, gauza asko egin zituzten-eta ondo. Baina izandako aukera guztien artean ate aurrean asmatzea zorte kontua ere bada, eta domekan Aretxabaletaren kontra jokatuko duten derbian (16:30, Azkoagain) gidoi hori aldatu nahiko dute, seguru, puntuak behar dituzte eta.

Aretxabaletari dagokionez, abenduaren 11n Vasconiaren kontrako garaipen ederrak (4-2) hilabete negargarri bat eten zuen, lau porrot jasotzetik zetorren-eta UDA. Ordutik jokatu dituzten hiru partiduak, baina, maila horretako parekotasunaren adibide izan dira, Tolosaren, Elgoibarren eta Mutrikuren kontra aretxabaletarrek berdindu egin dute eta.

Auritz Larrea, aretxabaletarrak segika dituela, artxiboko irudi batean (2021). GOIENA

Bergarak bolada txarra eten du

Bergararen bolada txarra itxura txarra hartzen zebilen, lau partidu jarraian galtzetik zetozen eta; eta, hain zuzen ere, Agorrosin berrian batutako lehenengo puntua izan zen Añorgaren kontrakoa. Eta ezin da ahaztu Añorga bigarren postuan dagoen taldea dela. Hala, oraingo asteburuan ere mahoneroek etxean jokatuko dute (zapatua, 16:30), eta, oraingoan, seigarren dagoen Zarautz izango dute kontrario. Hala, atzeko postuetatik ihes egiteko puntuak batzen jarraitzera kondenatuta daude bergararrak.

Izan ere, nahiz eta joan den astean Aloña Mendiri irabazi, Mondra da sailkapenean azken postuan dagoen taldea. Hori bai, bergararrekiko zuten aldea txikitu egin dute bi puntura. Eta horretan dihardu Mondrak, azken asteotan puntuak batzen, David Muñoz etorri denetik askoz ere hobeto (Elkarrizketa 11. orrialdean). Zapatuan (17:00), atzealdean dabilen Lagun Onaken kontra jokatuko dute, Garmendipen.

FUTBOLA Bergarak eta Leintz Arizmendik etxean jokatuko dute

Ohorezko erregionalean bosgarren dagoen Leintz Arizmendik azkenaurreko postuan dagoen Urnietaren kontra jokatuko du zapatuan (15:30, Azkoagain). Bergarak ere etxean jokatuko du; mahoneroak puntu beharrean daude, sailkapeneko azken lekuan daude eta. Hala, erdialdeko postuetan dagoen Beti Gazte izango dute aurrean, 17:30ean, Ipintzan.

FUTBOLA Bergaran egingo dute saio egokitua zapatuan

Gipuzkoako Futbol Federazioak antolatuta, futbol egokituko saioa egingo dute domekan Agorrosinen. Helburua desgaitasunen bat duten haur eta gazteei futbolean jokatzeko aukera ematea da –8 urtetik aurrerakoendako da–. Hitzordua 12:00etan hasiko dute eta Bergarako infantil mailako gazteek ere parte hartuko dute saioan.

ERRUGBIA Gipuzkoako selekzioko neskak Mojategin zapatuan

Gipuzkoako selekzioko nesken entrenamendu saioa egingo dute zapatu goizean Mojategin (11:00). Harrobiko neskak batuko dira bertan, 14 eta 18 urte arteko nesken topaketa izango da eta. Domekan, berriz, 10:30ean hasita, inklusio taldeak entrenamendu saioa egingo du; hori ere Mojategin. Seniorrek atsedena izango dute asteburuan.

Goienakideen txokoa

URTARRILEKO SARIAK

Liburu-irakurgailua
Kindle e-booka
Parte hartzeko sariaren izena: ebook
EROSKI ARRASATE

Sarrerak
ARRIKRUTZ oñatiko obak
Arrikrutz kobak bisitatzeko, sarrerak.
Parte hartzeko sariaren izena: Arrikrutz

Otarrea
www.harremandenda.org
Bidezko Merkataritzako produktuak
Bidezko merkataritzako produktuak.
Parte hartzeko sariaren izena: Otarrea

PARTE HARTZEKO:
Posta elektronikoz: goienakide@goiena.eus Whatsapp: GOIENAKIDE "sariaren izena" [bazkideeren zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.
"goiena app"-a / zozketa atalean. Parte-hartzeileen artean egingo da zozketa.

Realaren eta Valladoliden arteko partidarako sarrerak
futbol zelaiko tokirik onenean
GOIENAKIDEENTZAKO ESKAINTZA
Reala-Valladolid norgehiagoka beste modu batera ikusteko aukera bikaina duzue eskura zuk eta zuk aukeratutako beste lagun batek: Reale Arena futbol zelaiko premium gunetik. Partida otsailaren 5ean 18:30ean izango da.
Parte hartzeko azken eguna: urtarrilak 31

Irabazi bi lagunendako otordua
AZPEITXI JATETXEARI ESKER
Begiratu Puntua aldizkariko Otorduan atala eta hartu parte!
Parte hartzeko azken eguna: urtarrilak 24
943 25 05 05 goienakide@goiena.eus 'Goiena app'-a / zozketa atalean.
GOIENAKIDE Jatetxea [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.

Puntua aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartel digitalaren abantailez gozatzeko...
BAZKIDETZA KUOTA: 65€
Deitu: 943 25 05 05 • goienakide@goiena.eus
DESKARGATU GOIENA APP BERRIA!
goiena kide
Okm: batzen gaituen distantzia

Publikoa, txaloka eta gozatzen. ARGAZKIAK: IMANOL SORIANO

Arragoa taldea bere emanaldiaren azken txanpan, oholtzatik jaitsita, eta jendea dantzan.

Teknikariak, errealizazio mahaian.

DJ Gela.

Aiert, Erlantz anaiak jarritako erritmora.

Ertzetatik borobildutakoa

Elkarren artean oso desberdinak diren hiru proposamen ikusi eta entzun ziren Danbakako finalean; The Clayton-en zuzeneko indartsuak eraman zuen sari nagusia

HASIER LARREA HERRERO

Musika eta lehia ekuazio berean ipintzen ditu Danbakak eta emaitza bikaina da; izan ere, ezeren gainetik, eskualdeko musikariek plazatzat hartu dute sariketa lasterketako pistatzat baino. Askotariko jarraitzaile eta kuriosoak erakartzeko dohaina ere badu, zaila baita hain pluralak diren proposamenak kartel berean ikustea. Osagai horiei ginga jarri zien bosgarren edizioaren helmuga izan zen saio definitiboak.

Finalaurrekoetako langa gaindituta, norbere bertuteak segurtasun eta lasaitasun handiagoz erakustera igo ziren Bergarako Seminarixoko taula gainera Aiert, Arragoa eta The Clayton. Finalean 45 minutuz jo ahal izateak atea zabaldu zien presak alde batera laga eta euren musikaren erliebe guztiak argitaratzeko. Esaterako, oñatiarrak aurrekoan baino kantu propio gehiago interpretatu zituen, bergararrek mundu osoko kantu tradizionalak nahastu, eta aramaioarrek rock-and-rolla nahi beste zukutu.

Gonbidatua, Murtziatik

Emanaldien arteko tarteak DJ Gela gonbidatuak gidatu zituen. Murtziarrak 20 urte inguru daramatza soinu elektronikoak lau haizeetara zabaltzen. 21:00etan hasi zen eraikinaren kanpoaldea berotzen, doinu lasai eta aproposekin. Bigarren eta hirugarren kontzertuaren artean piztu zuen mahaia berriz, eta hiru emanaldiak bukatzerakoan azkenengoz; orduan, agertoki gainean, epaimahaikideek azken erabakia hartu bitartean. Kosta egin baitzitzaien diskoa grabatzeko txartela nori eman adostea.

Bakarlariak familia maite

Lehenengo zuzenekoa Aiertek eman zuen, haren barne mundua biluzteko inolako lotsarik gabe. Gitarra elektrikoa jantzita ekin zion, tresnaren eta haren ahots apartaren notak belarrietatik garunetara goxoki sastakatuz, aiztoa gurinean lez. Sinestezina izan zen bakarlari gazteak nolako konfiantzarekin egin zion aurre halako erronkari. Ahotsa nahi eran erabilita eta euskarazko zein ingelesezko bosna bertsio eta kantu propio jota, sortzeko gaitasuna interpretatzeko erraztasunaren parean jarri zuen. Gainera, erakutsi zuen badakiela efektu elektronikoak behar bezala erabiltzen, ahotsari indarra gehitzeko.

Gitarrarekin ere iaioa da. Esku kolpe zehatzekin haria ondo eraman zuen une oro eta azken txanpan gitarra akustikoak lagundu zion; kanturik intimoenak apaintzeko, akaso. Familiari dion miresmena erakutsi baitzuen orduan, eta hura hunkitzeaz bat hunkitu zen publikoa. Kantautore oñatiarrak berak onartu du unerik politena 11 urteko anaia Erlantzek kaxarekin lagundu zionean iritsi zela.

Mundu osoko folka

Arragoako kideak identifikatuta sentituko ziren, ziur. Folk unibertsala zainetan daramatela argi utzi nahi izan zuen bi familiaz osatutako taldeak finalean, prezioa ohiko errepertorioa albo batera lagatzea izanda ere.

Eskoziatik hasi, Suedia, Ameriketako Estatu Batuak, Brasil eta Balkanak zeharkatu, Irlandan porturatu, Gaztelan egonaldia egin eta Euskal Herrira itzuli; munduko musika tradizionaletan murgiltzeko bidaia originala eta ausarta izan zen, maisuki landutakoa. Biolinek eraman zuten agintea, biolontxeloak hauspoa eta gitarrek eta perkusio xumeak akonpainamendua. Halako proposamenek plaza gehiago merezi dituztela argi geratu zen, une goxoak eskaintzeko abilezia aparta baitaukate.

Azken bi kantetan entzuleengana jaitsi direnean ibili dira

POPAREKIN, FOLKAREKIN ETA ROCKAREKIN AGURTU ZEN SEMINARIXOAN DANBAKA

Epaimahaikideak.

The Clayton, pozez beteta, sari nagusia jaso osteko agurrean.

Ikusle baten lepo gainean.

Finaleko partaide guztiak, hiru sarien irabazleak eta Danbakako ordezkariak, bukaerako talde-argazkian.

erosoen, arin-arin bat eta fandango bat jo bitartean jendea dantzara animatu denean. Finaleko irudi esanguratsuenetako bat izan da hori.

Arabako odol beroa

Jarraian iritsi zen The Claytonen txanda. Espektatibak altu zeudela jakin arren, betiko jarrera kartsua azaldu zuten, nahiz eta lehen minutuetan kosta egin zitzaien berotzea. Baina publikoa lehen lerrora gogotsu bertaratu zela ikusita, berehala jarri zitzaien odola irakiten. Abiadura biziko riffak eta abeslariaren pikardia dira, beharbada, talde trebe horren indarguneak, martxa bila doanarentzat ezin aproposagoak. Banda onak asko baitaude, baina, beraiek bezala eszenatokia betetzen dutenak, ez hainbeste. Finalaurrekoan bezala, gitarristetako batek bizkarrera eraman zuen musika-tresna, punteatze amaigabe bat begiak itxita izango balitu bezala eta postura txundigarriaz interpretatzeko. Ikuskizuna, letra larriz.

Gainera, orain arte egindakoaz konforme ez, eta bigarren diskorako prestatzen ari diren kantu bat ere eskaini zuten, onarpen ona jaso zuena. Oholtzan ahalmena, indarra eta bizipoza transmitituta, gozatzen eta gozarazten jarraitzeko apustua berretsi zuen boskoteak. Une gozoan iritsi zaie diskoa grabatzeko saria; jarraitzaileek irrikaz itxarongo dute bitartean.

Amaiera idilikoa

Epaimahaikideek sei gauetan zehar egin duten lanak aipamen berezia merezi du, baita erakutsi duten jarrerak ere. Taldeei gertatu moduan, beraiei ere gozatzeko gogoa igarri zitzaien finalean, organoa dagoen tokitik jaitsi eta ikus-entzuleak izango balira bezala pasa zituztelako momentu asko. Azken erabakia hartzea aurretik hartutako guztien antzekoa egin zitzaien; zaila benetan. Baina jakin zuten argudiatzen, elkar entzuten eta iritzi desberdinak aintzat hartzen.

Antolatzaileei epai finalaren berri eman zietenean hasi zen sari banaketa ekitaldia, gaueko ordu bata inguruan. Jakina zen Aiertek eramango zuela publikoaren saria, baina beste bien irabazleak airean zeuden. Bigarren kanporaketan aritu zen Letagin talde oñatiarrak jaso zuen, Danbaka eta Ekinez taldeko kideek aho batez erabakita, ekainean Bergarako jaialdi handian jotzeko txartela, eta ezin eskertuago azaldu ziren eszenatokian lau taldekideak. Diskoa grabatzeko sari potoloa, azkenik, The Claytonek irabazi zuen. Hala, talde argazkia atera ostean, gau borobila ixteko azken kantuak jo zituen boskoteak, erabateko poztasunak itsututa.

Azkenean, sari nagusia Aramaio aldera joan zen, baina, partaide guztien irribarrea ikusita, gau magiko hartan asko sentitu ziren sarituak.

IGARRI EGIN ZEN FINALISTEK BERTUTEAK ERAKUSTEKO TARTEA IZAN ZUTELA

SARI BANAKETA EKITALDIAN IRRIBARRE ZINTZO ETA BETEAK NAGUSITU ZIREN

Banatutako hiru sarien irabazleak

Sari Nagusia
The Clayton-ek izango du diskoa grabatzeko aukera, Gipuzkoako Aldundiko Kultura Lankidetza, Gazteria eta Kirola Sailak babestuta.

Publikoaren Saria
Aiert Alberdik grabatuko du bideoklipa, Bergarako Udalak babestuta. Boto guztien %15,82 jaso du, 2.000tik gora.

Danbaka-Ekinez saria
Letaginentzat izan da Ekinez elkarteak babestutako saria. Ekainaren 9 eta 10 artean Ekinez jaialdian joko dute, Bergaran.

Aretoan jasotako iritziak

IKER BARANDIARAN
MUSIKA ADITUA ETA KAZETARIA

"Danbaka berriz egotea, hamabi urteren ondoren, oso pozgarria da. Ikusten dugu oraindik musika talde asko eta askotarikoak daudela Euskal Herrian. Finala dibertsitate horren erakusle da. Zorionak Danbakako partaide guztiei, eta parte hartu ez dutenei ere bai!".

KOLDO OTAMENDI
MUSIKA ZUZENEAN-EKO ARDURADUNA

"Horrelako lehiaketek aukera ematen dute, batez ere, entsegu lokalak dauden herrietan zer dagoen ikusteko. Badugu arazo bat, jendea ezagutzen ez dituen taldeen kontzertuetara joaten ez dela. Danbakak talde txikien lana ikusgarri egiten du".

IKER MARTINEZ
MUSIKARI OÑATIARRA

"Oso maila handia egon da, edozein areto handitan programatzeko modukoa. Estilo aniztasuna zabaldu egin da asko; begira gaur: bakarlari bat, folka eta rocka. Eta finaletik kanpo geratu direnak: elektronika... Duela 20 urte, denok genbiltzan gitarra astintzen".

EIDER ELORZA
ARRAGOA TALDEKO KIDEA

"Finala prestatzeko ez dugu denbora askorik izan, baina beste buelta bat eman nahi genion proposamenari. Aurreko egunetan aritu gara buru-belarri entseatzen, eta ikusi da landu dugula. Gozatu egin dugu, bai taldekideok eta baita publikoak ere; hori da musikaren funtsa!".

Aramaioko The Clayton taldeko kideak, entsegu-lokalean. IMANOL SORIANO

IRABAZLEAK THE CLAYTON

Aramaioko The Clayton boskoteak irabazi zuen Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura, Lankidetza, Gazteria eta Kirol Departamentuak babestutako diskoa grabatzeko saria

"Kalitatezko bi grabazio jasotzea ere, sari handia"

Aitziber Aranburuzabala ARRASATE

Kostata hartutako erabakiaren ondoren, Aramaioko taldeari eman zioten epaimahaikideek sari nagusia; Goiena Taldeko presidente Monika Belastegik eman zien oroigarria. *Hemen Debagoiena* saioan izan ziren astelehenean hiru sarien irabazleak; horien artean, Jokin Larrañaga, The Clayton-eko abeslaria.

Azkeneko jotzea egokitu zitzaizuen; zer moduz joan zen?

Danbakan kamerari lanetan ibili naiz; hortaz, eguna luze joan zen: goizean muntaia, soinu-probak arratsaldean... eta finalean Aierten kontzertua grabatzen ibili nintzen. Ohituta gaude kontzertuak egiten; batzuetan, lehenengo; beste batzuetan, itxarotea tokatzen zaigu, eta hala izan zen egubakoitzean, baina arazo barik!

Ohikoa duzuen ganberro estiloarekin igo zineten oholtzara, baina zer gertatu zen hasierako minutuetan?

Batzuetan gertatzen den moduan, hotz samar hasi ginen, baina makina berotutakoan ondo joan zen dena.

Nola berotu, gainera; eta, lehenengo momentutik, lehen lerroan zaleak zuen kantuak gogoz abesten.

Asko igartzen eta eskertzen da ikusleen indarra, eta, halako jarrera badute, askoz ere gehiago. Badaude gure kontzertu askotara etortzen diren zaleak; bada, bide batez, aukera aprobetxatu gura dut haiei guztiei eskerrak emateko.

Bateriarekin arazo txiki bat egon zen eta segituan igo zen Letagin taldeko Iban Idigoras bateria-jolea konpontzera; zer gertatu zen?

Ez nintzen konturatu, baina publikoan aurpegi arraroak ikusi nituen eta atzera begiratu nuenerako Iban han zegoen. Arrunta izaten da gure bateria-joleak mikroak eta bestelakoak lurrera botatzea. Kontzertua bukatutakoan eskertu egin nion Idigorasi keinua.

Kantu berri bat aurkeztu zenuten, grabatuko duzuen bildumako ale bat izango dena.

Danbakan urriaren 14an izan zen gure azken kontzertua eta ordutik abestiak sortzen ibili gara. Finala prestatzeko denbora gutxi izan dugu, baina gure asmoa gutxienez kantu berri bat erakustea zen.

Telebistako pantailan taldea ikustea gustuko?

Telefonoarekin grabatutakoak dira orain arte genituenak eta taldean komentatu izan dugu sari inportantea izan dela guretzako zuzeneko kalitate handiko bi grabazio eskuratzea.

Ikusgarriak Pello Arriolabengoa gitarra-jolearen punteatzeak gitarra bizkarrera eramanda; sarritan egiten ditu halakoak?

Lokaleko sabaia oso gertu du eta horregatik ez du hori en-

PUBLIKOAREN SARIA AIERT

Oñatiko Aiert Alberdi bakarlariak eskuratu du Bergarako Udalak babestu duen Publikoaren Saria; bideoklipa grabatzeko aukera izango du, botoen %15,82 jasota

"Inoiz baino biluztuago sentitu nintzen, baina oso eroso ere bai"

Aitziber Aranburuzabala ARRASATE

Bergarako Udaleko Kultura zinegotzi Kristina Markinaren eskutik jaso zuen oñatiarrak Publikoaren Saria Seminarixoan.

Taularen gainera igotzen lehenengoa izan zinen; aldeko edo kontrako izan zen hori?

Aurreikusten nuen hala izango zela, eta, egia esan, alde batetik, badago publiko hotza topatzeko beldurra, baina uste dut zuen lana dela giroa gozatzea eta esango nuke lortu genuela.

Urduri eta ate batekin arduratuta igo zinen oholtzara; zer gertatu zitzaizun?

Sorpresa txiki bat nuen gordeta; hain zuzen, kantu bat elkarrekin jotzeko nire anaia Erlantz igo behar zen. Bada, hura sartzeko atea itxi egin zen eta ardura puntu bat nuen horrekin, ea sartzerik izango zuen; bestela, nahiko lasai sentitzen nintzen.

Nola joan zen kontzertua?

Apustua egin nuen nire abestiekiko; hortaz, inoiz baino gehiago biluztu nintzen, baina oso gustura eta eroso sentitu nintzen, aldi berean. Nire bost kantu eta bost bertsio egin nituen. Oso azkar pasatu zitzaizkidan 45 minutuak.

Zure *look*-a komentatua izan da; bereziki prestatu zenuen?

Ez, nire janzteko era da hori. Kontzerturako prestatu nuela pentsatu zuen jendeak, orokorrean, baina ez zen hala izan, hori da nire ohiko janzteko modua eta hala igo nintzen.

Kristina Markina, Aiert Alberdi eta Jokin Bereziartua, Seminarixoan. I.S.

tseatzen, baina kontzertu baten hasi zen halakoak egiten, eta, gustatu egin zitzaionez, jarraitu egiten du, eta ikusgarria da, bai, ikusteko.

Orokorrean, gustura ari zinetela argi ikusi zen.

Bai, horixe; gu beti gustura. Gozatu egiten dugu musika egiten. Danbakan izatea plazera izan da eta Seminarixoa halako beteta ikustea, itzela! Urduri samar geunden hasieran, baina dena deskargatu genuen oholtzaren gainean. Espeziala izan zen, bai.

Asko entseatu zenuten finala prestatzeko?

Ez pentsa! Urriaren 14an, lehen emanaldian jo genuen guk eta harrezkero kantu berriak sortzeko lanetan ibili gara, bereziki. Abenduaren 23an argitaratu zen finalisten zerrenda; bada, finaleko eguna iritsi bitartean bostok elkartzeko izan dugun denbora hori eskaini diegu finalerako prestakuntzei.

"DANBAKAN IZATEA PLAZERA IZAN DA ETA SEMINARIXOA HALAKO BETETA IKUSTEA, ITZELA!"

"IRAILEAN DUGU BILDUMA BERRIA GRABATZEKO ASMOA; DAGOENEKO ARI GARA KANTUAK SORTZEN"

Epaimahaikideek irabazlea erabaki bitartean zelan bizi izan zenuten une hura?

Kontzertu osoa barne, tentsio-une handiena izan zen hori. Saria jasotzera igo ginenean lasaiago nengoen, eta, duda barik, taldekide guztiak oso pozik.

Danbakaren balorazio borobila egin dute antolatzaileek, sekulako erakusleihoa izan dela goraipatuta. Balioa ematen diozu zuk ere egon den aniztasunari?

Duda barik. Danbaka osoan zehar izan naiz lanean kamerarekin, eta, horregatik, musikari guztiak ezagutzeko aukera izan dut eta oso interesgarria izan da hori. Bestetik, The Claytoneko taldekide moduan parte hartzea ere esperientzia oso polita izan da niretzako.

Hasita zaudete disko berria prestatzen; ze asmo duzue?

Ari gara bai kantu berriak sortzen, baina bost pertsona burugogor gara gauza bat lortu guran ari garenak lanean. Abesti baten lehen egituratik kantua bukatzen dugun arte denbora bat pasatzen da. Irailean dugu bilduma berria grabatzeko asmoa eta ordura arte gogoz egingo dugun lan. Oso eskertuta gaude sari nagusia eskuratu dugulako; bilduma berria kaleratzeko bultzada handia izango da.

Oso polita izan zen Erlantz anaiarekin batera kantua eskaintzea; pozik anaia?

Bai, horixe; niretzako ere kontzertuko unerik onena izan zen. 11 urte ditu eta asko estimatzen dut egiten duen ahalegina. Modu naturalean etxean elkarrekin jo izan dugu, eta hark proposatuta igo zen Seminarixoko agertokira kaxoia jotzera.

Egin beharrekoa eginda lasaitua hartu zenuen gero?

Nire helburua gozatzea zen eta lortu nuen; hortaz, pozik jaitsi nintzen eszenatokitik, aurreko asteetan egindako lana islatu zen sentsazio onarekin.

"PUBLIKOAREN BOTOEN BITARTEZ SARIA IRABAZTEA PREZIATZEKOA DA; ESKERRIK ASKO!"

Espero zenuen Publikoaren Saria?

Bozketak jarraitzen ibili naiz. Hasieran, bigarren nengoen; gero, lehenengo postura igo nintzen; eta aste batzuetan, goian izan naiz... baina Sukena taldearen botoekin oso antzera. Sekulako saria izan da niretzako; publikoaren botoen bitartez saria irabaztea preziatzekoa da. Asko eskertzen diet nire aldeko botoa eman duten guztiei, besarkada goxo baten modukoa izan da feedback hori. Era berean, oso eskertuta nago Danbakako antolakuntzarekin, emandako aukeragatik.

Hasi zara bideoklipean pentsatzen?

Saria irabazi nuenetik buruari bueltaka ari naiz, bai. Ekoiztu behar den abestiari bueltak ematen, abestia aukeratzen… Oraingoz, ez dugu grabatzeko datarik zehaztu. Bideoklipa argitaratzen dudanean, beste abesti bat argitaratzeko asmoa ere badut".

DANBAKA-EKINEZ SARIA LETAGIN

Oñatiko Letagin laukoteak irabazi zuen Bergarako Ekinez jaialdiak babestutako Danbaka-Ekinez saria

"Toki txikietan jo izan dugunez, oso aukera ona da Ekinez"

Oñatiko Letagin taldeko kideak Seminarixoan egubakoitzean. IMANOL SORIANO

Aitziber Aranburuzabala ARRASATE

Ekinez Elkarteko Julen Iñarrak eman zion Oñatiko Letagin taldeari Danbaka-Ekinez saria; ekainean Bergaran egingo duten Ekinez musika jaialdian jotzeko aukera izango dute.

Zer da Ekinez jaialdian jotzeko aukera izatea?

Hasteko, esperientzia berri bat, halako jaialdietan sekula jo barik gaude eta; toki txikiagoetan, gaztetxeetan eta auzoko eta herriko jaietan jo izan dugu; beraz, eskertzekoa da Ekinezen jotzeko aukera ematea; nolabait esanda, errekonozimendu txiki bat ere bada, aurrera egiteko indarra ematen dizuna.

Aukera ona da jaialdi handi batean parte hartzea, baina, aldi berean, konpromisoa ere bai, ezta?

Izena hartu duen jaialdia da, jo duten taldeengatik eta baita bertan batu zen jende mordoagatik ere. Guretzako aukera ona da han jotzea, jende gehiagok ezagutuko gaituelako horrela.

Lehiaketetan parte hartuak zarete?

Egia esan, ez, baina Danbakaren berri jakin genuenean ez genuen zalantzarik izan, nahiz eta berandu samar ibili ginen gero izena emateko orduan. Kontzertuaren egunean Seminarixora sartu ginenean harrituta geratu ginen tokiarekin eta aretoan zeuden kamera mordoarekin. Oso gustura geratu ginen urriaren 28an egin genuen kontzertuarekin. Oroimenerako, promoziorako edo dena delakorako gure kontzertu bat kamera onekin grabatuta geratu izana ere oso eskertzekoa da.

"AURRERA EGITEKO INDARRA EMATEN DU, DUDA BARIK, JASO DUGUN DANBAKA-EKINEZ SARIAK"

Entsegu-lokalean ordu asko sartu zenituzten kontzertua prestatzeko?

Egia esan, ez; betikoa, lokalera joan eta betiko moduan entseatu. Danbakan izena eman orduko bigarren laneko konposatze-lanekin ari ginen eta alde batera utzi behar izan genituen.

Saria ematerakoan, Ekinez jaialdiko kide Julen Iñarrak sekulako zuzenekoa duzuela esan zuen, eta hautagai aproposak zaretela Bergarako jaialdirako; zer diozue?

Eskerrik asko; hori besterik ez daukat esateko emandako aukeragatik. Ea, bada, ekainaren 9an edo 10ean izango den kontzertua nola joaten den.

Sariaz harago, zelako esperientzia izan da Danbaka zuendako?

Kontzertuetara, gehienetan, gustuko duzun musika mota horretako taldeak ikustera joaten zara eta Danbakak balio izan digu Debagoienean dauden askotariko musika formazioak eta estiloak ezagutzeko.

BARRUTIK

JOKIN BEREZIARTUA
KOORDINATZAILEA

Lehia leiala, eta leiho berriak

Uztailaren 20tik urtarrilaren 20ra. Danbaka bueltan zetorrela aditzera emateko prentsaurrekotik gaur bete da urte erdi. Ahaztuko ez ditudan sei hilabete. Kontaezinak bilerak, telefono deiak, *whatsapp*-ak, prentsa oharrak, PDFak edota *rider*-ak; tamalez, musika munduan ere nabarmena da termino anglosaxoien nagusitasuna. Eta izan dira ezustekoak, azken orduko kezkak eta akatsak. Beti dagoelako zer hobetu. Baina, harrotu barik, betiere, harro diot Danbakaren bosgarren edizioak oso zapore ona utzi digula antolatzaileoi. Lehiaketa izan da, baina, lehiak baino gehiago, taldeen arteko leialtasunak irabazi du, elkar babesteko eta elkarri laguntzeko grinak. Leiho berriak irekitzeko ekimena izan delako bosgarren hau ere. Bagenekien baldintzak bazirela 2004an sortu zen ekimen eder honi berriz ere heltzeko, itzulera edo *revival*-ak bogan dauden garaiotan, baina itzulera soila baino askoz gehiago izan da; izan ere, inor gutxik espero zuen Debagoienean halako aniztasuna eta maila handia egongo zenik. Seminarixora joan denak beste edozein jaialditan nekez ikus daitezkeen proposamenez gozatu du ordu erdian; bada plan hoberik? Bejondeiela hiru sarituei. Gainerako 17ak ere bazarete irabazle, eta izena eman eta parte hartzerik izan ez zenutenak ere Danbaka zarete. Hortik aurrera, eskerrik beroenak ematea besterik ez zait geratzen Danbaka posible egin duzuen guztioi, bihotzez. Eta musikari horri, bereziki hasiberriari: ez egiozu sekula sortzeari utzi! Gora Danbaka!

"HARROTU BARIK, HARRO DIOT ZAPORE OSO ONA UTZI DUELA; ESKERRIK ASKO, ETA GORA DANBAKA!"

IRAGARKI SAILKATUAK

1. ETXEBIZITZAK

104.ERRENTAN HARTU

Arrasate edo Aretxabaleta. Etxebizitza partekatu edo logela hartuko genuke errentan, bi pertsonarendako. Deitu telefono zenbaki honetara: 643 89 11 93 (Sara)

Bergara eta inguruak. Bi lagun baserri bat errentan hartzeko gertu. Soraluze, Osintxu edo Bergara inguruan. Deitu telefono zenbaki honetara: 688 64 27 61 (Asier).

Bergara. Errentan hartzeko etxe bila nabil. 500 euro ordainduko nituzke gehienez. Deitu telefono zenbaki honetara: 631 46 56 98

4. LANA

402. ESKAERAK

Arrasate edo Aretxabaleta. Nagusiak zaintzeko gertu nago, egunean zehar. Deitu telefono zenbaki honetara: 641 29 76 24

Arrasate edo Bergara. Nagusiak eta umeak zaintzen edota garbiketan lan egingo nuke. Etxean bertan bizi izaten edo bestela. Deitu telefono zenbaki honetara: 632 91 89 93

Arrasate eta inguruak. Arratsaldez, gauetan edota asteburuetan lan egiteko prest nago. Autoa daukat eta baita soziosanitario titulua ere. Telefonoa: 680 87 38 66

Arrasate eta inguruak. Multil arduratsua lanean hasteko gertu: nagusiak zaintzen, garbiketa lanetan, zerbitzari, biltegian laguntzen. 603 04 38 52

Arrasate eta inguruan. Erizain laguntzaile ikasketak ditut eta zaintza lanak egiteko gertu nago. Nagusiak, umeak edota laguntza behar duen edozein. 620 23 58 15

Arrasate. 31 urteko gizonezkoa paseoak emateko, etxean bertan bizi izaten edo orduka, zaintza lanak egiteko gertu. Eraikuntzan, ostalaritzan, garbiketa lanetan eta abarrean ere bai. Autorik ez dut. 641 44 16 30

Arrasate. 32 urteko mutila prest dago taberna, jatetxe edo bestelako ostalaritza establezimendu baten jarduteko. Ostalaritzaz gain, adineko pertsonak zaintzen ere egingo luke lan. Deitu telefono zenbaki honetara: 688 29 97 05

Arrasate. Arrasateko neska arduratsu eta atsegina pertsona nagusiak edota umeak zaintzeko gertu. Ondo moldatzen naiz haurrekin. Telefonoa: 695 73 87 95

Arrasate. Edozein motatako lan bila nabilen emakumea naiz. Etxean bertan bizi izaten zein orduka. Zaintza lanak, garbiketa lanak, haurrak, ostalaritza. Esperientziarekin. 641 44 16 30

Arrasate. Emakume arduratsua orduka garbiketak egiteko gertu. Sei urteko esperientziarekin. Legezko agiriak eta erreferentzia onak aurkez ditzaket. 612 51 42 99

Arrasate. Goizetan zehar, orduka, nagusiak zaintzeko edota etxeko lanak egiteko gertu nago. Legezko agiriak dauzkat. 655 46 54 32

Arrasaten. Garbitasunean edo pertsona nagusiak zaintzen egingo nuke lan, eguneko langile moduan. 632 21 99 06

Arrasaten. Lan bila nabil, Arrasaten. Garbitasunean edo pertsona nagusiak zaintzen, eguneko langile moduan. 602 42 59 92

Bergara. Esperientziadun emakumea prest garbiketa lanak edota pertsona nagusiak zaintzeko. Telefonoa: 666 07 42 98

Bergara. Gauez lana egiteko prest, pertsona edadetuak edo gaixoak zaintzen. 633 49 27 40

Bergara. Goizetan nagusiak zaintzen eta garbiketan lan egingo nuke. Telefonoa: 633 49 27 40

Bergaran edo inguruan. Kaixo, Haur Hezkuntzako irakaslia naiz eta haurrak zaintzeko eskaintzen naiz. Esperientzia luzia daukat umiekin 0-6 urte bitxartian. Orain lanaldi murriztuan nago eta denbora libre asko daukat, hortaz, laguntza behar baduzu deitu lasai eta galdetu, gogoz erantzungo dizut. Deitu telefono zenbaki honetara: 684 14 95 54

Debagoiena. Arratsaldetan nagusiak zaindu edota garbiketak egingo nituzke. Soziosanitario titulazioarekin. 632 91 23 61

Debagoiena. Astean zehar arratsaldez eta asteburuetan goizez zein arratsaldez lan egingo nuke dendan, tabernan, umeak zaintzen eta abar. Deitu telefono zenbaki honetara: 656 79 28 37

Debagoiena. Asteburuetan nagusiak zainduko nituzke. Deitu telefono zenbaki honetara: 602 80 15 38

Debagoiena. Atarteak garbitzen, nagusiak zaintzen edo ospitaleko zaintzan lan egingo nuke. Orduka eta baita aste bukaeretan ere. Deitu telefono zenbaki honetara: 866 85 42 76

Debagoiena. Edozein lanetarako prest dagoen mutila naiz. Denetariko garbiketak, etxe-aldaketak, eraikuntza-lanak, baserriko lanak eta abar. Deitu telefono zenbaki honetara: 645 72 92 87

Debagoiena. Emakumea garbiketa lanetarako prest, orduka edo etxean bertan bizitzen. Telefonoa: 603 77 58 82

Debagoiena. Emakumea prest etxeak, tabernak eta abarrak garbitzeko. Telefonoa: 666 64 52 00

Debagoiena. Emakumea prest pertsona nagusiak zaintzeko, tabernari lanak edota garbitzaile lanak egiteko ere. Deitu telefono zenbaki honetara: 624 86 97 18

Debagoiena. Emakumea prest pertsona nagusiak zaintzeko, tabernari lanak edota garbitzaile lanak egiteko ere. Deitu telefono zenbaki honetara: 631 75 03 97

Debagoiena. Etxez etxeko laguntza emateko gertu nago, etxean bertan bizi izaten edo bestela. Deitu telefono zenbaki honetara: 682 40 53 38

Debagoiena. Gauetan edo orduka zaintza lanak egiteko gertu nago, baita ospitalean ere. Astean zehar zein asteburuetarako. Legezko agiri eta titulazioekin. Telefonoa: 602 49 39 31

Debagoiena. Gizona gertu orduka nagusiak zaintzeko eta atariak garbitzeko. Soziosanitario titulazio eta legezko agiriekin. Deitu telefono zenbaki honetara: 643 73 62 36

Debagoiena. Lan egin nahi dut pertsona nagusiak zaintzen edota etxeak eta portalak garbitzen. Deitu telefono zenbaki honetara: 688 78 88 40

Debagoiena. Legezko agiriak eta lanerako titulazioa dauzkan neska egunean zehar nagusiak zaintzeko eta garbiketan aritzeko gertu. Telefonoa: 662 02 45 80

Debagoiena. Mutila nagusiak zaintzeko gertu. Deitu telefono zenbaki honetara: 672 55 67 35

Debagoiena. Nagusiak eta umeak zaintzen, garbiketan edota etxeko langile moduan aritzeko gertu nago, egunean zehar. Soziosanitario titulazioa eta esperientzia dauzkat. 641 51 13 06

Debagoiena. Nagusiak zaindu eta garraioan laguntza emateko gertu nago. Baita umeak eskolara eramateko ere. Telefonoa: 695 06 36 75

Debagoiena. Nagusiak zaindu eta laguntza emateko titulazioa daukan mutila lanerako gertu. Baita baserrietan ere. Autoa daukat. 674 53 60 37 (Jacobo)

Debagoiena. Nagusiak zaintzeko gertu nago. Legezko agiri eta zaintzan jarduteko ziurtagiriarekin. Deitu telefono zenbaki honetara: 666 16 95 62

Debagoiena. Neska arduratsua nagusiak zaintzeko edota garbiketak egiteko gertu. Soziosanitario, lehen arreta eta etxeko langile ikasketekin. Etxean bertan bizi izaten edo bestela. Berehala hasteko prest. Telefonoa: 653 36 85 80

Debagoiena. Neska arduratsua naiz eta zaintza lanak egiteko gertu nago. Orduka, etxean bertan bizi izaten eta baita asteburuetan ere. Deitu telefono zenbaki honetara: 641 51 68 34

Debagoiena. Neska arduratsua, legezko agiri zein soziosanitario eta etxeko langile izateko titulazioekin, arratsaldetan eta asteburuetan nagusiak edota umeak zaintzeko eta denetariko garbiketak egiteko gertu. Berehala hasteko moduan. 653 36 85 80

Debagoiena. Neska gaztea orduka lan egiteko prest, goizez, umeak eta pertsona nagusiak zaintzen. 611 51 89 55

Debagoiena. Orduka edo gauetan nagusiak zaintzeko gertu nago. Baita garbiketa lanetarako ere. Jaurlaritzaren ziurtagiria eta legezko agiriak dauzkat. 659 57 93 89

Debagoiena. Orduka eta asteburuetan lan egingo nuke nagusiak zaintzen edota garbiketan. Deitu telefono zenbaki honetara: 612 56 12 39

Debagoiena. Orduka pertsona nagusiak zaintzeko gertu nago. Autoa daukat. 631 98 15 50

Debagoiena. Soziosanitario titulua daukat eta pertsona nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Telefonoa: 631 25 26 67

Debagoiena. Sukaldean, nagusiak zaintzen edota etxeko lanak egitean aritzeko gertu nago. Telefonoa: 610 99 70 46

Debagoiena. Zaintza lanak egingo nituzke, baita gauetan, asteburuetan edota ospitalean ere. Legezko agiriekin eta soziosanitario ikasketekin. Telefonoa: 647 3148 17

8. DENETARIK

806. GALDU

Belarritakoa Bergaran. Larunbatean, urtarrilak 14, Seminarioko aldapan belarritako bat galdu nuen. Eguzkilore bat da. Aurkitu baduzu eskertuko nuke nirekin harremanetan jartzea. Deitu telefono zenbaki honetara: 669 57 97 84

808. BESTELAKOAK

Erlategia jartzeko lursail bila. Arrasaten edo inguruan erlategia jartzeko leku bila nabil. Hegoaldera begira, eguzkibegi, eta autoz bertara iristeko modukoa. Erosi edo trukean hartuko nuke. 676 52 75 28 (David)

Ibargaraí 3 - BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
www.inmokorosti.com

BERGARA:
- San Martin Agirre plaza, 2 logela, igogailua, bizitzera sartzeko. 229.000€
- Artekale, 90 m², 3 logela, bizitzera sartzeko. 150.000€
- Askarruntz, 60 m², 2 logela, trastelekua, bizitzera sartzeko. 100.000€
- Barrenkale, bi etxebizitza: 85 m², 88.630€ eta 46 m², 48.630€. Erriformatzeko gustia.
- Burdinola, 74 m², 3 logela, igogailua, garaje 23 m²koa barne. 235.000€
- Ermua, 60 m², gela 1, trastelekua, terraza, bizitzera sartzeko. 166.000€
- Freskizuri, 102 m², 4 logela, igogailua, eguzkitsua. 179.000€
- Irizar poligonoa, 71 m², 2 logela, igogailua, bizitzera sartzeko. 260.000€
- Mertola, 60 m², 2 logela, igogailua, bizitzera sartzeko. 120.000€ PREZIO JEITSIERA.
- Mesterneka, 53 m², 2 logela, bizitzera sartzeko. 148.000€
- Mesterneka, 75 m², 2 logela, bizitzera sartzeko. 149.000€ PREZIO JEITSIERA.
- Mesterneka, 75 m², 3 logela, berritzeke, bizitzera sartzeko. 150.000€. Negociagarria.
- Mesterneka, 75 m², 3 logela, bizitzera sartzeko. 105.000€
- Mesterneka, 86 m², 3 logela, balkoia.150.000€ PREZIO JEITSIERA.
- Mesterneka, 86 m², 3 logela, berritzeke, bizitzera sartzeko. 150.000€. Negociagarria.
- Mesterneka, 90 m², 3 logela, igogailua, eguzkitsua. 195.000€
- Metxistegi, 96 m², 4 logela, terrazarekin, igogailua. 139.500€. PREZIO JEITSIERA.
- Sanantonioabel, 75 m², 2 logela, 2 aparkaleku. Bizitzera sartzeko. 175.000€
- Zubiaurre, 60 m², 2 logela, bizitzera sartzeko. 75.000€.

LOKALAK:
- Bidekurutzeta, 364 m², 3 lokal batera, bi sarrera. Berritu dituzte. 95.000€
- A. Fleming (poligonoan), 50 m², komertzio eta garajea ditu. Bi sarrera ditu. 65.000€
- Mesterneka, 114 m², Bidebarritik sarrera. Oztopo arkitektonikorik gabe. 80.000€

GARAJEA:
- Bola, 16,47 m². Garaje ibia. 25.000€

OSINTXU:
- Osintxu, 61 m², 3 logela, trastelekua, berritzeke. 55.000€
- Osintxu, 75 m², 3 logela, trastelekua handiarekin. 63.000€. Aukera ona.

BASERRIAK:
- Uberan, baserria eta 15 hektareako lursailak (pinuak, zelaiak) 340.000€
- Angiozar, Portetti auzoan, baserria eta 3 hektareako lursailak. 175.000€
- Azkorrunta, gurtzi berritzeko dagoen baserria, lursailekin 75.000€

ANTZUOLA:
- Beheko auzoa, 54 m², 2 logela, emeforma behar du. 60.000€ PREZIO JEITSIERA
- Irimoegigoena auzoan, Baserria salgai, hektarea bateko lursailarekin 295.000€
- Irimoegigoena auzoan, Baserria salgai, hektarea bateko lursailarekin 120.000€
- Kalegoa, etxe osoa, bi etxebizitza eta trastelekua. 120.000€
- Beheko auzoa, 90 m², 3 log, lursailekua eta garajea barne. Bizitzera sartzeko 198.000€
- Kalebarren, 77 m². Berritzeko. 51.000€

ELGETA:
- Andra Mari plaza, 80 m², 3 logela, terraza ederra, trastelekua. 158.000€
- Domingo Iturbe, 80 m², 3 logela, eguzkitsua, bista ederrak. 70.000€
- San Roke, duplexa, 83 m², berritzeke, bizitzera sartzeko. 190.000€

IRAGARKIA JARTZEKO:

943 25 05 05

SAILKATUAK@GOIENA.EUS

WWW.GOIENA.EUS/SAILKATUAK

- Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- Hortik aurrera ez da onartuko aldaketarik, ez eta iragarkia bertan behera uzterik ere.
- GOIENAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

ZORION AGURRAK

BERGARA
Alaine Da Silva Moreno
Urtarrilaren 26an, 9 urte. Zorionak, maitxia! Disfrutau pila bat. Asko maite zaitxugu. Etxekoen eta batez ere, Kenarren eta Izeiren partetik.

ARRASATE
Xabat Guzman Arregi
Urtarrilaren 25ean, urtebete. Zorionak, pitxin! Etxeko txikiak urtetxo bat! Muxu erraldoi bat etxeko guztien partetik!

ARETXABALETA
Markel Nuñez Agiriano
Urtarrilaren 20an, 7 urte. Zorionak, maitia! Jarraitu holako zoriontsu!

ARRASATE
Nerea Fernandez Jimenez
Urtarrilaren 20an, 11 urte. Zorionak, Nerea! Ondo-ondo pasatu zure eguna! Patxo handi bat familia osoaren partetik!



OÑATI
Markel Madina Olalde
Urtarrilaren 20an, 30 urte. Zorionak, Markel! Hamarkada berrixari merezi dauen hasieria emungotzau! 'Let's rock it' eta gora kopak!

ARRASATE
Eider Elorza Astola
Urtarrilaren 19an, 13 urte. Zorionak, politx hori! Asko maite zaitxuau. Patxo haundi bat etxekuon partetik.

ARRASATE
Nile Hernandez Lopez
Urtarrilaren 18an, 4 urte. Zorionak, Nile! Ondo-ondo ospatu zure laugarren urtebetetze eguna! Besarkada handi bat etxekoen partetik.

BERGARA
Maialen Zenitagoia
Urtarrilaren 17an, 6 urte. Zorionak! Ondo-ondo pasa zure egunean eta muxu pila bat etxeko danon, eta batez ere, Kattalinen partetik.

OÑATI
Oier Galdos Navarro
Urtarrilaren 15ean, 6 urte. Zorionak, Oier! Egun zoragarrixa pasau deizula eta muxu erraldoiak etxeko danon partetik.

OÑATI
Jon Fernandez
Urtarrilaren 15ean, 10 urte. Zorionak, Jon! Ze handi egiten ari zaren! Muxu erraldoi bat familia guztiaren partetik. Izugarri maite zaitugu!

ARETXABALETA
Lara Da Costa
Urtarrilaren 13an, 3 urte. Zorionak, bihotza! Jarraitu etxea alaitasunez betetzen zure irribarrearekin. Asko maite zaitugu.

ARRASATE
Ramon Ramila
Urtarrilaren 10ean, urtebetetzea. Zorionak, Ramon! Egun ederra izan, eta, eskerrik asko pastelengatik! Goienako lantaldearen partetik

ZORIONTZEKO HIRU BIDE
- Goiena.eus-en erabiltzailea sortu eta *https://goiena.eus/zorionagurrak* helbidean sartu.
- Mezua bidali *zorionagurrak@goiena.eus* helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.
- Zatoz Goienara batera edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

BERGARA
Oier Mendizabal Larrañaga
Urtarrilaren 11n. Zorionak! Jada 11urte! Ondo pasatu zure eguna eta patxo handi bat familiaren, eta bereziki, Maddiren partetik. Asko maite zaitugu.

ARRASATE
Adei Solis Hernandez
Urtarrilaren 24an, 6 urte. Zorionak, Adei! Besarkada eta patxo potolo bat familixa danaren partetik. Asko maite zaitugu.

OROIGARRIA

Maite Lopez de Bergara Astola

Aramaioko Udaleko garbitzailea

2023ko urtarrilaren 14an hil zen, 58 urte zituela.

Egindako lana bihotzez eskertuz.

Aramaioko Udala.
Aramaion, 2023ko urtarrilaren 20an.

OROIGARRIA

Maite Lopez de Bergara Astola

Langile ohia

2023ko urtarrilaren 14an hil zen, 58 urte zituela.

Bat egiten dugu familiaren saminarekin.

Aramaixo Herri Eskola
Aramaion, 2023ko urtarrilaren 20an.

OROIGARRIA

Arancha Acha Altuna

2023ko urtarrilaren 16an hil zen, 83 urte zituela.

Zure irribarrez
loratu dozu ingurua
maitasunez bete
dozu girua
ta beti erakutsi dozu
bizitzeko gogua.

Maitte zaitugu, amama.

Zure bilobak: Maren, Andrea, Paula, Itxaso, Iñaki, Beñat eta Ainhoa.
Arrasaten, 2023ko urtarrilaren 20an.

6. URTEURRENA

Mari Carmen Martin Martinez

'Carmina'

2017ko urtarrilaren 23an hil zen, 60 urte zituela.

Beti gure bihotzean.

Etxekoak.
Aretxabaletan, 2023ko urtarrilaren 20an.

ESKER ONA

Patxi Otaduy Uribesalgo

Mari Carmen Arrizabalagaren alarguna

2023ko urtarrilaren 4an hil zen, 95 urte zituela.

Ze ederra izan den zure bizitza gurekin konpartitzea!
Ze ederra izan den mundu honetatik joateko zure azken agurra!
Beti izango zara gure eredu eta beti eramango zaitugu gure bihotzean.

Familiak eskerrak eman nahi dizkizuegu, bihotz-bihotzez,
horrenbeste eratan elkartasuna eta maitasuna adierazi diguzuen guztioi.

Bergaran, 2023ko urtarrilaren 20an.

ESKER ONA

Arancha Acha Altuna

Ignacio Amozarrainen alarguna

2023ko urtarrilaren 16an hil zen, 83 urte zituela.

Haren seme-alabak: Luis eta Rakel Conejo, David eta Sheila Murillo,
Kepa eta Vicente Rodriguez, Maite eta Jon Plaza.
Bilobak: Maren, Andrea, Paula, Itxaso, Iñaki, Beñat eta Ainhoa.
Anai-arrebak, ezkon anai-arrebak, ilobak,
lehengusu-lehengusinak eta gainerako senideak.
—
Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi,
hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi.
Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Arrasaten, 2023ko urtarrilaren 20an.

URTEURRENA

Jabier Bikuña Urzelai

2022ko urtarrilaren 15ean hil zen, 86 urte zituela.

Izan zarenagatik
eta erakutsi diguzunagatik
gure oroimenean eta bihotzetan, beti.
—
Urteurreneko meza zapatuan izango da, urtarrilaren 21ean,
19:00etan, Oñatiko Mikel Goiaingeruaren parrokian.

Bertaratuko zaretenoi, eskerrak familiaren izenean.
Oñatin, 2023ko urtarrilaren 20an.

ESKER ONA

Teofilo Garcia del Rio

2023ko urtarrilaren 12an hil zen, 89 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan gure ondoan egon zaretenoi;
jaso dugun maitasun eta babesa eskertu nahi dizuegu.

Bihotz-bihotzez besarkada estu bana senideon izenean.

Oñatin, 2023ko urtarrilaren 20an.

ESKER ONA

Pedro Garitaonandia Ormaetxea

Klare Ortuzar Zubiagaren alarguna

2023ko urtarrilaren 13an hil zen, 93 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi,
hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi.
Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Oñatin, 2023ko urtarrilaren 20an.

URTEURRENA

Julia Garaitonandia Portilla

2022ko urtarrilaren 14an hil zen, 83 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza domekan izango da,
urtarrilaren 22an, 13:00etan, Aramaioko Azkoaga auzoko
San Juan Bataiatzailearen parrokian.
—
Beti gure bihotzean.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.
Aramaion, 2023ko urtarrilaren 20an.

ESKER ONA

Kontxi Kortazar Kortazar

2023ko urtarrilaren 4an hil zen, 83 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan gure ondoan egon zaretenoi;
jaso dugun maitasun eta babesa eskertu nahi dizuegu.

Bihotz-bihotzez besarkada estu bana senideon izenean.

Bergaran, 2023ko urtarrilaren 20an.

BABESLEA

Oroilore

Maitasunez bizi,
maitasunez agurtu

Guri deitu zuzenean edo, nahiago baduzue, jakinarazi zuon aseguru-kompainiari gurekin nahi duzuela agurtu maite duzuena.

Marioren, Ibanen eta Maribiren partetik, besarkada magikoak zuentzako, bihotza sendatzeko balio duten horietakoak. Guk baditugu gordeta zuentzako, gure beharra duzuenerako.

Mario, Iban eta Maribi

Tel.: 617 44 21 55 • BERGARA • ANTZUOLA
Moyua OÑATI • Tel.: 943 71 66 37

! Eskela gehiago **38.** orrialdean.

ESKELAK

URTEURRENA

Juan Garay Larrañaga
'Arizmendi'

2022ko urtarrilaren 20an hil zen, 86 urte zituela.

San Anton egunean, zenbiltzan inuzketa lanean,
zuhaitz zein lur zaintzearen konpromisoari eutsiz, ezbehar egunean.
Bizi oso bat eskaini zenion, jaiotako etxeari.
Zauden lekuan zaudela, zaude gu denon oroimenean.
—
Urteurreneko meza domekan izango da, urtarrilaren 22an, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokian.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.
Bergaran, 2023ko urtarrilaren 20an.

! Eskela gehiago **37.** orrialdean.

ASTEA GOIENA TELEBISTAN

'GAZTEAK ETA KIROLA'
Eskola kirola oinarri, erabiltzaile izandako bi lagunekin, psikologo batekin eta nutrizionista batekin egongo da Iñigo Barrena.
'Bizi On!' *Egubakoitza, 21:00 eta 23:00*

GAZTAINAK BERBAGAI
Garaian garaikoak protagonista dituen *Landara* saioan, gaztainak izango ditu berbagai Txomin Madinak.
'Landara' *Eguaztena 21:00 eta 23:00*

ZER EMAN DU AGINTALDIAK ANTZUOLAN?
Goiatz Aranak bukatzear dagoen agintaldiaren errepasoa egingo du Udalean ordezkatuta dauden hiru alderdietako ordezkariekin.
'Harira' *Martitzena, 21:00 eta 23:00*

GOIENA TELEBISTA NAHIERAN:
goiena.eus/telebista
Edo eskaneatu aldameneko qr kodea.

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus

EGUBAKOITZA 20

ARETXABALETA Danborrada
Kurtzebarri eskolako neska-mutikoek danbor hotsak astinduko dituzte San Sebastianen omenez.
Iturrigorri frontoian, 15:45ean.

ESKORIATZA Zinema-emanaldia, palomitekin
Umeendako.
Ludotekan, 17:00etan.

ELGETA 'Koko-batzea': erakusketa
Ikusgai egongo da aste bukaeran.
Zeramika gelan, 18:00etan.

OÑATI Rap emanaldia eta kontzertua
20:00etako emanaldietan herriko hainbat gazteren kantuak; eta, 22:00etan, Doce-C eta Txandal Vandals taldeen kontzertua.
Gaztetxean.

ZAPATUA 21

ARRASATE Zuhaitz Eguna
Zuhaitz azoka, bost mintegirekin. Bi zuhaitz-sorta zozketatuko dituzte.
Seber Altuben, 08:00etan.

BERGARA Autodefentsa feminista tailerra
Ordutegia: 10:00-14:00 eta 15.00-17:00.
Agorrosinen.

ESKORIATZA Mahai-futbol txapelketa
12-16 urte artekoendako.
Gaztelekuan, 17:00etan.

ARRASATE Ginkana alaia
Gaztetxoendako. Hainbat proba egiteko aukera.
Tren geltokiko gaztelekuan, 18:00etan.

BERGARA 'Casilda revolucionaria' liburuaren aurkezpena
Ruben Uceda marrazkilari madrildarrak Kasilda Hernaezen bizitzaren gainean egindako liburua. Angiolillo liburutegian 2023an egingo den lehen liburu aurkezpena.
Kartzela zaharrean,18:30ean.

BERGARA 'Sex o no sex' ikuskizuna
Bizitzari, heriotzari eta sexuari buruzko hausnarketa egingo du oholtza gainean Virginia Imazek. Sarrerak, zortzi euro.
Seminarixoan, 20:00etan.

ESKORIATZA Akulu taldea
Speed punk diskoa aurkeztuko du Aretxabaletako hirukoteak. Pablo, Xabi eta *Poli* dira taldeko kideak.
Inkernu tabernan, 22:30ean.

DOMEKA 22

BERGARA San Bixente jaiak, Parteitxi auzoan
12:00etan, meza, eta ostean, luntxa eta Inpernu Trik taldearen emanaldia; eta 13:00etan, Potx magoaren ikuskizuna.
Parteitxi auzoan.

BERGARA Bergarako Musika Banda
Enrike Txurrukak gidatuta.
Pilotalekuan, 12:30ean.

OÑATI San Anton ermandade: urteko batzarra
12:00etako mezaren ostean.
Parrokian, 12:45ean.

ESKORIATZA 'Ping pang' zirku ikuskizuna
Ping-pongeko pilotak manipulatzeko teknika landua erabiliko du Xabi Larreak, malabarismoaren eta magiaren teknika lotuz. Sarrerak, hiru euro.
Zaldibar antzokian, 17:00etan.

OÑATI 'Munduari itzulia 80 egunetan' antzezlana
Glu Glu konpainiaren eskutik, Jules Verneren izen bereko liburuan oinarrituta. 3-9 urte arteko umeendako. Andrea Covadonga, Jon Casamayor, Sara Barroeta eta Leire Ormazabal aktoreekin. Sarrerak, lau euro.
Santa Anan, 17:00etan.

ARRASATE 'Familian jolasean' ekimena
0-8 urte arteko haurrendako eta euren familiendako askotariko jolasak.
Okendoko ludotekan, 17:30ean.

ARRASATE Auzolana gaztelekuan
Eszenatoki berria muntatuko dute gaztetxoek.
Tren geltokiko gaztelekuan, 18:00etan.

ARETXABALETA 'Toto' antzezlana
Toto txakurraren istorioa kontatzen du Hika Teatrok. Kepa Errasti da protagonista, Agurtzane Intxaurraga, Asier Hernandez Landa eta Miren Gojenolarekin batera. Sarrerak, bost euro.
Arkupen, 19:00etan.

ARRASATE 'Lagun beltz asko' antzezlana
Ramon Ibarra, Asier Hormaza eta Asier Sota oholtza gainean. Sarrerak, hamar euro.
Amaia antzokian, 19:30ean.

ASTELEHENA 23

OÑATI Pentsiodunen elkarretaratzea
Pentsio duinak eskatzeko.
Foruen plazan, 12:00etan.

BERGARA Pentsiodunen elkarretaratzea
Pentsio duinak eskatzeko.
San Martin plazan, 12:00etan.

ANTZUOLA Pentsiodunen elkarretaratzea
Pentsio duinak eskatzeko.
Herriko Plazan, 12:00etan.

ARRASATE Pentsiodunen elkarretaratzea
Pentsio duinak eskatzeko.
Herriko Plazan, 12:00etan.

ARETXABALETA AKUARELa erakusketa
Angela Redondoren lanak ikusteko aukera, hilaren 28ra arte. Basoak, zuhaitzak, bideak... natura da bildumaren protagonista.
Arkupen, 17:00etan.

OÑATI 'Ayudar a los demás con el voluntariado' hitzaldia
Caritas Gipuzkoako ordezkari Mabel Cenizok egingo du berba, Pake Lekuk gonbidatuta
Pake Lekun, 18:30ean.

MARTITZENA 24

OÑATI 'Aulkiak-2' ekimena
Gaurko saio irekian kultura eta hezkuntza arloko herriko eragileak batuko dira.
Euskaldun Berria gelan, 18:00etan.

OÑATI 'Tertulixan, euskaraz'
Rikardo Arregi Diaz de Heredia idazlearen *Bitan esan beharra* poesia liburuaz jardungo dute, Miriam Lukik gidatuta.
Liburutegian, 18:30ean.

ARRASATE 'Suak erreko ez balu' liburuaren aurkezpena
Eneko Barberena egileak aurkeztuko du liburua, Jokin Labayenek gidatutako ekitaldian.
Kulturateko Jokin Zaitegi gelan, 18:30ean.

ELGETA Kantsatzeke: bazkidetza eta federazio txartela
Tramitazioa egiteko aukera.
Kultura etxean, 19:00etan.

OÑATI 'Euskaldunak, estatu(tu) ak ba(na)tuak' hitzaldia
Asisko Urmenetak egingo du berba, Nabarralderen Oñatiko sustatzaileek gonbidatuta.
Zinema aretoan, 19:00etan.

ARRASATE 'Ainarak' dokumentala
Juan San Martinen lana martitzenetako emanaldian.
Amaia antzokian, 19:30ean.

EGUAZTENA 25

BERGARA 'Análisis cinematográfico' hitzaldia
Pedero Saldañak egingo du berba, Goienagusik gonbidatuta.
Seminarixoan, 10:00etan.

OÑATI 'Aulkiak-2'
Kirol eta ingurumen arloetako herriko eragile sozialak elkartuko dira gaurko saio irekian.
Euskaldun Berria gelan, 18:00etan.

OÑATI 'Gasteiz 1200' komikiaren aurkezpena
Aritz Ibarrak eta Iñigo Larramendik egongo dira ekitaldian, Nabarralderen Oñatiko sustatzaileek gonbidatuta.
Zinema aretoan, 19:00etan.

ADOS TEATRO

ARRASATE 'Lagun beltz asko' antzezlana
Adiskidetasun mugagabeari eta bere mugei buruzko komedia taularatuko du Ados Teatrok. Ramon Ibarra, Asier Hormaza eta Asier Sota dira protagonistak. Sarrerak, hamar euro.
Etzi, domeka, Amaia antzokian, 19:30ean.

BERGARA 'R.M.N.' filma
Jatorrizko bertsioan eta azpitituluekin. Sarrerak, hiru euro.
Seminarixoan, 20:00etan.

EGUENA 26

ARRASATE Sasoibide
Bixi-bixi tailerra egingo dute.
Ferixalekuan, 10:00etan.

OÑATI 'Ostegun kontalariak'
Pello Añorgarekin. Aurrez eman behar zen izena.
Liburutegian, 17:30ean.

ESKORIATZA Literatura solasaldia
Uxue Alberdiren *Dendaostekoak* liburuaren gaineko saioa, Mikel Antzak gidatuta.
Kultura etxean, 18:00etan.

ESKORIATZA Ipuin kontaketa
Ines Bengoaren eskutik, 4 urtetik gorako neska-mutikoendako.
Bibliotekan, 18:00etan.

ARRASATE Literatura solasaldia
Mikel Santosen *Gerezi garaia* liburua oinarri hartuta.
Kulturaten, 18:30ean.

BERGARA Kartzelako irakurketa taldearen saioa
Iñigo Astiz eta Maite Mutuberriaren *Joemak eta polasak* liburua irakurri eta ostean, solasaldia, Iñigo Astiz idazlearekin.
Kartzela zaharrean, 18:30ean.

ARAMAIO Santa Agedako entsegua
Gaur egingo dute lehena. Bestea, otsailaren 2an. Santa Ageda batzea otsailaren 4an egingo dute.
Musika etxean, 19:00etan.

OÑATI 'Aftersun' filma
Charlotte Wells zuzendariaren pelikula, jatorrizko bertsioan eta azpitituluekin. Sarrerak, bost euro.
Zinema aretoan, 20:00etan.

ARRASATE Kooltur Ostegunak: Sua taldea
Sarrerak, zazpi euro.
Gaztetxean, 22:00etan.

EGUBAKOITZA 27

ARRASATE San Baleixo jaiak
19:30ean, pintxo-poteoa Peru Abarrategi, Xabi Igoa eta Ane Zuazubizkar bertsolariekin; eta, *22:30ean, mus txapelketa.*
Meatzerrekan.

OÑATI Viafara eta Nihl taldeak
Sarrerak: hiru euro langabeek eta ikasleek eta bost euro langileek.
Gaztetxean, 22:00etan.

BERGARA Kantari ikuskizuna
Herriko neska-mutikoak protagonista dituen karaoke ikuskizunaren lehen emanaldiak.
Seminarixoan, 16:00etan.

ZINEMA

ARRASATE

AMAIA ANTZOKIA

Todos lo hacen
Zapatua: 19:30.

Rabbit academy
Zapatua: 17:00.

BERGARA

SEMINARIXOA

El peor vecino del mundo
Domeka eta astelehena: 19:30.

Inspector Sun y la maldición de la viuda negra
Domeka: 17:00.

OÑATI

KULTURA ETXEA

El pero vecino del mundo
Egubakoitza eta zapatua: 22:00.
Domeka: 19:30, 22:00.
Astelehena: 19:30.

El gato con botas
Zapatua eta domeka: 17:00.

ARETXABALETA

ARKUPE

I wanna dance with somebody
Egubakoitza: 22:00.
Zapatua: 19:30.
Astelehena: 16:00

Nire zirkua
Zapatua: 17:00.

EIBAR

COLISEO

Kung Food
Zapatua eta domeka: 17:00.

El falsificador de pasaportes
Zapatua: 19:45, 22:30.
Domeka: 20:00.
Astelehena: 20:30.

El peor vecino del mundo
Zapatua: 17:00, 19:45, 22:30.
Domeka: 17:00.
Astelehena: 20:30.

El despertar de María
Zapatua: 19:45, 22:30.
Domeka: 20:00.
Astelehena: 20:30.

EIBAR

COLISEO

A todo tren 2
Zapatua eta domeka: 11:45.

As bestas
Egubakoitza eta zapatua: 17:00, 21:30.
Domeka. 16:30, 21:00.
Astelehenetik eguenera. 17:00, 20:00.

Avatar
Egubakoitza eta astelehenetik eguenera: 20:00.
Zapatua: 11:30, 20:00.
Domeka: 11:30, 19:30.

Babylon
Egubakoitza, astelehena, eguaztena eta eguena: 17:00, 20:30.
Zapatua: 11:30, 17:00, 20:30.
Domeka: 11:30, 16:30, 20:00.
Martitzena: 17:00.

Cantando bajo la lluvia
Egubakoitza eta zapatua: 19:15.
Astelehena, martitzena, eguaztena eta eguena: 17:00.

Close
Egubakoitza, zapatua, astelehena, eguaztena eta eguena: 19:30.
Domeka: 19:00.
Martitzena: 20:30.

El asombroso Mauricio
Egubakoitza: 17:15.
Zapatua: 11:45, 17:15.
Domeka: 11:45, 16:45.
Astelehenetik eguenera: 17:30.

El falsificador de pasaportes
Egubakoitza eta zapatua: 17:00, 21:45.
Domeka: 16:30, 21:15.
Martitzenetik eguenera: 17:00.

El gato con botas
Egubakoitza: 17:00, 19:15.
Zapatua: 12:00, 17:00, 19:15.
Domeka: 12:00, 16:30, 18:45.
Astelehenetik eguenera: 19:30.

Emily
Egubakoitza eta zapatua: 16:45, 21:30.
Domeka: 19:00.

KRITIKA

El suplente ★★☆☆☆
Zuz.: Diego Lerman. **Herr.:** Argentina (2022). **Aktoreak:** Juan Minujín, Barbara Lennie, Renata Lerman. **Iraupena:** 110 minutu.

Istorio ezagunegia

ANTONIO ZABALA

El suplente filmak Donostia Zimenaldiko Sail Ofizialeko lehiaketan parte hartu eta saria lortu zuen. Renata Lerman aktore gazteak taldeko emakumezko aktorerik onenaren saria jaso zuen. Renatak egiten duen pertsonaia irakaslearen alaba da. Pertsonaiak ez du garrantzi handirik hartzen istorioan eta honen interpretazioak, filmari orokorrean gertatzen zaion bezala, ez du ezer berezirik erakusten. *El suplente* Argentinatik datorkigu. Literatura irakasle bat Buenos Airesko auzo gatazkatsu bateko institutura heltzen da, ordezkapen bat egitera. Hango ikasleek ez dute interes handirik ikasgaiarekiko. Egoera sozialak ere ez du batere laguntzen ikasleen motibazioan. Drogak kalean eta eskolan daude eta trafikatzaileek etekina ateratzen diote. Egoera horretan murgilduko da irakaslea, eta esku hartu beharko du.

El suplente ikusi daitekeen filma izanik, kontatzen zaigun guztia askotan ikusi dugu beste pelikula batzuetan. Egoera guztiak nahiko konbentzionalak eta ezagunak egiten zaizkigu. Thriller eta salaketa sozial kutsua duen filma nahiko txiki eta arrunt geratzen da. Dena den, zinemaldi batetik kanpo arazorik gabe ikus daitekeen filma da. Ez digu ezer berririk erakusten, baina eremu ezagunean gustura dauden ikusleendako egokia izan daiteke.

PEFC ziurtagiria
Produktu hau kontrolatutako iturrietako materialez egina dago, birziklatua da eta Baso Kudeaketa Iraunkorraren ziurtagiria dauka
www.pefc.es

Zu hemen zaude.
goiena

AZKEN BERBA

MIKEL ARREGI ASKASIBAR

Desberdinak

Astelehen goizean egin nuen etxerako bidea Hondarribitik hegan. Hegazkinean, ondoko emakumearekin berbetan, Madrilera lanera ote nindoan galdetu zidan. Nik baietz, aspalditik nagoela han kazetari lanetan, eta hark erantzun noizbehinka egiten dituela joan-etorriak hiriburuko unibertsitate baten klaseak emateko.

Hegazkinak turbulentziak zeharkatzen zituen artean, Euskal Herriari buruz hizketan hasi ginen. Madrilera zihoan irakasleak euskal gizartea erakunde eta alderdiek "gidatuta" ikusten zuen, autokritika eta ausardiatik urruti. Nik ere antzeko ikuspegia nuela esan nion, gero eta txikiago egiten ari garela, beti gure zilborrera begira, munduan gertatzen direnei entzungor, gure *oasian* isolatuta.

Bada, azkenaldian gertatutakoek nire bi bizitokietako egunerokoaz zer pentsa eman didate. Osakidetzan izandakoek –Donostiako ESIan ez ezik, gure bailarako anestesisten patua ere gogoratu beharko genuke– eta De Miguel kasuaren sententziak txarrean, behintzat, Madril eta Euskal Herria parean gaudela erakusten dute.

Desberdinak? Baliteke, baina ustelkeria eta agintekerian antzekoegiak.

BUKATZEKO

Almeneko ikasleak Oreka bizikleta dendako Sergiorekin eta Eñautekin. X.A.

Ikasitakoa praktikara, eta gizarteari ekarpena

Almeneko hamasei ikasle bizikleten inguruko proiektua egiten ari dira Arrasateko Caritasen Bidean proiektuarekin eta Oreka bizikleta dendarekin elkarlanean; edukiak modu praktikoagoan landu eta barneratzea da helburua, gizarteari ekarpena eginez

Idoia Aranbarri Arzuaga ESKORIATZA

Duela sei urte hasi ziren Arizmendi Ikastolako batxilergoko lehen mailako ikasleak proiektuka lan egiten. Ikasturtean zehar hiru proiektu egiten dituzte eta bigarren proiektua darabilkie esku artean; urtarrilaren 9tik eta hilaren 24an amaituko dute lana. Almeneko eta Gaztelupeko teknologia modalitatean dabiltzanak bizikleten inguruko proiektua ari dira garatzen. Almenen kasuan, 16 ikasle dira; Xabi Aranzabal eta Alaitz Martinez irakasleak dituzte gidari.

Aranzabalek adierazi duenez, proiektuen helburua da hainbat ikasgaitako edukiak batera lantzeaz gain modu praktikoagoan barneratzea, ikasleak errealitatearekin harremanetan jartzea eta gizarteari ekarpenena egitea, "zer eskaini diezaioket munduari/gizarteari bizikleta baten bitartez? " galderari erantzunez. Horregatik, bizikletak muntatzen, desmuntatzen eta funtzionamendu egokia zein den ikasten dabiltza Oreka bizikleta dendako Sergio Valentirekin. Ondoren, Caritasen Bidean proiektuarekin izan dute hartu-emana. Amaitzeko, infografiak eta proiektua osorik jasotzen duen ikus-entzunezko erreportajea egingo dituzte.

Ikasleak eta Caritas, eskutik

Caritasekin duela hiru urtetik ari dira lanean. "Urtetik urtera proiektuari forma ematen joan gara", dio Aranzabalek. Izan ere, Bidean proiektuan parte hartzen dutenek bizikletak erabiltzen dituzte egunerokotasunean; hortik dator Caritasen eta proiektuaren arteko lotura.

Aurten, adibidez, urtean zehar bizikleta zaharrak eskuratu dituzte Caritasekoek eta proiektua hasi aurretik jaso dituzte Almenen: "Guk hartu eta konpondu ditugu, eta konponketa lan horretan boluntarioki sartu da Sergio Valenti; gu ez baikara mekanikariak. Sekulako zortea izan dugu".

Harreman horren barruan bizikletak konpontzeaz aparte, elkar eta egiten dutena ezagutzeko aukera dute. Astelehenean izan ziren ikasleak Oreka denda eta Bidean proiektua gertutik ikusten: "Zaurgarriak diren pertsonekin egiten dute lan. Jostailuak eta bigarren eskuko arropa jasotzen dituzte, gero saldu eta dirutxo bat ateratzeko. Tailer bat ere badaukate. Egoera erreala ezagutu zuten; ziur, bestela, ezagutzeko aukerarik ez zutela izango". Astelehneko eguna "polita" bezala deskribatu du. Gaur, Caritasekoak doaz Almen nahiz ikasleen proiektuak ikustera eta Aranzabalek aitortu du Caritasetik badutela asmoa bizikleta dendara bisita egiteko.

Halaber, Almenen jostailuak eta arropa biltzeko kanpaina jarri dute martxan, Bidean proiektuari babesa emateko. Nahi duenak ekonomikoki ere eman dezake laguntza.

Eskerrak Caritasi eta Orekari

Almenek eskerrak eman nahi dizkie Caritaseko arduradun eta erabiltzaileei eta Oreka dendako arduradun eta laguntzaileei: "Garatu nahi dugun proiektuan emandako laguntza eskuzabalagatik eta, batez ere, bizi dugun esperientzian bidelagunak izateagatik. Ikasten eta, aldi berean, disfrutatzen ari gara".